1992 - 2017

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA



ULMA GARA

Gara

ULMA GARA, OÑATI GARA
iragana, oraina eta etorkizuna elkarrekin

AGURRA

Oñatiko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Foruen Enparantza Z/G
20560 OÑATI

Zuzendaria:
Oñatiko Udala

Erredaktorea:
Aitor Biain

Publizitatea:
Aratz Losada

Diseinua eta maketazioa:
Aratz Losada

Inprimategia:
Gertu

Tirada:
5.500 ale

Lege gordailua:
SS-357/91

Posta elektronikoa:
kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:
publi@onati.eus

Helbidea:
Bidaurreta dorrea, Z/G
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel. 943 78 20 72

(*) Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Zorionak Kontzejupetik!

Zorionak Kontzejupetik!! 25 urte bete dituzu, eta ez da makala gaurdaino egin duzun ibilbidea!

Jaio zinenean izen bat jarri beharra zegoen eta iruditzen zait ondo jarritako izena dela zurea. Ariketa etimologiko bat eginez, badu zentzua, badu arrazoia zure izenak. Kontzejua zelako garai batean eta ez Udaletxea. Orduan ez zegoelako sare sozialik, telefonorik, aldizkaririk, telebistarik. Horrexegatik “Kontzejupeia” zen oñatiarron informazio iturri nagusixa, beste herrietan legez. Hor bildu ohi ziren maiz gure arbasoak batzarrak egin eta informazioa jasotzeko.

Espiritu berbera mantendu du gure aldizkariak bere mende laurdeneko ibilbide honetan. Herriko egunerokotasuneko berriak helarazi ditu hilero-hilero, fin-fin Oñatiko kale-etxe eta baserri denetara. Baina horrez gain, eman du bere balio erantsia, gure herriko kultura eta historiari betik ireki diolako leihoa. Horrek ahalbidetu du oñatiar denok gure herriari buruzko ezagutza partekatzea. Eta nola ez, horrek laguntzen du herri baten izaera, nortasuna osatzera.

Bereziak garenaren topiko horretan, honetan ere badirudi berezitasuna mantendu dugula inguruko beste herriekiko. Eskualde mailako hedabideak garatu diren heinean galdu izan dira tokian tokiko beste hedabide batzuk. Ez da hori gure kasua izan. Osasuntsu dirau gure aldizkariak eta komunikazio proiektuak. Gizarte digitalean bizi garen honetan, sare sozialen erronka berriari erantzuteko bitartekoak jarri ditu Oñatiko Udalak, baina idatzizko komunikazioa albo batera utzi gabe, belaunaldi ezberdinetako herritarrei zor gatzaielako eta arrakala digitalaren arriskua hor daukagulako gaur eguneko gizartean.

Horrez gain, azpimarragarria da euskararen erabilera eta ezagutzari dagokionean gure aldizkariak egiten duen ekarpena. Euskaldun izate bidean diren horiei nahiz euskaldun zahar izanik alfabetatze bidean diren horiei begira. Euskaraz bizi garen herria gara, eta faktore askoren artean, iruditzen zait Kontzejupetik aldizkariak ere izan dezakeela horretan bere erru zatia.

Benetan eskertu beharrean gaude Kontzejupetik aldizkaria hilero ateratzeko ahalegin horretan urte guzti hauetan jardun diren langile, herritar bolondres, komertzio, enpresa eta bestelako eragileen lana.

ZORIONAK BADA, ETA BIDE ON!!

ALKATEA

1992/93

UDAL AURREKONTUA

1.896
milioi pezeta

MOTZEAN

Rikardo Arregi saria Kontzejupetik-entzat

▪ 11.alean argitaratu zen 'Urbiako fondaren isiltasunean, protagonistak mintzo' erreportajeari esker jaso zuen kazetaritza saria.

Gasolindegia lekuz aldatzeko akordioa

▪ Apaolaza kalean kokatuta zegoen gasolindegia Santxolopetegira lekualdatzeko akordioa lortu zuen Udalak Foru Aldundiarekin.

Kaipirixo elkartea, ondarea babesteko

▪ Kultur ondarea babesteko helburua zuen eskualde mailako Kaipirixo elkartea eratu zuten kulturgintzako bailarako hainbat lagunek.

Paperaren edukiontziak, kalean

▪ Gainontzeko zaborrarekin bereiziz, papera bakarrik biltzeko edukiontziak jarri ziren. Ordura arte, beirarenak soilik ziren herrian.

KONTZEJUPETIK aldizkariaren lehen alea kaleratu zen

[0 ALEA] 1992ko irailean argitaratu zen lehendabiziko aldiz KONTZEJUPETIK udal aldizkaria. LAIXAN euskara elkartearekin lankidetzan eratu zen, eta udal musika bandaren kontzertu baten argazkia eraman zuen azalean 0 zenbakidun aleak. Euskara hutsean idatzia, guztira 54 orri zituen, eta, tartean, udal informazioaz gain, iritziak, kultura, kirolak, sukaldaritza, edota literatura bezalako gaiak izan zituen hizpide.

Ez zen lehen aldia ordea, KONTZEJUPETIK argitaratzen zela. Aurrez, 1988 eta 1991 bitartean, beste 13 zenbaki kaleratu baitzituen udaleko Euskara sailak. Udalaren eta inguruko erakundeen gaiak izan zituen eduki gisa. OÑATI IRRATIArekin batera, euskararen normalizaziorako tresna izan da aldizkaria.

Oñatiko zenbait gazte ere, intsumiso

[4 ALEA] Oñatiko Intsumisoen taldea eratu zuten, arrazoi bategatik edo bestegatik, soldadutzari uko egin zioten herriko hamabost gaztek. Soldadutzaren ordezko zerbitzu soziala egitea ere ez zuten onartzen, eta urte eta erdiko kartzela zigorraren mehatxua zuten gainean. Batzuk epaiketaren zain zeuden orduan; beste hainbatek, aldiz, sumariorik ere ez zuten. Talde gisa antolatu eta intsumisioaren aldeko kontzientziazio lana egitea zen beraien helburua.

Haur Liburutegia, Natur Eskola eta Gaztelekua, zabalik

[6 ETA 12 ALEAK] 1993an zabaldu zen Haur Liburutegia Kultur Etxean. Arantzazu Ibarrondo izendatu zuten arduradun gisa. Bestalde, urte berean baita ere ireki zituen ateak Gaztelekuak. Gaztetxea itxi zenetik, gazteen beharrei erantzun asmoz zabaldu zuen udalak. Garai bateko azokan kokatu zen (gaur egungo toki berean). Natur Eskola ere orduan zabaldu zen. Olarako eskola zaharrean kokatuta, naturari lotutako ekintzak sustatzea zuen xede.

Herriko lehenengo landa turismoa, Enparantza baserrian

[1 ALEA] Olabarrieta auzoko Enparantza baserrian ireki zuten herriko lehen baserri ostatua. Iñigo Etxebarria izan zen landa turismoari ateak ireki zizkion aurrena, ordu artan. Zahartuta zegoen etxea eraberritu zuen Etxeberriak, eta beharrezko azpiegiturez hornitu nekazaritza turismoen zirkuituaren barruan sartu ahal izateko. Sei logela bikoitz zituen ostatua zabaldu zuten 1992ko urte amaieran; 2.500 eta 3.000 pezeta bitarteko prezioa zuen gauak.

1992ko ekaineko uholdeak gogoan

[0 ALEA] KONTZEJUPETIKen aurreneko alea argitaratu zenerako hiru hilabete pasa baziren ere, 1992ko ekainaren 23an izandako uholdeak ere gogora ekarri ziren. Gogotik egin zuen euria eta errekak gainezka egin zuen ondorioz. Ura herriko kaleetara ere iritsi zen, eta hainbat gune ur azpian gelditu ziren. Une gogorrak izan ziren askorentzat. Kalte ugari utzi zituen: guztira, 1.500 milioi pezetako galerak izan ziren. Inoiz herrian izan diren uholderik handienak izan ziren haiek.

OÑATI-PAMIR 93 mendi espedizioa abiatu zuten

[7-11 ALEAK] Oñatiko mendizaletasunaren mugak hautsiz, Aloña Mendiko Aitor Guridi, Miguel Angel Agirrezabal eta Jesus Arregi PAMIR mendikatera abiatu ziren Pico Comunismo (7.495) gailurra zapaltzeko asmotan. Ez zuten halakorik lortu, ordea. Bai, aldiz, Kornovskayaren gailurra egitea (7.105). Beherako bidean baina, izozketak jasan zituzten Agirrezabal eta Guridik oinetan, mendizale poloniar bati laguntzeko asmotan gau bat gehiago 30 gradu zero azpitik igaro ondoren, eta, ondorioz, bi aste eman zituzten Zaragozako klinika batean tratamendua jasotzen. Luze joan zitzaien sendatze prozesua.

Urte hartan, ordea, hiru herrikide hil ziren mendian: Fernando Markinez, Esther Galdos eta Iñigo Ibarrondo.

MARTIÑOLA gaitero eta kultur elkartea sortu zuten

[8 ALEA] Ruper eta Mikelek aspalditxoan zuten gaita eta alboka jotzen ikasteko gogoa. Lizarrako DEIARRI gaitero taldearekin bazkaldu ostean gorpuztu zen dena baina, haien akademiara joateko gonbita jaso ondoren. Larunbatero entseatzen zuten, eta danborra jotzen zekien norbaiten beharra zutela eta, Imanol gehitu zitzaien ondoren. Hala, Herri Egunean egin zuten lehen agerraldia. Martin Iñurrategi MARTIÑOLA herriko dultzainero ohiaren omenez jarri zioten izena taldeari.

Hirukotearen asmoa baina, gaitero taldeaz gain, beste hainbat kultur ekintza bildu eta eskainiko zituen elkarte bat eratzea zen. Bide horretan lehenengo urrats gisa, gaita eskola bat martxan jartzea zen haien asmoa.

Emakumezkoen lehen futbol taldea

[12 ALEA] Urte asko zain egon ondoren, emakumezkoen futbol taldea osatu zuen lehenekoz Aloña Mendik. Herrian egindako deialdiaren ondoren, 15 eta 21 urte bitarteko 50 neska aurkeztu ziren, eta horietatik 25 aukeratu zituzten.

Entrenatzaile ofiziala Jesus Clemente bazen ere, Manu Arregi, Javi Mateos, Roberto Hernandez eta Iker Jausororen artean banatu zituzten entrenamendu eta antolatze lanak. Gipuzkoako txapelketan lehiatzen hasi zen taldea.

Jose Mari Altube, Europako txapeldun

[11 ALEA] Pitxoi tiraketan Europako txapeldun bilakatu zen Jose Mari Altube. Galizian jokatutako txapelketan munduko eskopetarik finenei gailendu zitzaien. 34 pitxoi behar izan zituen 1,10 metro zituen garaikurra bereganatzeko.

Gipuzkoako musika banden alardea Oñatin izan zen

[2 ALEA] Gipuzkoako musika banden alardea herrian egin zen Antonino Ibarrondo zena omentzeko. Errenteria, Mutriku eta Oñatiko musika bandek kontzertu berezia eskaini zuten Zubikoako pilotalekuan, azaroan. Aurrez, kalejira bat ere egin zuten, eta herriko plazan amaitu zuten.

Klarinete eta armonia ikasketak burutu ondoren, herriko udal musika bandaren zuzendari izatera heldu zen Ibarrondo. 1985ean zendu zen.

75. urteurren ekitaldiak, herrian

[12 ALEA] Euskaltzaindiaren sorreraren eta Eusko Ikaskuntzaren 1. Kongresuaren 75. urteurren ekitaldiak izan ziren herrian. Biak ala biak, unibertsitatean egin zituzten ekitaldi nagusiak, orduko alkate Eli Galdos bertan zelarik.

Euskaltzaindiari dagokionez esaterako, bertan eman zion hasiera urteurrena ospatzeko antolatu zuen programa bereziari. Urtebetez luzatu zen ospakizuna, eta Bilbon amaitu zen 1994an euskara batuari buruzko biltzarrarekin.

1994

UDAL AURREKONTUA

1.301
milioi pezeta

MOTZEAN

Olaburu formazio zentroa abian

▪ Lanerako formazio ikastaroak eskaini eta enpresa ideia berriak abian jartzen laguntzeko asmoz egokitu zuen udalak Zubillagan.

Oñatiar intsumiso baten lehen epaiketa

▪ Soldadutzari uko egin izanagatik epaitu zuten Iñaki Galdos, Donostian. Fiskalak urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu zuen.

ULMAk MCCn ez sartzea erabaki zuen

▪ Kooperatiba Taldearen Batzar Orokorra egin ondoren, proiektu autonomoaren alde egin eta MCCn ez sartzea erabaki zuen ULMAk.

Sabino Zuazabeitia, parroko berria

▪ Ordu arteko Tomas Madinabeitia ordezkatu zuen Sabino Zuazabeitiak Oñatiko parroko gisa. Madinabeitia Legazpira joan zen.

Bidebarrietao urbanizazio lanak egin ziren

[23 ALEA] Bidebarrietan eraikitako etxebizitza berriak herriaren erdigunearekin lotuko zituen kale berria eraikitzeko lanak egin ziren. Hala, Zubikoa kiroldegiaren eta Txantxiku ikastolaren arteko errepidea egin zen, eta baita azoka alboko biribilgunea ere, eta zer esanik ez, Bidebarrietarainoko bidea. Kiroldegi inguruko aparkalekuak ere egin ziren. Aldaketa handia suposatu zuen, bi gune garrantzitsuren arteko lotura gauzatu baitzen.

Dena den, iritzi kontrajarriak eragin zituen kiroldegiaren aurrealdean ibilgailuentzako bidea zabaltzeak. Batzuk beharrezkoa ikusten zuten, eta Zubikoa inguruak asko irabaziko zuela; beste batzuk, berriz, arriskua areagotuko zela uste zuten, kontuan hartuz inguru horretan kiroldegia, ikastola, eta erreabilitazio zentroa zegoela.

Urrutxuko zabortegia betiko itxi zuten

[24 ALEA] Kontrolik gabeko zabortegia izateari utzi zion Urrutxuk, Udalak hura ixteko erabakia hartu ondoren. Hainbat buruhauste eragin zuen guneak, bertara botatako hondakinak zirela eta. Ingurumen arazoak larriak ziren. Hori horrela, bertara hondakinak eramateko baimena izatea beharrezkoa izatera igaro zen; ordainetan ezer ordaindu beharrik gabe. Edonola ere, aurki zabalduko zen Hondakindegi Alternatiboa, Urrutxun bertan.

Hilerriko handitze lanak, amaituta

[24 ALEA] Herria hazi egin zela eta, txiki geratu zen hilerria, eta Udalak hura handitzeko lanak egin zituen. Guztira 5 hobidun 272 hilobi berri egin ziren. Gune zaharrari itsatsita eraiki zen hilerri berria. Lanek urte eta erdi iraun zuten, eta 80 milioi pezetako kostua izan zuten.

Inaugurazioan Udal eta Eliz ordezkariez gain, parrokiko koruko kideak ere izan ziren. Sabino Zuazabetia parrokoaren bedeinkapena jaso zuen sail berriak, koruko kanten laguntzarekin.

Oñatiko Udala Saharan izan zen

[21 ALEA] Eusko Legebiltzarrak bultzatutako Euskal udalerrien eta Saharako daira (herri) ezberdinen arteko anaikortasun planaren barnean, udal ordezkaritza bat Saharan izan zen Gleibat Elfula eta Oñatiren arteko anaitze akordioa sinatu eta autodeterminaziorako eskubidea bultzatzeko asmotan. Angel Iturbe alkatea eta Jesus Mari Madinabeitia idazkaria Aljeriako Tinduf kanpamenduan izan ziren ekainaren 25etik 28ra bitartean. Fronte Polisarioaren eskerrak jaso zituzten.

Osasun zentroa Agustinoetara

[15 ALEA] San Martin egoitzako eraberritze lanen ondorioz Agustionoen etxean kokatu zen osasun zentroa, behin behinekoz, udalak eta Laterandarrek lortutako akordioari esker. Hainbat lane gin ziren Agustinoen etxeko goiko solairua egokitzeko,eta igogailua ere jarri zen. Lanek 12 milioi pezetako aurrekontua izan zuten. Anbulatorioaren kokapenak kezka sortu zuen herrian. San Martin egoitzako lanak amaitu ostean, osasun zentroak bertara itzuli behar ote zuen ala ez eztabaida piztu zen.

Futbol talde nagusiak 3. mailarako igoera lortu zuen

[18 ALEA] Denboraldi biribila egin ondoren, Aloña Mendiko futbol sailak inoiz izan duen lorpenik handiena lortu zuen, talde nagusiak Preferente maila irabazi eta 3. mailarako igoera txartela lortuta. Ligako azken aurreko partidan eskuratu zuen igoera matematikoki. Donostiako Heriz taldearen aurka 1 eta 2 irabazita. 1-0 galtzen joan ondoren, Xabi Arregik berdindu zuen partida eta Iker Jausorok sartu zuen garaipenaren gola.

Fernando Azpiazu eta Julio San Vicente ziren taldearen entrenatzaileak. Aurreko hiru denboraldietan Jabi Agirrek egindako lana borobiltzen jakin zuen bikoteak. Denak bat zetozen taldearen sekretua aurreko urteetako esperientzia eta prestakuntza fisiko egokia izan zela esatean.

FIESTA filma errodatu zen herriko zenbait txokotan

[24 ALEA] 1936ko gerrako irudi eta oroitzapenak berreskuratu zituzten herritarrek FIESTA filmaren grabaketari esker. Jose Luis de Vilallongaren izen bereko eleberrian oinarritutako filmaren hainbat zati grabatu zituen Pierre Boutron zinemagile frantziarrak herrian. Bestak beste, herriko plaza, unibertsitatea edota parroki inguruak agertoki bilakatu ziren egun batzuez. Militarrez, kanoi eta garaiko jantziez bete ziren kaleak. Filmak Arrasate faxisten menpe erori zeneko uneak laburbildu zituen.

Ez zen izan, ordea, guztien gozamenerako. Fusilamenduen irudiak ikusita, oraindik barruan zituzten oroitzapen gogor eta tristeak azaleratu baitzizkioten herritar bati baino gehiagori.

Estatuko superkopa irabazi zuen Casaisek

[25 ALEA] Hogeita bi urterekin eta abiadura kotxeen munduan bi urte soilik eman ondoren, ZX turismoentzako Estatuko superkopa irabazi zuen Jon Casaisek. Piloturik gazteena zen, eta gainerakoek baino karrera bat gutxiago izan zuen puntuak eskuratzeko.

Lehen bi denboraldietan adituen arreta bereganatu, eta ELF etxeak Formula Renault txapelketan aritzeko aukera eman zion. Lehen hiru lasterketetan arazo mekanikoak izan ondoren, ZX turismoetara pasa zen.

Espeleologia taldeak 25 urte bete zituen

[16 ALEA] Aloña Mendiko Espeleologia taldeak 25 urte bete zituen. Urteurrena ospatzeko, Santa Ana antzokian bildu ziren taldeko kide izandako espeleologo guztiak, ordura arteko urteetan burututako ekintzen inguruko diapositiba emanaldia ikusi eta gaiaren inguruan hitz batzuk egiteko. Tartean zen, Reyes Korkostegi alkate ohia ere.

Argazki, liburu, topografia nahiz kartel zaharrak biltzen zituen erakusketa bat ere egin zen urteurrena ospatzeko.

Urrezko domina Demetrio Iriarteri

[19 ALEA] Euskal Herriko Txistularien Elkarteak Urrezko Domina eman zion Demetrio Iriarteri, txistulari batek jaso dezakeen aitorpenik handiena. Bizitza osoan zehar txistuaren alde egindako lana eskertu nahi izan zion elkarteak txistulari oñatiarrari.

Hirurogeita hamar obra baino gehiago idatzi zituen Iriartek. Hainbat urtez irakasle lanetan ere ibilia, aitonaren eta aitaren bidea jarraitu zuen. "Oñatin beti apreziatu izan da txistua, eta asko maitatu gainera".

Hor Konponek diskoa atera zuen

[25 ALEA] Hor Konpon taldeak 'Gizaki Standard 7534 zenbakiduna' diskoa plazaratu zuen. Aurretik, 1991n Bateneuanba ondarrutarrekin partekatutako diskoa atera zuen, eta 1993an Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi zuen ('Zai nago' maketarekin).

GERARDO MARKULETA

Lizardi saria irabazi zuen Gerardo Markuletak 'Asier eta Egia Gurutzatuen liburua' ipuinari esker, eta hurrengo urtean argitaratu zuen Zarauzko udalak.

1995

UDAL AURREKONTUA

1.423
milioi pezeta

MOTZEAN

Ur-depositua handitu zuten Urrutxun

▪ Urrutxuko ur-depositoa handitzea erabaki zuen udalak. Edukiera hirukoiztu zen, Urkuluko ura herri osora iritsi ahal izateko.

Gaztetxe izandako eraikina bota zuten

▪ Agustinoetako ikasleen egoitza edota Gaztetxea izandako Aita Madina kaleko eraikina bota zuten. 1986tik itxita zegoen.

Turismo bulegoa tokiz aldatu zuten

▪ Turismo Bulegoa Gaztelekuaren albora lekualdatu zen, Udala zerbitzua eskaintzen hasi zela bost urte bete zirenean.

Antixenako jatetxea zabaldu zuten

▪ Oñatiko Ostalaritza Eskolako ikasleek sukaldaritza zein harrera praktikak egin ahal izateko zabaldu zuten Antixenako jatetxea.

Natur Eskolak eta Txiki Txokok ateak zabaldu zituzten

[26-31 ALEAK] Sei urtez itxita egon ondoren, 1995eko urtarrilean zabaldu zuten Olakuan dagoen Oñatiko Natur Eskola. Proiektua aurrera eramateko ardura lau lagunek izan zuten hasiera batean: Jon Betanzos, Amaia Agirre, Idoia Bollar eta Eli Arregik. Batez ere, ikastetxeei zuzendutako zegoen. Bertan, tailer praktikoak burutu, ogia egin edota papera birziklatzen ikasteko aukera eskaintzen zuten, ingurumen irteerez gain.

Txiki Txoko Haur Eskolak berriz, ekainean zabaldu zituen ateak, egokitze lanak amaitu ondoren. Hau ere Olakuan kokatua, 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzendutako gunea zen. Hasiera batean, lantegien ordutegi bera zuen eskolak, gurasoek lanean zeuden bitartean haurrak bertan utzi ahal izateko.

Joxe Mari Agirrebengoa hil zen

[34 ALEA] Urte askoan Oñatiko Kultur Teknikari izandako Joxe Mari Agirrebengoa hil zen ustekabean. Kolpe gogorra izan zen askorentzat, pertsona maitatua baitzen herrian. Euskararen, kulturaren, eta, batez ere, bertsogintzaren alde lan asko egin zuen Agirrebengoak, baita herriaren alde ere. KONTZEJUPETIK aldizkariaren sortzea ere, hein handi batean, bere lan eta ahaleginari esker izan zen. Zorretan jarraitzen dugu oraindik, Joxe Mari!

Angel Iturbe (EAJ) alkate, bigarrengoz

[31 ALEA] EAJ izan zen udal hauteskundeetan boto gehien jaso zituen alderdia (2.508 boto), eta ondorioz 9 zinegotzi eskuratu zituen. Herri Batasuna bigarren indarra izan zen (1.350 boto) 4 zinegotzirekin. Tartean zen Jesus Mari Goitia Manueltxo ere (preso zegoen). EAk 1.076 botorekin 3 zinegotzi lortu zituen, eta Sozialistek 353rekin eserleku bat. Abstentzioa %37koa izan zen. Gauzak horrela, Angel Iturbe izendatu zuten alkate bigarrenez, tentsio giroan burututako osoko bilkuran.

Urbiako fonda, bi urte itxita

[32 ALEA] Uztailaren 28an bi urte bete ziren Partzoneriakoen aginduei jarraituz, Ertzaintzak Urbiako fonda prezintatu zuenetik. Epaitegietan zen auzia, ordu hartan, jabetza eskubideak zirela eta. Gora-behera ugari izan zituen auziak hilabete luzeetan, eta, hasiera batean, Tolosako epaitegiaren sententziak Partzoneriari fonda erosteko eskubidea onartu bazioen ere, Alustizatarrek Etxezarretari erositako prezio berean egitea agintzen zion. Ados ez, eta Donostiara jo zuten.

47 hektarea erreta, sute baten ondorioz

[34 ALEA] Sute batek 47 hektarea erre zituen Arantzazun. SOS Deiak-ek arratsaldeko lauretan jasotako telefono dei batek eman zuen sutearen berri. Oñati eta Legazpiko erretenak bidali zituen Diputazioak, tartean Zubillagako suhiltzaileak eta helikoptero bat.

Zapatako depositu inguruan sortu zen sua, hiru tokitan, eta asko kosta zen itzaltzea, gunea malkartsua baitzen. Haize aldaketak lagundu zuen sua itzaltzen. Sutea nahita eragindakoa izan zela esan zen.

Guridi txapeldun auto-krosean

[34 ALEA] Iban Guridik irabazi zuen Mikel Deunaren VII. auto-krosa. Guztira 48 kotxe izan ziren parte hartzen, eta horietatik 15 herrikoak ziren. Sari guztiak ere etxekoen artean banatu zituzten. Irabazleaz gain, sailkapeneko hurrengo laurak ere oñatiarrak izan baitziren: Aitor Ramirez, Ismael Regueiro, Juan Zelaia eta Andoni Begiristain hurrenez hurren. Zaleek zirkuitu iraunkorra eskatu zioten udalari, urtean lasterketa gehiago egiteko.

'Ritxi' Athleticzaleen taldea aurkeztu zuten ofizialki

[31 ALEA] Bi urte lehenago eratu bazen ere, 1995eko maiatzaren 29an aurkeztu zuten ofizialki Oñatiko Athletic zaleak elkartzen zituen 'Ritxi' taldea. Ritxi Mendigurenez gain, Urrutia, Andrinua, Amorrortu, Iribar edota 'Txato' Nuñez ere izan ziren aurkezpen ekitaldian.

IBON ALBERDI

Urte berean Ibon Alberdi Gipuzkoako txapeldun izan zen bizkar eran. Guztira urrezko bi domina eta zilarrezko bat eskuratu zituen.

OÑATZ Dantza Taldearen 25. urteurrena ospatu zuten

[26 ALEA] Dantza taldearen 25. urteurrena ospatzeko ekintzaz beteriko urtea antolatu zuten, taldekide izandako guztiak elkartzeko asmoz. Maiatzeko Dantzari Eguna edota uztaileko Nazioarteko Dantza jaialdia izan ziren, esaterako, ekitaldi horien artean aipagarrienak. Garrantzitsuenetarikoa baina, azaroan egin zen jaialdi erraldoia izan zen. Inoiz taldeko kide izan ziren 300 bat lagunek dantzatu baitzuten elkarrekin. OÑATZen eta Euskal Dantzarien Federazioaren omenaldia jaso zuen Jesus Irizarrek jaialdian. 1968an eratu zen lehenengo dantza taldea herrian, Irizarren gidaritzapean, hain zuzen. Bi urte beranduago sortu zen, OÑATZ Dantza Taldea, izen bereko Kultur Elkartearen baitan.

Aloña Mendi palan lehiatzen hasi zen

[34 ALEA] Eskuz ez ezik, palan ere lehiatzen hasi zen Aloña Mendi. Tresna berria sartzearekin batera, Pilota Sailak herriko pilota eta pilotazaleen aukerak ugaltzearen aldeko apustua egin zuen, aspalditxoan baxu samar zebilen mundua indartu asmoz.

Lau jokalari zituen ordu hartan: Garikoitz Ibarzabal, Roberto Maiztegi, Patxi Izura eta Rafa Anduaga. Lehen partidak Euska Ligan jokatu zituzten, eta maila polita eman zuten. Familia handitzea zen sailaren nahia.

Egaña-Peña bikotea nagusi apustuan

[31 ALEA] Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak gailendu ziren azkenean Mikel Lizarralde eta Jabier Aldekoaren arteko bizikleta apustuan. Oñatiarrak ez ziren gai izan Udana mendatearen gainean 10 minutuko aldea ateratzeko. Lizarraldek eta Aldekoak, zailtasun gehigarri bat zuten gainera: eskurik gabe igo behar zuten mendatea.

Bi bertsolariak ere ongi entrenatuta joan ziren apustura, eta azkenerako tarteari eutsi zioten: 8 minutu eta 40 segundo atera baitzizkioten.

Txistulari aldizkaria, Oñatiri eskainia

[29 ALEA] Euskal Herriko Txistularien Elkarteak argitaratzen zuen TXISTULARI aldizkaria Oñatiri eskaini zioten, oso-osorik. Ale hura, gainera, Udaletxeko Batzar Areto Nagusian aurkeztu zen. Hainbat ale Turismo Bulegoan jarri zuten salgai.

Horrez gain, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak herrian bertan egin zuen urte hartako Batzar Nagusia. Unibertsitatean burutu zuen, eta sei txistulari omendu zituzten, tartean bi oñatiar: Agustin Zarketa eta Eugenio Kortabarria.

Oteizaren eskulturak unibertsitatean

[29 ALEA] Unibertsitateko klaustroan jarri zituzten Jorge Oteizaren 'Lurra eta Ilargia' eskulturak, berdegunearen ertz batean. Kare harri zuriz eginiko bi irudi irregularrez osatua, 2 metro eta erdiko altuera dute (Arantzazuko apostoluen tamaina bera). San Pedro eta San Frantzisko omen dira bi zutabeak; eta etengabe hedatzen eta aldatzen ari den unibertsoan, moralki eta politikoki bere bihotza kanpoan utzi beharrean aurkitzen den gizaki berriaren irudi ere bai.

1996

UDAL AURREKONTUA

1.495
milioi pezeta

MOTZEAN

Olarako zisne emea hil zuten kintoek

▪ Olarako zisne emea hil zuten urte hartako kintoek harrika eta makilkadak emanez. Errekara bota zuten ondoren zisnea hilda.

Galindo 'persona non grata' izendatua

▪ Oñatiko Udal Batzak onartu zuen Lasa eta Zabalaren auzia zela eta, EAJ, HB eta EAren aldeko botoekin. PSE-EE aurka azaldu zen.

Kanpandorreko erlojua, automatikoa

▪ Irrati bidez jasotzen du ordua kanpandorreko erlojuak, eta aldaketak ere automatikoki egiteko aukera eskaini zuen orduz geroztik.

Plazako ikurrina jarri zela, 100 urte

▪ Plazako ikurrina jarri zela 100 urte bete ziren. Urteurrena ospatzeko oroitarri bat jarri zuen Udalak haren azpian.

Eskola mapa jarri zen martxan: DBH ezarri zen aurrenekoz

[38 ALEA] 96/97 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jarri zen martxan Euskal Herriko ikastetxe guztietan. Gauzak horrela, Eskola Mapa diseinatu behar izan zuen Jaurlaritzak, eta eragin nabarmena izan zuen herriko ikastetxeetan. Hezkuntzari dagokionez, bi urtez luzatu zen derrigorrezko eskolatzea, 14 urte artekoa baitzen, eta 16ra igaro zen.

Aldaketarik nabarmenena baina herriko ikastetxeetan eman zen; askok bat egin baitzuten. Eskola Publikoari dagokionez, R.M. Zuazola eta Larraña institutuak bat egin zuten 2 eta 18 urte irakaskuntza eskaintzeko. Santa Eskolastika eta Milagrosak ere gauza bera egin zuten. Ikastolak ere hezkuntza ziklo osoa eskainiko zuen aurrerantzean.

Oñati eta Zacatecas anaitu ziren

[46 ALEA] Angel Iturbe alkateak Mexikora bidaiatu zuen anaitze akordioa sinatzeko. Akordioa, Zacatecas hiriaren sorreraren 450. urteurrenean izan zen, hiriaren sortzailetako bat Cristobal de Oñate izan baitzen.

Gauzak horrela, Guadalajara hirira bisitatu zuen Iturbek, eta Cristobal de Oñateren jatorria argitzen zuten dokumentu batzuk eraman zizkien alkateak bertako agintariei akats historikoa zuzentzeko, Gasteiztarra zelakoan baitzeuden.

Herriko dendarien elkartea eratu zen

[47 ALEA] Herriko dendariak bildu, eta saltoki txikien alde egingo zuen elkartea eratu zuten. Nahikoa izan ziren bilera pare bat horretarako. Eguberriak ate joka zirela eta, lanean hasi zen elkartea denborarik galdu gabe. Herritarren kontsumo ohiturak asko aldatu baitziren ordurako, eta horri buelta ematea erronka handia baitzuten aurretik.

TXANDA izena jarri zioten herrira zabaldutako lehiaketa bati esker. Logotipoaren lehiaketa, Iban Yanizek irabazi zuen.

Herriko saneamendu plana onartu zen

[46 ALEA] Herriko errekak garbitzeko, Olabarrietatik San Prudentzioraino hodi bat ezarri zuen udalak, etxeetako ur zikinak errekara bota beharrean, Osintsun eraikiko zen araztegira bideratzeko. Lanek 760 milioi pezetako aurrekontua zuten.

Irratiak 5 urte eta frekuentzia berria

[38 ALEA] Oñati Irratiaren uhinak aireratu zirela bost urte bete ziren. Emanaldiak hasi zituztenean baina, hutsune nabarmen batekin ekin zioten legeari zegokionez. Behin behinekoz, FM 102a bete zuen, Eusko Jaurlari-tzak udal irratiei zegokien araudia garatu zuen arte; baimenak lortzeko prozedurak zehaztu zituen.

Gauzak horrela, behin behineko emisio baimena behin betikoa izateko, frekuentzia legea egokitu behar izan zuen, FM 107,4ra aldatuta.

Aloña Mendiren 14. saila: Tenisa

[37 ALEA] Aloña Mendi Elkartearen familia handitu zen. Tenisa, 14. saila bilakatu baitzen elkartearen Batzar Orokorrak hala erabakita. Teniserako zaletasun handia izan da herrian urte askoan, eta erabaki hura positibotzat hartu zuten askok.

Horrez gain, urte hasieran bertan inauguratu zituzten bi tenis pista Zubikoa Kiroldegian, Foru Aldundiko, Udaleko eta Euskadiko Tenis Federazioko ordezkariak bertan zirela. Parrokoaren bedeinkapena jaso zuten.

Maria Azpitarte Espainiako txapeldun

[41 ALEA] Maria Azpitarte Espainiako Txapeldun bilakatu zen futbolean, Euskal selekzioarekin jokatutako 16 urtez azpiko txapelketa irabazi ondoren. Zaragozan jokatu zuen Aloña Mendiko jokalariak txapelketa hura. Andaluzia, Katalunia eta Valentziako selekzioen aurka jokatu behar izan zuen.

Ez zen izan, ordea, herriko ordezkari bakarra. Juan Ramon Barrena ere mediku lanetan izan baitzen. Hura ere, Euskal selekzioarekin.

'Kontzientzia ala infernua' diska argitaratu zuen Latzenek

[39 ALEA] 'Kontzientzia ala infernua' izenpean kaleratu zuen Latzen taldeak bere lehen diska. Oihuka disketxearen babespean egin zuten. Doinu gogor eta testu erasotzailez osatutako hamar abesti zituen diskoak. Urte hartako udan grabatu zuten Elkar etxearen estudioetan, Carlos Kreator, Jean Phocas eta Haritz Harreguyren gidaritzapean. Hilabete batzuk lehenago, EGIN Txotx lehiaketa ere irabazi zuen taldeak, Bilboko Etxebarria parkean 8000 ikus-entzuleren aurrean.

Lehen diska argitaratu baino urtebete lehenago 'Heriotzari deika' izeneko maketa argitaratu zuen taldeak. Lan hartako abesti bat bera ere ez zuten diskoan sartu. Euskadi Gaztearen maketa lehiaketako entzulego saria ere irabazi zuen Latzenek.

Peña Olakua aurkeztu zuten

[46 ALEA] Realzale ugari dituen herria izanik, ezin guztiak bilduko zituen talderik gabe geratu. Hori horrela, urriaren 14 aurkeztu zen ofizialki Oñatiko realzaleen Peña Olakua. Institutuko aretoan egin zen ekitaldian, Realeko ordezkari Lopez Ufarte, Aranzabal, Mutiu, Lopez Rekarte eta Jon Urzelai jokalariak izan ziren besteak beste.

Urzelaik berak Aloña Mendiren oroigarria jaso zuen, klubean emandako urteak eskertuz. Urte hartan Sansen debuta egin zuen.

Ibarrako aldagelak zabaldu ziren

[39 ALEA] Kostata eta eskari askoren ondoren zabaldu ziren Ibarrako aldagelak. Martxoan jarri ziren herritarren eskura, zehatz esateko: bi aldagela nagusi, dutxa eta guzti, epaileentzako gela txiki bat, komunak, eta berogailuen gela bat ere egokitu zuen udalak bertan.

EMAKUMEAK TXIRRINDULARITZAN

Gurutze Altunak Gipuzkoako txirrindulari txapelketa irabazi zuen junior mailan, eta **Leire Altube** bigarren sailkatu zen afizionatu mailan

Korpusetako dantzariak liburuan

[42 ALEA] XX. mendean, eta ordura arte inoiz Korpus jaien prozesioan parte hartu zuten dantzari guztien izenak bildu eta zerrendatu zituen Imanol Arkauzek. Lan horretan ari zela hainbat material jasotzeko aukera ere izan zuen, eta guzti horrekin liburu bat argitaratu zuen. Xabier Bikuña eta Andoni Camposen laguntza izan zuen horretarako.

Lortutako materialari esker, 1870. urtera arte ere iristea lortu zuten. Oñatzen sorrera ere jaso zuen liburuak.

Burdinkako fanzinea kaleratu zuten

[38 ALEA] Urte berriarekin batera argitaratu zuten BurdinKAKO fanzinearen lehen alea. Komikiak ziren nagusi bertan, baina iritzi artikulu eta elkarrizketak ere bazituen. Euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzen ziren artikuluak tarteka. Urtean lau zenbaki kaleratzea zen fanzinea martxan jarri zuen zortzikotearen asmoa. Aldizkaria irekia zen eta edonork kolaboratu zezakeen bertan. Lehen alea 200 pezetatan saldu zen, eta atera orduko agortu ziren kaleratutako ale guztiak.

1997

UDAL AURREKONTUA

1.775
milioi pezeta

MOTZEAN

Parrokiako organoak 100 urte bete zituen

▪ Zaharragoa bazen ere, 1897an eskatu zioten Ladislao Sagastizabali berritu eta handitzeko lanak. 1957an lekuz aldatu zuten.

Kalezaharra elkarteak, 25 urte

▪ Abenduaren 14an ospatu zuen elkarteak 25.urteurrena. Hildakoen aldeko meza batekin eta luntx eder batekin ospatu zuten.

Arregiko landa turismoa ireki zuten

▪ Hondatuta zegoen baserria eraberritu, eta turismoari ateak zabaldu zizkioten Garagaltza auzoan landa turismo etxea jarrita.

Urbiako fonda zabalik, berriz ere

▪ San Inazio egunez ireki zuten berriz ere fonda, lau urte itxita eman ondoren. Alustizatarrek zabaldu zuten Urbiako fonda.

Kale Barriako urbanizazio lanak hasi zituzten

[54-55 ALEAK] Herrigune historikoko kaleetako urbanizazioa berritzeko lanak hasi zituzten. Kale Barria obretan murgilduta zegoen, argazkian ikusten den moduan. Harbide berria jarri zuten herrigune guztian zehar. Horrek, jakina, eragozpen ugari eragin zituen bizilagunen eta merkatarien artean, batez ere. Kale guztia zulatuta egon baitzen hainbat hilabetez, ura, argindarra, telefonoa, saneamendua eta bestelako azpiegiturak berritu ahal izateko.

Oinezkoek lehentasuna izango zuten kale barria guztian egokitze lanen ondoren. Harbide berriaz gain, espaloia eta galtzada maila berean jarri baitzuten. Aldaketa nabarmena eragin zuen herrigune historikoari dagokionez.

Auzabarrikua etxea eraisteko lanak hasi zituzten

[51 ALEA] Lezesarri auzoko Auzabarrikua etxea behera botatzeko lanak hasi zituzten urte hartan. Herriko saihesbideari irteera berria eman nahi izan zitzaion gune hartatik. Saihesbideko lanak beranduago hasi zituzten, baina une hartan Bidebarrietan etxe berriak eraikitzen hastekoak zirenez, joan-etorriak egingo zituzten kamioiei irteera bat emateko behin-behineko bidea egokitu zen Auzabarrikua etxeraino.

Anbulatorio zaharra eguneko zentro bilakatu zen

[51 ALEA] San Martin egoitzan zegoen Osasun Zentroa Agustinoetara lekualdatu ondoren, bertara ez itzultzea erabaki zuen Udalak. Toki hartan Eguneko Zentroa egitea erabaki zuen, hau da, beraien etxeetan bizi diren, baina erabat autonomoak ez diren adineko pertsonendako laguntza gune bat.

Ordainetan, San Juan Kalen anbulatorio berria eraikitzea hitzartu zuten Jaurlaritzak eta Udalak. Lanak urte amaieran hasiko ziren.

Zumeltzegi dorrearen alboko etxea eraistea agindu zuten

[54 ALEA] Osoko Bilkuran hala erabakita, eta Lege Zerbitzuek egindako txostena aztertu ondoren, Larraña 35 zenbakia zuen Zumeltzegi Dorrearen hegoaldeko hormara itsatsita zegoen etxe zatia hondamendi egoeran izendatu zuen Udalak, eta jabeei hilabeteko epea eman zieten zati hura botatzeko.

Aurrez, ordea, dorrearen aldamenean beste etxebizitza bat eraikitzeko baimena hitzartu zuten etxearen jabeek, Oñatiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gomiztegiko artzain eskola zabaldu zen

[58 ALEA] Arantzazun eratu zen Euskal Herriko lehenengo artzain eskola. Bi urteko negoziazioen ondoren, ardi eta artzantzaren mundua gustuko zutenek, ofizioa ikasteko aukera dute orduz geroztik bertan. Garai hartan, erreferentzia puntu zen Arantzazu artzaintzari dagokionez, eta Oñati Gipuzkoako bigarren herria ardi kopuruari erreparatuz gero. Nikolas Segurola Arantzazuko frantziskotarra izan zen artzain eskolako lehen koordinatzailea. Urte hartako azaroan ireki zuten.

Eskubaloiko talde nagusia 2. maila nazionalera igo zen

[53 ALEA] Sekulako denboraldia egin ondoren, urtea borobildu zuen Juan Jose Arrizabalaga eta Alberto Ibabek zuzentzen zuen eskubaloiko talde nagusiak, Gipuzkoako Liga txapelketa irabazi eta Nazional Mailarako lortutako igoerarekin. Aurreko urtean egindako lanari jarraipena eman zion taldeak eta merezitako lorpenak izan zituzten.

Ligan erabateko nagusitasuna erakutsi zuen Arrizabalaga eta Ibaberen taldeak, eta ia txapelketa guztian sailkapeneko buruan egon ondoren, historiako lehenengo txapelketa irabazi zuen taldeak Gipuzkoako Probintzial mailan. Bizkaitar eta Arabarrekin jokatu beharreko igoera fasean, bi partida galdu arren, zortea lagun izan zuten eta igoera erdietsi zuten.

10. Korrika Arantzazun hasi eta Bilbon amaitu zen

[51 ALEA] Euskararen aldeko 10. Korrika Arantzazun hasi zen. Eguraldi grisa eta hotza izan bazen ere, harrera beroa eman zieten herritarrek lekuko preziatuari. Martxoaren 14an abiatu zen Korrika Arantzazutik Bilbora bidean 'Euskal Herria Korrika' lelopean, guztira 2150 kilometro egiteko.

Aita Villasante frantziskotarra izan zen lekukoa eramaten lehena, 0. kilometroan. Lehen kilometroan berriz, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako ordezkari banak hartu zuen erreleboa. Arantzazu jaitsi eta herritik igaro ondoren, Udanarako bidea hartu zuen Korrikak giro ezin hobean. Herriko hainbat elkartek eraman zuten lekukoa tarte horretan. Urte hartako kanta Gozategi taldeak egin zuen.

Pelotalekua berdez margotu zuten

[57 ALEA] Euskal Pilota Federazioaren, eta, batez ere, Euskal Telebistaren emankizunen arduradunen aholkuei jarraituz, Oñatiko Udaleko Kirol batzordeak Zubikoako pilotalekua berdez margotzea erabaki zuen. Zuriz margotua zegoen ordura arte, eta baziren sei bat urte pilotalekua azkenekoz margotu zutenetik. Hormek margotzeko premia zutela eta, azkenerako zuri izan beharrean berdea izatera igaro zen pilotalekua. Azaroan hasi zituzten lanak, eta hamar egunez egon zen itxita.

Martiñolaren lehen maketa kaleratu zen

[56 ALEA] Martiñola taldeak bere lehen diskoa argitaratu zuen "Eta ni berriz, goseak" izenpean. Taldeak berak sortu eta konposatutako zazpi abesti biltzen zituen, guztiak ere folk estiloan eginak. Taldea eratu eta ia lau urtera argitaratu zuen lehen lana. 500 kopia jarri zituzten salgai.Hilabete batzuk lehenago, ordea, Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaiaren kanta egin zuen talde oñatiarrak.

LAGASH taldeak 'A pesar del tiempo' maketa grabatu zuen urte berean.

Aita Madina hil zela 25 urte bete ziren

[53 ALEA] Aita Francisco Madina (1907-1972) Zubillagako musikagile handiaren heriotzaren 25. Urteurrena gogoratzeko, 'Lauda Sion' izeneko diskoa grabatu zuten Oñati eta Burlatako abesbatzek, Jose Manuel Azkue organujolearekin batera. Madinaren 19 obra ezagun grabatu zituzten, Imanol Muruaren zuzendaritzapean. Loli Ordoki sopranoak egin zituen bakarlari lanak. Ekainaren 29an aurkeztu zuten lana parrokian, kontzertua emateareekin batera.

Markuletaren itzulpen bat IBBYren zerrendan

[54 ALEA] Mehdi Charef idazle aljeriarraren *Arkimederen hareneko te hura* liburuaren itzulpena egin zuen Gerardo Markuletak, eta IBBY Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Erakundeak bere ohorezko zerrendan sartu zuen lana.

Bi urtetik behin egin ohi du erakundeak aukeraketa, eta Markuletaren lanarekin batera, beste bi itzulpen ere aukeratu zituen IBBYren Espainiako ordezkaritzak. Bata galegozko itzulpena, eta bestea katalanezkoa.

1998

UDAL AURREKONTUA

1.918

milioi pezeta

MOTZEAN

Etxagok Ama Begira gehigarria, kalean

▪ Etxagok Ama Begira gazteei zuzendutak gehigarriaren 0 alea kaleratu zuen Kontzejupetikek. Lau orrialdek osatzen zuten.

Iturritxo eta Zelai-Zabal, ospakizunetan

▪ Alberto Elorzak 'Urrezko sukaldari' saria jaso zuen, eta Iturritxo estatuko 100 jatetxe onenen artean ezarri zuen Category aldizkariak.

BETIK enpresan sutea izan zen

▪ Kalte larriak eta galera handiak utzi zituen sute batek BETIK enpresan. Produkzio linea erabat hondatu zuen suteak.

Txepetxa aisialdi taldeak, 10 urte

▪ Tomas Madinabeitia parrokoari esker sortutako Txepetxa aisialdi taldeak 10 urte bete zituen. Bizi-bizirik zegoen orduan oraindik ere.

Txernobilgo 12 haur lehen aldiz etorri ziren udan herrira

[65 ALEA] Txernobilgo (Ukraina) 12 gaztetxo etorri ziren aurreneko aldiz Oñatira udako oporrak igarotzera. Ekainaren 30ean iritsi ziren, eta abuztuaren 30era arte izan ziren herrian. Txernobilgo Lagunak elkartea arduratu zen gestio lan haietaz.

1986ko apirilaren 26an Txernobilgo zentral nuklearrean izandako leherketaren ondorioz, ihes erradioaktibo kutsakorra izan zen. Bertako ur eta lurrak kutsatu ziren, eta ondorioz, bertako bizilagunek osasun arazoak dituzte. Haurrak, batez ere, oso defentsa baxuak izaten dituzte, eta hilabete batzuk bertatik kanpo ematea onuragarria da haurren osasunerako zein bizi kalitaterako. Haurrak hartu zituzten familiak oso positibotzat jo zuten esperientzia hura.

Ostalaritza eskola, ikaslerik gabe

[66 ALEA] 98/99 ikasturtean ez zuen ikasle berririk hartu, eta beraz, 2. mailako ikasleekin bakarrik hasi zuen urtea Oñatiko Ostalaritza Eskolak. Urte hasieran 46 aurre matrikula zituen eskolak, bada Arrasateko Eskola Politeknikoak babesa emateari utzi zion. Ostalaritza eskolako jatetxeak ere zerbitzua emateari utzi zion horrenbestez, eta bertako ikasleekin praktikak egiteko bakarrik erabili zuten. Hura izan zen Ostalaritza Eskolaren azken ikasturtea.

32 urteko zigorra Xabier Ugarteri

[65 ALEA] Jose Antonio Ortega Lara kartzela funtzionarioaren bahiketan parte hartu izangatik epaitu zuten Xabier Ugarte Auzitegi Nazionalean, ekainean, Arrasateko, Antzuolako eta Bergarako beste hiru kiderekin batera. Auziperatu bakoitzari 32 urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

Ildo horretan, dispertsioa eta kartzela politikaren amaiera eskatu zuen Udalak hilabete batzuk beranduago, SENIDEAK elkarteak aurkeztutako mozioa aho batez onartuta.

Pietatearen kaperako erretaula, eraberritua

[69 ALEA] Urteen poderioz, hezetasunak eta xilofagoek hondatutako erretaula eraberritu zuen ARTELAN enpresak. 400 urte baino gehiagoko erretaularen pieza guztiak banan-banan desmuntatu eta klaustroan jarri zituzten desinfektatze lanak egiteko. Egurrezko egiturak gogortu, kolore edo polikromiak sendotu eta irudiak garbitu zituzten ondoren.

Lanen aurrekontua 20 milioi pezetakoa izan zen. Erdibana ordaindu zuten Udalak eta Foru Aldundiak.

Zubiaren argazkiak, udalaren esku

[61 ALEA] Atzeko kaleko jaien eragile nagusienetarikoa, Txantxiku Txoko elkartearen sorreraren bultzatzailea, tren eta zezen zalea, baina batez ere, argazkilari amorratua zen Juan Zubia. Oñati eta oñatiarrei buruzko argazki bilduma ikusgarria eta aberatsa sortu zuen Zubiak urteetan, eta haren familiak Udalaren esku utzi zuen 2000 argazki baino gehiagok osatzen zuten bilduma hura. Udalak Juan Zubia izeneko funts berezi bat sortu zuen argazki haiekin Udal Artxiboan.

AMET-eko kideak, Gipuzkoako leizerik sakonenean

[68 ALEA] Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kideak Gipuzkoako punturik sakonenera iritsi ziren, Lizurritzeta leizean barrena (Aralar). Hamabost laguneko talde batek (tartean oñatiarrak) 6 egunez aztertu zuten koba, eta azken egunean iritsi ziren 530 metroko sakonerara.

Bestalde, Espeleologiako Argazkien Nazioarteko Biltzarrean lehen saria eskuratu zuen AMETek, 'Zakarrak jasotzen' argazkiarekin.

Zumalde, Espainiako txapelketan

[66 ALEA] Aloña Mendiko tenis jokalaria zen Ainhoa Zumalde oñatiarrak Espainiako Txapelketan parte hartu zuen, Euskadikoan lortutako hirugarren postuari esker. Tarragonan izan zen horrenbestez lehiatzen tenislaria, banaka eta binaka. **IGERIKETA**. Ibon Alberdik urrezko 3 domina irabazi zituen E.H.-ko txapelketan, maila absolutoan.

ESKUBALOIA. Iñaki Cateroren kadete mailako taldea 3. sailkatu zen Espainiako txapelketan

Urrintxoko Euskal Artzainaren monumentua jarri zen

[67 ALEA] Irailaren 20an, XXXIX. Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketaren amaierarekin bat eginez inauguratu zen Nestor Basterretxearen Euskal Artzainaren Monumentua, Urrintxon. Hamar metroko burdin eta hormigoizko zuhaitza da; enborra, Euskal Herritik kanpora abiatutako artzainen adierazle delarik. Oñatiko monumentuak 1989an Renon (AEB) euskal artzainaren omenez jasotakoa osatu zuen. AEBetakoan bakardadean bizi eta lan egiteko artzainek duten ahalmena goraipatu nahi izan zuen Basterretxeak; Oñatikoan, aldiz, artzainaren familia adierazi nahi izan zuen. Finantzaketak zenbait buruko min eragin zuen baina, eta ordu artan, 8 bat miloi falta ziren monumentuaren gastu guztiak estali ahal izateko.

ULMA-CEGASA eta Irizar, protagonista

[65-66 ALEAK] ULMA-CEGASA afizionatu mailako txirrindulari taldea eratu zuten bi urterako akordioa lortuta, eta Jose Luis Fernandez eta Jon Urtaza bultzatzaile nagusi zirelarik. Fernandez bera izan zen taldeko kirol zuzendaria. Taldean bi oñatiar izan ziren: Jon Altube eta Markel Irizar.

Hilabete batzuk lehenago, Gipuzkoako Itzulia irabazi zuen Irizarrek jubenila zela. Urrian berriz, Munduko txapelketarako aurre-hautaketan sartu zuen Espainiako selekzioko hautatzaileak.

Torreauzoko 1. Herri Krosa antolatu zen

[64 ALEA] Aloña Mendi kirol elkarteak 1. Torreauzoko Herri Krosa antolatu zuen ekainaren 28rako. Torreauzoko San Pedro jaien barruan ospatu zen lehenengo edizio hura. Bi taldetan banatu zen lasterketa. Alde batetik, gaztetxoak (alebin, infantil eta kadete mailakoak) hartu zuten parte, 2000 metroko luzera zuen lasterketan. Beste aldetik, jubenil eta seniorrak, Olateraino joan eta itzuliko 7600 metroko lasterketan. Xabier Iturraldek irabazi zuen 23:54ko denbora eginda.

Joana Madinabeitiak lehen saria eskuratu zuen Bilbon

[64 ALEA] Joana Madinabeitia diseinatzaileak lehen saria eskuratu zuen Bilboko erakustazokako moda txapelketan. Guztira 79 diseinatzailek parte hartu zuten, eta horietatik 18 haurren modara bideratuak. Diseinatzaile oñatiarrak berak haurren-tzako lau diseinu aurkeztu zituen desfilean, eta lehen saria irabazteaz gain, 50.000 pezetako diru saria eta Milanen diseinatzaile baten ondoan hiru hilabetez lan egiteko beka bat ere jaso zuen.

Saiz nagusitu zen Donostiako V. Piano lehiaketan

[62 ALEA] Arantzazu Saiz 22 urteko oñatiarrak Donostia Hiria Nazioarteko V. Piano Lehiaketako lehenengo saria irabazi zuen bi pianotarako modalitatean, Miren Gorrotxategi elgoibartarrarekin batera. Lau hilabete baino ez zuen bikoteak lehiaketa prestatu ahal izateko.

Saizek Oñatiko Musika Eskolan egin zituen 7. mailara arteko Piano ikasketak. Donostiako kontserbatorioan Goi Mailako Piano ikasketak ere egin zituen.

1999

UDAL AURREKONTUA

1.910

milioi pezeta

MOTZEAN

Argi berdea Elgeako parke eolikoari

▪ Hirigintza eta ingurugiro legediak exijitzen zituen tramite guztiak beteta, argi berdea eman zion Udalak Elgeako parke eolikoari.

Udalak OÑARGI eratu zuen

▪ Argindar merkatuaren liberalizazioaren ondorioz, Udalak Oñargi S.L enpresa eratu zuen, banatzaile gisa jardun ahal izateko.

Bengoa, Biain eta Maiztegi, aske

▪ Felix Bengoa, Iñaki Biain eta Gorka Maiztegi aske geratu ziren. Bengoak 19 urte egin zituen espetxean; Maiztegik ia bost urte.

Zumeltzegi dorrea, euskal kultur ondare

▪ Gebaratarren Zumeltzegi dorrea euskal kultur ondare izendatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak azaroaren 24an.

Kamioi batek Bidebarrietako etxebizitza baten aurka jo zuen

[79 ALEA] Ezusteko beldurgarria eman zien Bidebarrietako bizilagunei, urriaren 4ko goizaldean, goiko saihesbidetik behera erori eta etxebizitza baten aurka jo zuen kamioi batek. Zahor lantegira zihoan kamioiaren gidariak lo hartu zuen, eta saihesbidetik amildu zen kamioia Bidebarrietako 12 zenbakidun etxea jo arte. Gertakari ikusgarria izan zen, eta zorionez ez zen ezer larririk gertatu.

Harrez gero, ordea, Bidebarrietako bizilagunek, kezkatuta, neurriak hartzeko eskatu zieten Udalari eta Foru Aldundiari. Proposamen zehatza egin zieten erakundeei: bazterbidean hormigoizko hesi sendo bat ezartzea, eta burdinazko hesiari oinarri sendoago bat ezartzea.

Kale zaharreko lanak amaitu eta plazakoei ekin zieten

[73 ALEA] Kale Barrian egin moduan, kale zaharrean ere urbanizazio lanak egin zituen Moyua enpresak. Harbide berria jarri zen lurrean, kalea oinezkoentzako egokituz. Lanak baina hiru hilabeteko atzerapenarekin amaitu zituzten. Lan haiek bukatuta, plazako obrekin hasi ziren ondoren. Apirilean hasi eta irailen amaitu zituzten. Ekainean, Korpus egunean, ez zen aparteko arazorik izan, porlana botata baitzegoen ordurako.

Olakuako dorrea udal hedabideentzako egokitu zen

[80 ALEA] Hainbat urtez utzita zegoen Olakuako Bidaurreta dorretxea eraberritu zuen Udalak. Urriaren 9an inauguratu zen eraikin berritua. Lantegi Eskolaren IV. programaren barruan egin ziren lanak: hormak sendotu eta teilatu jarri zitzaion egiturari.

Eraikin eraberritua udal komunikabideentzako bideratu zuen udalak. Hala, KONTZEJUPETIK eta Oñati Irratiaren egoitza da Bidaurretako dorretxearen goiko solairua orduz geroztik.

Chateaubernard eta Oñati anaitu ziren

[76 ALEA] Frantziako Chateaubernard herriarekin anaitu zen Oñati. Urte batzuk harremanak sendotzen igaro ondoren, 1999ko uztailean sinatu zuten anaitze akordioa bi herrietako ordezkariek.

Chateaubernardeko ordezkaritza bat herrira etorri zen Truflandier alkatea buru zela, eta hiru eguneko egitarau oparoa antolatu zen anaitzea ospatzeko. Horien artean, Santa Ana antzokiaren alboan jarri zuten anaitze monumentuaren inaugurazioa izan zen.

Bake epaitegiaren eta musika bandaren lokal berriak

[73 ALEA] Ertzaintzaren polizia-etxea kokatzen zen Bidebarrietako 1 zenbakidun eraikineko goiko solairua 10 urtetarako utzi zion Eusko Jaurlaritzak Udalari, bi erakundeen artean lortutako akordioari esker. Udalak eraberritu eta Bake Epaitegiaren zein Oñatiko Udal Musika Bandaren egoitzak bilakatu zituen.

Lokalak doan utzi bazizkioten ere, egokitze lanak bere gain hartu zituen Udalak, eta 18.389.000 pezetako aurrekontua izan zuten.

ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEAK 50 URTE

[73 ALEA] Aloña Mendi kirol elkarteak 50 urte bete zituen 98/99 denboraldian. 1949an sortu zen futbol taldearekin batera, Azkoagaineko lanak amaitu ondoren. Beraz, klubak ez ezik, futbol sailak ere 50 urte bete zituen. Izan ere, gainerako kirol asko eta asko, Txantxiku Txoko elkartearen baitakoak izaten ziren ordura arte: txirrindularitza edota pilota, esaterako.

Urteurren bereziaren barruan, aipagarriena elkartearen egoitza berriaren inaugurazioa izan zen. Atzeko kaleko eraikinean sail ezberdinen bulegoak jarri ziren bertan. Azkoagainen, Realaren aurka jokatu zuen Aloñak lagunarteko partida, Reyes Urtaza klubeko lehenengo presidentearen ohorezko sakearekin. Herri bazkari bat ere egin zen urteurrena ospatzeko.

Ainhoa Lazkano eta Mikel Elorza omendu zituzten

[79 ALEA] Ainhoa Lazkano eta Mikel Elorza herrikide eta Oñatz Dantza Taldeko kideen omenezko dantza ekitaldia egin zen Zubikoa Kiroldegian azaroaren 6an. Herri guztiak egin zuen bat zendu berriak ziren Lazkano eta Elorzaren omenezko ekitaldi hartan.

Oñatz Dantza taldeko kideez gain, Oñatiko Ganbara Abesbatzak ere parte hartu zuen ekitaldian. Nagusien eta haurren dantzak, kantak, inauterietako pertsonaiak... denetarik izan zen Zubikoako oholtza gainean. Ekitaldi hunkigarria izan zen, festa giroa baina, inoiz ez zuten alboratu. Izan ere, hala nahi zuten izatea dantza taldeko kideek. "Horrelakoak ziren bai Ainhoa eta baita Mikel ere; neska-mutil alaiak".

Zabaleta azkarrena 1. Udanako igoeran

[76 ALEA] Aitor Zabaletak irabazi zuen Udanako 1.Igoera. Erakustaldi bikaina eman zuen pilotu bergararrak, eta bertan bildutako 2500 zaletuek eskertu zuten bai egindakoa. Bi minutu eta 19 segundo besterik ez zuen behar izan Zabaletak ibilbideak zituen 4,6 kilometroak egiteko. Aitor Ramirez oñatiarra seigarren postuan sailkatu zen (2:43).

Albistea baina bigarren txanda hasi aurretik izandako istripuak eman zuen. Errepidetik irten eta 9 zale kolpatu baitzuen 0 kotxeak.

Delgado Espainiako arrantza txapeletan

[77 ALEA] Rufino Delgado, Pago Uso elkarteko ordezkaria, 2. sailkatu zen Esca ibaian (Nafarroa) jokatutako Espainiako txapelketan, 'Lance ligero' modalitatean.

JON ODRIOZOLA Pariseko Podiumera igo zen Jon Odriozola txirrindularia urte hartako Frantziako Tourrean. Taldekako sailkapena BANESTO taldearekin irabazita burutu zuen oñatiarrak bizitzan gutxik egin dezaketen balentria hura. Gero, Italiako munduko txapelketan parte hartu zuen.

Estalkia jarri zioten frontoiari, Zubillagan

[74 ALEA] Zubillagako pilotalekuari estalkia jartzea erabaki zuen Udalak. Lan horiek hasi aurretik baina, ezkerreko horma sendotzeko lanak egin zituzten. Teknikoen arabera, hormek ez baitzuten eutsiko estalkiaren pisua eta erortzeko arriskua zegoen. Izan ere, hormigoizkoak zirela uste bazen ere, harri eta hormigoiaz egindakoak dira. Lanek 28 milioiko aurrekontua izan zuten. Urte amaieran inauguratu zuten Zubillagako Arriaran II pilotaleku eraberritua.

'Nongo Nor' poesia liburua argitaratu zuen jon Aiastuik

[76 ALEA] BurdinKAKO kolektiboaren POTXO argitalzuloaren eskutik plazaratu zuen Jon Aiastuik bere estreinako poesia liburua. Zortzi urtetan idatzitakotik aukeraketa egin eta hamasei poesia bildu zituen idazleak NONGO NOR liburuan. Gerardo Markuletak idatzi zuen liburuaren sarrera.

Urte berean hirugarren poema liburua argitaratu zuen Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak. *Hautalanerako poemategia* izena zuen liburuak.

2000

UDAL AURREKONTUA

1.844

milioi pezeta

MOTZEAN

Reyes Korkostegi alkate ohia hil zen

Urteberri egunez zendu zen, 82 urte zituela, hogeita bi urtez (1954-1976) herriko alkate izandako Reyes Korkostegi.

Izaskun Moyua, Emakundeko idazkari

Izaskun Moyua Pinillos psikologo eta kazetari oñatiarra izendatu zuten EMAKUNDEko Idazkari Nagusi gisa.

Jose C. Paz-ekin anaitu zen Oñati

Uztailaren 15ean sinatu zen Argentinako Jose C. Paz eta Oñatiren arteko anaitze akordioa, bi udaletako ordezkariak herrian zirela.

Plastikoaren edukiontziak, kalean

Zaborra biltzeko hirugarren edukiontziak jarri zituen mankomunitateak kalean: horiak; tetabrik, latak eta plastikoa biltzeko.

Musika eskolak Gorritxitxiko eraikina estreinatu zuen

[83 ALEA] Errekalde Herri Eskolako gelak utzi eta egoitza propioa estreinatu zuen Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolak. Gorritxitxiko eraikin eraberritua hartu zuten orduko musika eskolako ikasleek. Eskola zaharraren eraikinaz gain, beste hiru eraikin txiki ere egin ziren kanpoan, ikasgela gehiago lortzeko helburuarekin.

Ordu hartan 350 ikasle inguru zituen Musika Eskolak. Oinarrizko tailerretatik hasi eta instrumentu bat ikasteraino bidea egin asmo zutenak. Hainbat talde ere bazituen: haize eta perkusio taldea, KARANBA txaranga, gitarra eta akordeoi taldeak, trikitilari eta panderojoleak, esate baterako. Uda Musika Bandaren eta Txistulari taldearen harrobia ere bada.

Bidebarrietan izan zen liburutegia, behin behinekoz

[90 ALEA] Santa Marinako Kultur Etxe berriaren lanak amaitu arte, Bidebarrieta 18ko beheko lokalean kokatu zen behin behineko kultur etxea, bi urtez. Helduen eta haurren liburutegiez gain, hitzaldiak edota bilerak egiteko beste bi gela ere egokitu ziren bertan.

Materialaren lekualdaketa egiteko, ikastetxeetako haurrek giza kate bat egin zuten, eta liburuak bananbanan eta eskuz esku iritsi ziren toki berrira.

Lehen haize-errotak jarri zituzten Elgean

[84 ALEA] Hiru urte luzeren ondoren, eta tramite guztiak igarota, Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo parke eolikoa izango zena eraikitzen hasi zen Eolicas de Euskadi enpresa. Hala, lehen haize errotak jarri zituzten Elgeako mendizerran. 40 ziren jartzekoak. Proiektuak 4000 milioiko inbertsioa aurreikusten zuen.

Proiektuaren lehen ideiak azaleratu eta martxan jarri artean era guztietako iritziak izan ziren. Liskar eta haserrek ez ziren amaitu baina lanak bukatu artean.

Ugarte eta Plazaola Madrildik Galiziara urrundu zituzten

[91 ALEA] ETAren su etenaren garaian ez zen hobekuntzarik izan kartzela politikan, baina su-etena apurtu zenean asko gogortu zen egoera. Gogortze horren ondorioak jasan behar izan zituzten bi preso oñatiarrek. Xabier Ugarte Madrildik Pontevedrako A Lama kartzelara urrundu zuten. Alberto Plazaola 'Aitto' berriz, A Coruñako Teixero kartzelara urrundu zuten. Joseba Arregi berriz, Espainiara estraditatu zuten, Frantzian 10 urte preso eman ostean.

ETEOko lehenengo lizentziatuak

[85 ALEA] 2000. urteko apirilaren 15a egun berezia izan zen ETEO fakultatearentzat, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza lizentziatura bertan burutu ahal izan zuten lehenengo ikasle promoziokoen diploma emate ekitaldia ospatu baitzen. Guztira 77 ikasle lizentziatu ziren urte hartan.

Egun hura beste aurrerapauso bat izan zen ETEOrentzat 40 urteko ibilbidean. Lanbide Heziketaren zentro izatetik, MU-ren Enpresa Zientzien fakultatea izatera igaro baita.

40. EH-ko itzulia Oñatin hasi zen

[85 ALEA] Oñatin hasi zen 40. Euskal Herriko Itzulia, 2000ko apirilaren 3an. Lehen etapa herrian hasi eta amaitu zen, Udana eta Deskargako gainetik lau aldiz igaro behar izan zuten txirrindulariek. Massimo Codol Lanpre taldeko txirrindularia izan zen helmugan azkarrena, eta berak jantzi zuen liderraren lehen maillot zuria.

MARKEL IRIZAR.
Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi eta OLARRA taldearekin sinatu zuen.

Rokodromo berria ezarri zuten kiroldegian

[89 ALEA] Aloña Mendiko Mendi sailak Zubikoa Kiroldegiko rokodromoa eraberritu zuen udalak emandako diru laguntza bati esker. Ehun presa edo helduleku berri, igo-bide gehiago, eta rapelak egiteko aukera gehiago eskaintzen zuen rokodromo berriak. Horrez gain, lehendik zeuden elementu guztiak (ainguralekuak, rapelak...) sendotu ziren. Carlos Vieira arduratu zen rokodromoaren eraberritze lan guztiak egiteaz.

Goiena

GOIENA proiektua eratuta, GOITB eta Goienkaria martxan

[85 ALEA] 2000ko martxoaren 30ean, Otaola Jauregian egindako sinadura ekitaldian eratu zen GOIENA komunikazio zerbitzuak kooperatiba. Debagoienako euskara elkarteek bere ordezkariak aurkeztu zituzten, eta bertan egitasmoa martxan jartzeko beharrezkoak ziren betebeharrak (estatutuak eta diru ekarpenak onartuz) finkatu ziren.

Hilabete batzuk beranduago, komunikazio proiektua martxan jarri eta GoiTB Goiena Telebista eratu zen (2003an iritsi zen oñatiarren etxeetara). Urte amaieran berriz, eskualde osoko astekaria sortu zuten: GOIENKARIA. Egunkari itxurako 24 orriko astekaria izan zen lehen alea, bailarako albiste, erreportaje, iritzi edota elkarrizketak biltzen zituena.

Saskibaloi saila, berrikuntzekin

[89 ALEA] Saskibaloi sailak berrikuntzaz beteriko denboraldia izan zuen. Aurreneko aldiz Senior mailako emakumezkoen taldea osatu zuen. Luis Carlos de Miguel eta Gorka Garciak zuzendu zuten talde hura.

Gizonezkoei dagokionez, talde nagusiak kategoria estreinatu zuen. Lehenengo aldiz maila autonomikoan jokatu baitzuen, Bergarak utzitako lekua beteta. Berrikuntzekin jarraituta, 24 segundoko baloi-jabetza neurtzeko erlojuak erabili ziren Zubikoan.

Iban Altube hirugarren, Hiru Handiak lasterketan

[87 ALEA] Iban Altube hirugarren postuan sailkatu zen Hiru Handiak mendi martxan, bere aurreneko parte hartzean. Zalduondo eta Otxandio arteko 92 kilometroak 16 ordu eta 23 minututan burutu zituen oñatiarrak. Handik astebetera Val D'Araneko X-Treme mendi maratoia osatu zuen.

ITXASO EGAÑA.
Euskal Herriko eskubaloi talderik indartsuena den Bera Bera taldeak fitxatu zuen oñatiarra.

Aitor Mantxolaren 'Hilarri' film laburra estreinatu zen

[87 ALEA] Aitor Mantxolak ekoiztu eta Manu Gomez arrasatearrak zuzendutako 'Hilarri' film laburra KALEAN kultur programaren barruan estreinatu zen herrian, plazako pilotalekuan. Apotzagako hilerrian eta Zañartu auzoko Zelakua baserrian grabatu ziren, besteak beste, filmeko zenbait irudi.

Hilabete batzuk beranduago, Euskal Zinemaren Sari nagusia jaso zuen filmak Bilboko ZINEBI jaialdian, epaimahaiak aho batez hala erabaki ondoren.

Errekaldeko musika lokalak egokitu ziren

[88 ALEA] Herriko rock taldeentzako zazpi lokal egokitu zituen Udalak Errekalde Herri Eskolaren sotoan. Ordura arte zeuden bi lokalak eraberritu (horietako bat erdibitu), eta beste lau lokal berri egin ziren. Gune bakoitzean talde ezberdinen artean partekatuz gero, hamabi talderentzako lekua eratu zen hala.

Eskolaren azpiko sotoan izan zen bestelako aldaketarik. Oñatz taldearentzat ere egokitu baitzen lokal bat, ordura arte musika bandak erabiltzen zuena.

2001

UDAL AURREKONTUA

1.900
milioi pezeta

MOTZEAN

Ia 13 milioi utzi zituen Kinielak herrian

▪ Urriaren 21eko kinielak ia 13 milioiko saria banatu zuen herritar talde batean. Bi aste lehenago, 3 milioiko beste sari bat ere jaso zuten.

Batzoki berritua inauguratu zuten

▪ Martxoaren 18an inauguratu zuten ofizialki Batzoki eraberritua, Xabier Arzallus orduko EAJ-ko lehendakaria bertan zela.

Iñaki Galdos EAko lehendakari

▪ Eusko Alkartasunaren Gipuzkoako lehendakari izendatu zuten Galdos, exekutibak izandako batzar berezian %62ko babesa jasota.

50 mila pezetako laguntza Pablo Ibarri

▪ Zumaiako Udalak egindako eskaerari erantzunez eman zion Udalak laguntza hura Ibarri, auziak eragindako gastuei aurre egiteko.

Aloñako gurutzea eta aterpea eraberrituak, mendeurrenean

[93-101 ALEAK] Urriaren 13an bete zituen Aloñako gurutzeak 100 urte, eta eguraldi ederra lagun, herritar ugari igo zen ospakizun berezira. Jose Maria Uriarte Donostiako gotzainak bedeinkatu zituen gurutzea eta ondoko aterpe berriak urteurrenean, biak ere herritar talde batek eraberrituak hilabete batzuk lehenago. Horrez gain, gurutzearen mendeurrenaren inguruko liburua argitaratu zuten Iñaxio Irizar eta Jerardo Elortzak urte amaieran.

San Prudentzion biribilgunea eraikitzeko lanak hasi zituzten

[94 ALEA] Horrenbeste buruhauste eman zuen San Prudentzioko bidegurutzea kendu eta biribilgunea eraikitzeko lanak hasi zituzten. Trafiko askoko gune arriskutsua baitzen.

Aloñako abeltzainen elkartea eratu zen

[97 ALEA] Herriko ganaduzaleen eskariari erantzunez eratu zen elkartea. Aloñara ganadua eramaten dituztenek larren aprobetxamendua elkarrekin antolatu, eta, erakundeekin elkarlanean, larreen kalitatea hobetzea zuen helburu.

Zubibarri eta Eskolatxoko zubiak bota zituzten

[93 ALEA] Ubao erreka bideratzeko lanen ondorioz, Zubibarri eta Eskolatxoko zubiak bota ziren berriak eraikitzeko. Uholde arriskua handitzen zuen "puntu beltza" kendu nahi izan zen.

Urbiako artzainen bordei otorduak emateko debekua

[99 ALEA] Partzoneriak debekatu egin zuen Urbiako artzainen bordetan otorduak zerbitzatzea. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak esan zuen Urbiako fonda bakarrik zegoela baimenduta ostatu zerbitzua emateko.

Odriozolaren lehen garaipena, Urkiolan

[99 ALEA] Profesional mailan lortutako lehen garaipena erdietsi zuen Jon Odriozolak Urkiolako gainean. Helmugarako 2 kilometroren falta jo zuen erasoa oñatiarrak eta bakar-bakarrik altxatu zituen besoak. Hamahiru urte ziren euskaldun batek bertan irabazten ez zuela. Azkena Marino Lejarreta izan zen. Urte hartan denboraldiko hiru itzuli handiak (Giroa, Tourra eta Vuelta) osatu zituen Banesto taldeko txirrindulari oñatiarrak.

Uribetxeberriaren lehen eta bigarren postuak oilagorretan

[92 ALEA] Jose Migel Uribetxeberria 'Irazola' Gipuzkoako txapeldun, eta Euskadiko txapeldunorde izendatu zen oilagorretan. Oilagorra omen da ehiza motarik preziatuena ehiztarien artean. Bada, ehiztari sen aparta erakutsi zuen Irazolak, eta baita txapelketa zein ehiza une guztietan alboan duen txakurrak ere.

Hilabete batzuk beranduago Espainiako txapeldunorde geratu zen Santanderren, bi pieza harrapota.

Frantziskotarrak Arantzazuko amaren zaindari 500 urte

[99 ALEA] Arantzazuko Frantziskotarren V. mendeurrena ospatu zuten ama birjinaren egunean hasi eta urte guztian zehar. 500 urte bete baitziren Arantzazuko amaren zaindari gisa zeramatela. Erakusketa batez gain, bi liburu ere argitaratu zuten urteurrenaren harira. Espainiako Santutegien kongresu nazionala ere bertan ospatu zen. Gandiagaren omenezko kontzertua, Donostiako Orfeoia eta Ainhoa Arteta ere izan ziren bertan.

Bigarren saria eskuratu zuen Ganbarak Avilesen

[92 ALEA] Esteban Urzelaik zuzentzen zuen Ganbara Abesbatzak XVII. Aviles Hiria nazioarteko lehiaketako bigarren saria eskuratu zuen. Sailkapen saioak gainditu ondoren, finalean Muskizeko Carpe Diem eta Luancoko (Asturias) El León de Oro abesbatzekin lehiatu behar izan zuten oñatiarrek. Lehenengo saria irabazteko adina meritu egin bazuten ere, azkenerako bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Iker Egaña, 2. A mailako Eibarren prestatzaile fisiko

[99 ALEA] Blas Ziarreta, 2.A mailako taldeko entrenatzailearen deia jaso zuen Iker Egañak proposamenaren. Hasieran zalantzaren bat bazuen ere, erronka onartzea erabaki zuen oñatiarrak. Eibar futbol taldeko aurpegi zaharra zen ordurako Egaña, talde armaginean laugarren denboraldia baitzuen. Ordura arte baina, 2. B mailako taldearen prestatzaile fisikoa baitzen; harrobiko talde guztien prestaketa fisikoa ere koordinatzeaz arduratzen zen.

Sindikatik Aizkorrira 54 minutuan

[97 ALEA] Lagunarteko apustuan Alberto Iñurrategik ezarritako marka da: Sindikatik Aizkorriraino 54 minutuan egin baitzuen aretxabaletarrak, aldapa gogor eta behelainoari aurre eginez. Bi hirukote aritu ziren nor baino nor: alde batetik, Alberto Iñurrategi, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, eta bestetik, Jabi Aldekoa, Mikel Lizarralde eta Rafa Etxabe. Azken honek Urbia eta Aizkorri arteko bidea egin zuen, Lizaso Arbelarren hasi zen, eta gainerakoek Sindikatik Aizkorrirainokoa.

Lezetarentzat Gipuzkoako Artista Berrien 2. saria

[97 ALEA] Ana Lezetak bigarren saria eskuratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak bi urtean behin antolatutako Artista Berrien Lehiaketan, egurra, igeltsua eta plastikoz egindako 'Reservado' izeneko lanarekin, identitatearen kontzeptuarekin jokatuz.

AZPIAZU ETA EVARISTO. Jose Antonio Azpiazuk 'Balleneros vascos en el Cantábrico' liburua plazaratu zuen eta Evaristo Pàramosek 'Por los hijos lo que sea'.

ETBko BETIMU saioa grabatu zen

[97 ALEA] Egun batez telebistako izar bilakatu ziren herriko hainbat eta hainbat gazte. Euskal Telebista herrian izan baitzen maiatzaren 17an BETIMU saio arrakastatsuaren saioetako bat grabatzen.

Agertokia plazan jarri zuten, eta egun euritsua izan bazen ere, gazte andana hurbildu ziren herrikideen abesti, koreografia eta txisteak ikus-entzutera. Dohain bereziak zituztela erakutsi zuten gazteek. Kamera aurrean bikain moldatu baitziren denak.

2002

UDAL AURREKONTUA

12,7
milioi euro

MOTZEAN

Zaborra batzeko edukiontziak, kalean

▪ Etxeetako zabor poltsak edukiontzietan biltzen hasi zen mankomunitatea. Bilketa ere, egunez izatetik gauez izatera pasa zen.

Robota Estenaga baserriko ikuiluan

▪ Behiak jaisteko robota jarri zuten Estenaga baserrian. Egunean 65 behiri hiru aldiz jaisteko gaitasuna zuen, besteak beste.

ONGI hotela zabaldu zen kale zaharrean

▪ 18 logelako hotela ireki zuen Mikel Bolinagak. Herrian bertan ireki zen bakarra zen garai hartan. Taberna ere zabaldu zuen.

Gomiztegiko gazta, estatuko onena

▪ Nikolas Segurolak ardiesnez egindako gaztak estatuko onenaren saria jaso zuen Madrilgo Nekazaritza Ministerioan.

Gazteleku eraberrituak ateak zabaldu zituen

[112 ALEA] Goitik behera eraberritu zen Gaztelekua, egitura arkitektoniko berritzailea ezarriz. Solairu bakarra izatetik, bi solairu izatera igaro zen, eta horrek gela edo gune berriak sortzeko aukera eman zuen. Lehengo topalekua, informatika gela edota agertoki nagusiaz gain gain, herriko talde zein kolektiboek erabili ahal izateko beste 6 gela berri ezarri ziren, baita formatu txikiko kontzertuetarako edota antzerki saioetarako areto bat ere (Kuboa bezala ezagutua). Argazki eta bideo lantegi bat, eta taberna txiki bat ere egokitu zituzten, besteak beste.

Bertan jarri zen, baita ere, Xabin Egaña artista oñatiarraren margolana. 'Sasi guztien gainetik' izenburua duen pieza agertoki nagusiaren alboa jarri zen.

Turismo Bulegoa, San Juan kalen

[112 ALEA] San Juan kalean, unibertsitatearen pareparean ezarri zen Turismo Bulegoaren egoitza berria. Bertan besteak beste, turistei bideoak erakutsi edota azalpenak emateko gela bat ere egokitu zuten.

Berrikuntzarik nabarmenena baina, bulego bertatik ikusteko aukera dagoen San Migel errota da. Udalak hura berreskuratzeko lanak egin zituen. Garai batean kondearena izandako errota, Turismo Bulegotik martxan ikusteko aukera ezarri zen.

Santa Ana antzokia eraberritu zen

[111 ALEA] Bi hilabeteko berrikuntza eta egokitze lanen ondoren, zoru eta eserleku berriak estreinatu zituen Santa Ana antzokiak. Aurrealdeko hamahiru ilarako eserlekuetan gainera, pendiza txiki bat eratu zen, %3koa, ikuslegoaren ikusmena hobetzeko.

Horrez gain, Santa Anan zeuden oztopo arkitektonikoak ezabatu ziren, eta ikastolako patiora bideratutako larrialdietarako irteera berri bat ere egokitu zen. Proiekzioetarako pantaila berri bat ere jarri zen.

Guadalajara eta Asis-ekin anaitzeak

[107-109 ALEAK] Bi anaitze akordio sinatu zituen urte hartan Oñatiko Udalak. Alde batetik Mexikoko Guadalajara hiriarekin anaitu zen herria. Guadalajara Cristobal de Oñate herrikideak sortu baitzuen. Mexikoko ordezkaritza herrian izan zen akordioa sinatzeko.

Hilabete batzuk beranduago berriz, Italiako Asis hiriarekin anaitu zen herria. Arantzazuk paper berezia jokatu zuen anaitze honetan. Bertan egin baitzen anaitze ekitaldia, frantziskotarren babespean.

Txantxiku Txoko elkarteak, 75 urte

[113 ALEA] Oñatiko elkarterik zaharrenak, Txantxiku Txoko elkarteak 75 urte bete zituen. Oñatiko elkarterik zaharrena ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko 10 elkarte zaharrenen artean ere bada Txantxiku Txoko. 1957an sortu zen 57 bazkiderekin. Herriko kirolari lotutako elkartea izan da beti.

Ez zen izan ordea, urteurrena ospatu zuen herrik elkarte bakarra. Haitzalde eta Pikupe elkarteek 25 urte bete baitzituzten. Kale Zaharrak ere, egoitza berria estreinatu zuen.

1. maila nazionalerako igoera eskuratu zuen Aloña Mendik

[107 ALEA] Sekulako denboraldia egin eta igoera faseko hiru partidak irabazi ondoren, 1. maila nazionalerako txartela eskuratu zuen eskubaloi saileko gizonezkoen talde nagusiak. Txus Aranbururen mutilek, sekula lortu ez zena lortu baitzuten. Bide batez, Galiziako arantza ateratzea lortu zuten. Oñatin bertan jokatu zen igoera fasea, eta Zubikoa leporaino bete zen igoera fase guztian. Harmailetan bizi izan zen giroa ere benetan bikaina izan zen. Bai harmailetan eta baita kantxan ere oñatiarrek ez zuten aurkaririk izan.

ESPAINIAKO TXAPELDUN. Espainiako txapelketa irabazi zuten kadete mailako Arantzazu Kortabarria, Eider Matilla, Maialen Guridi eta Jone Larrañagak Euskadiko selekzioarekin.

'Anesiñua oñatiarrez' eta 'Memorias de aquel Oñati' liburuak

[111 ALEA] Iñaxio Irizarrek idatzitako Anesiñua oñatiarrez liburua aurkeztu zen. Makalena elkartekoek Herri Egunean antzeztutako antzezlana jasotzen zuen liburuak, batuan zein oñatiarrez idatzia.

Bestalde, Juan Zubiak idatzi eta Jose Antonio Azpiazuk moldatutako 'Memorias de aquel Oñati' liburua ere argitaratu zen urte hartan. Zubiaren testuez gain, hainbat argazki ere biltzen zituen liburuak.

Luis Duranek saria, Bartzelonan

[108 ALEA] Komikigile gazte onenaren saria jaso zuen Luis Duran oñatiarrak Bartzelonan, *Saló* komiki kongresuaren XX. edizioaren baitan, 'Vanidad' komiki liburuari esker. Urte askotako lanaren errekonozimendua izan zen sari hura komikigileak azaldu zuenez.

AGUSTIN GOENAGA. Agustin Goenagaren 'Murga mairua' dokumentalak bigarren saria jaso zuen Lekeitioko 25. Euskal Zine eta Bideo Bileran.

Jon Urzelai bigarren mailako Eibar taldera

[110 ALEA] Barakaldo utzi eta 2.A mailako Eibar taldearekin sinatu zuen Jon Urzelai futbol jokalariak. Pozik eta ilusio handiarekin ekin zion denboraldi eta erronka berriari oñatiarrak berak aitortu zuenez. Maila txukuna erakutsi zuen denboraldi-aurrean, eta Blas Ziarreta entrenatzailearen hamaikakoan izateko aukera asko zituela erakutsi zuen Urzelaik. Aurretik, Sanse, Novelda (Alicant, Valentzia) eta Barakaldon aritu zen Urzelai, eta 25 urterekin iritsi zen 2.A mailara.

Iñaki Guridi bigarren, EH-ko txapelketan

[106 ALEA] Santurtzin jokatutako Euskal Herriko igeriketa txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen Iñaki Guridi Aloña Mendiko igerilariak. Bigarren postua 200 estiloko proban erdietsi zuen oñatiarrak (2.24.82). Horrez gain, 400 estiloetan laugarren sailkatu zen, eta bosgarren 100eko proban.

Txapelketa berean parte hartu zuen baita ere Ihanire Urteagak. 200 estilo libreko proban zazpigarren sailkatu zen, eta zortzigarren 400 estilo librekoan.

Jose de Azpiazuren dokumentazioa, Udalaren esku

[110 ALEA] Jose de Azpiazu musikari eta gitarra-jolearen dokumentazio guztia Udalaren esku utzi zuen haren alaba Lupek. Ia 400 kiloko oparia jaso zuen erakundeak: musika-partitura sorta zabala, pianorako piezak, organorako sonatak, kontzertuak eta gehiago biltzen zituen dokumentazioak. Guztiak Azpiazuk bere ibilbide osoan zehar jasotakoak edota sortutakoak. Kultur ondare handia, ezbairik gabe. Musika Eskolaren esku utzi zuen Udalak.

Egoitz Olalde Sorkun-en bateria

[113 ALEA] Sorkun abeslariarekin zuzeneko kontzertuetan bateriajole gisa hasi zen Egoitz Olalde. 'Onna' Sorkunen lehenengo bakarkako lanaren aurkezpen biran izan zen oñatiarra abeslariarekin eszenatokian. Bien arteko harremana kasualitatez hasi zen, udan, eta Oñatiko Gaztelekuan, Kuraiak eta Sharon Stoner (Olalderen musika taldea) taldeek kontzertua eman zutenean.

SEN TALDEA. Aitor Uriarteren SEN taldeak bigarren diskoa kaleratu zuen.

2003

UDAL AURREKONTUA

13,2
milioi euro

MOTZEAN

EGUNKARIA itxi zuen Guardia Zibilak

Otsailaren 20an itxi zuten Juan del Olmo epailearen aginduz. Idoia Etxeberria oñatiarra egunkariko kazetaria zen ordu hartan.

Zapatako ama birjina desagertuta

Ezezagun batek Zazpatako ama birjinaren irudia eraman zuen. Abenduaren 18an eman zuen herritar batek abisua.

GOITB herriko etxeetara iritsi zen

GOITB Debagoieneko telebista Oñatiko etxe gehientsuenetara iritsi zen. UHFko 28 kanalean ikusi zitekeen.

Arropa eta oihalen edukiontziak, kalean

Oihalen bi edukiontzi zuri jarri zituen mankomunitateak herrian: bata Olakua auzoan, eta bestea Erementeri plazan.

PAKE LEKUren egoitza berria inauguratu zuten

[114 ALEA] Abenduaren 8an inauguratu zen herriko jubilatuen egoitza berria. San Juan kaleko 2 eta 4 eraikinen arteko lokalean ezarri zen Pake-Leku berria. Urte asko ziren jubilatuak egoitza berri baten bila ari zirela. Ezaugarri berezi batzuk zituen lokal bat behar zen baina, adineko pertsonak bilduko zituen lekua izango baitzen: pisu batekoa, zoru laua eta leku zabala, besteak beste.

Udalarekin akordioa lortu eta toki egokia aurkitu ondoren, gustura geratu ziren jubilatuen elkarteko kideak lokal berriarekin. Taberna ederraz gain, hitzaldi-aretoa, eskulanetarako gela eta liburutegi bat ere jarri baitzen egoitza berrian, baita pelukeria eta podologia zerbitzuak ere.

EAJ-EA nagusi; Gartzia alkate

[119 ALEA] Nagusitasun osoz gailendu zen EAJ-EA udal hauteskundeetan. Udalbatza osatzen duten 17 zinegotzietatik 14 eskuratu zituen koalizioak. Andoni Gartzia izendatu zuten alkate horrenbestez. Ezker Batuak zinegotzi bat eskuratu zuen, eta beste bana PPk eta PSE-EEk. Ereitten herri ekimena legez kanpo geratu zen eta ez zuen parte hartzerik izan. Hala ere, 1.592 boto jaso zituen hauteskundeetan, eta onartu izan balira, 4 zinegotzi eskuratuko zituen.

36ko gerran fusilatutakoak omenduak Arrasaten

[120 ALEA] 1936ko gerran fusilatutako 105 debagoiendarrak omendu zituzten Arrasaten egindako ekitaldian. Horien artean ziren hogei oñatiar. Omenaldi hunkigarria izan zen, eta bertan bildutakoek nekez eutsi ahal izan zioten malkoei. Nolanahi ere, hunkituta baina pozik ziren guztiak, hainbat urtetan isilik egon ondoren, merezitako omenaldia jaso baitzuten guztiek. Monolito bat jarri zuten Arrasten bertan, Laubide planzan.

1500 urtetiko bataio-agiriak informatizatuak

[116 ALEA] Oñatiko Udalak eta Gotzaindegiak sinatutako hitzarmenari esker, 1500dik ordura arteko bataio-agiriak informatizatu ziren. Parrokiko artxiboan azken ehun urteko sakramentu liburuak bakarrik zeudenez, gainerakoak Donostiako elizbarrutiko artxibotik ekarri behar izan ziren; guztira 24 liburu. Agiririk zaharrenak 1539koak ziren. Informazio ugari eskaintzen dituzte bataio-agiriek: haurraren, gurasoen, eta familiaren ingurukoa.

Zuntz optikoa iritsi zen herrira

[114 ALEA] Zuntz optikoan oinarritutako telekomunikazio-sarea herriko kaleetan lurperatzen hasi zen Euskaltel enpresa. Lur azpiko estazio batzuk jarri zituzten aurrena, eta etxez etxe, erakinez erakin kable guztiak jarri zituzten. Sei hilabeteko lanen ondoren, herri guztira hedatu zuten zuntz optikoaren kable guztiak. Aldaketa nabarmenak ekarri zituen telekomunikazioei dagokionez. Kable bidezko telefono, internet eta telebista zerbitzua eskaintzen hasi zen enpresa.

Gasteizko mendi maratoia irabazi zuen Estela Biainek

[121 ALEA] Uztailaren 20an jokatu zen Gasteizko mendi maratoia irabazi zuen Estela Biainek. San Pelayon (Burgos) hasi eta Zallako Otxaran gaina bitartean jokatutako lasterketan gailendu zen 4 ordu eta 56 segundoko denbora eginda eta errekor berria ezarriz.

URDANPILLETA ETA MENDIOLA. Asier Urdanpileta bigarren sailkatu zen Navacerradako munduko kopan, eta Joxe Mendiola laugarren Euskadiko kopan.

Arantzazu Ibarrondok zazpi milako koska gainditu zuen

[122 ALEA] Lenin Mendia igota (7134 metro) zazpi milako koska gainditu zuen Arantzazu Ibarrondok. Bost urte lehenago egin zuen lehen saiakera Muztagh Ata (7546 m) mendia igo eta koska gainditzen, baina esperientzia faltaren ondorioz, eta, batez ere, eguraldi txarra zela eta, bertan behera utzi behar izan zuen saiakera.

AITOR OTXOA. Mendi eskian Euskal Herriko txapeldun izan zen Otxoa.

KULTUR ETXE BERRIAK ATEAK IREKI ZITUEN

[114 ALEA] Bi urteko eraberritze lanak amaitu ondoren, urtarrilaren 3an inauguratu zen Oñatiko Kultur Etxe berria. Inaugurazio ekitaldian izan ziren Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua eta udal agintariak Angel Iturbe alkatea buru zela.

Santa Marina plazako eraikin eraberrituak hainbat zerbitzu eta azpiegitura berri jarri zituen herritarren eskura: helduendako eta haurrendako liburutegi berrituak, irakurketa edota ikasketa gune bat, zine eta hitzaldi-areto bat, erakusketa gela bat, mediateka, hemeroteka edota KZ gune berri bat ere bai. Era berean, edozein talde edota herri eragilek erabili ahal izateko hainbat bilera gela ere jarri ziren bertan.

Oñatiko I. Herri Lasterketa antolatu zen

[119 ALEA] Euskal Herriko zein Espainiako atletarik onenetarikoak elkartu ziren lehen aldiz Oñatin. Goi mailako bi lasterketa antolatu baitziren, emakumezkoena eta gizonezkoena, biak ala biak 5.000 metrokoak. Plazan bertan irte eta zortzi buelta eman behar izan zizkioten Atzeko Kale eta Kale Barrian zehar igarotzen zen ibilbideari. Besteak beste, Martin Fiz, Javier Cortes, Alejandro Gomez edota Yesenia Centeno eta Maria Abel bezalako izen handiak izan ziren herrian lasterka.

Markel Irizar Euskaltel Euskadira

[123 ALEA] Afizionatuetan bost urte eman ondoren (bi ULMA-CEGASA eta hiru OLARRAn), profesionaletara salto egin zuen Markel Irizarrek EUSKALTEL EUSKADIrekin sinatuta. Bi urterako batu zen taldera 23 urteko txirrindulari oñatiarra.

Urtebete lehenago gauzak oso bestela ziren Irizarrentzat: minbiziaren aurka borrokan ari baitzen. Zorionez, ordea, errekuperazioa bide onetik joan zen eta erronka zein proiektu berriekin disfrutatzen hastea baino ez zitzaion geratu.

Joxe Mari Anduagak bere lehen diska kaleratu zuen

[117 ALEA] Bere musika ibilbideko lehen diskoa argitaratu zuen Joxe Mari Anduagak. 'Bizitza Bera' izeneko lanak Anduagak berak sortu eta idatzitako 12 abesti biltzen zituen. Gitarra lagun, lan pertsonal eta intimista zela adierazi zuen musikariak. Diskoan bertan, Xabier Ugarte edota Amaia Azpiazuren laguntza ere izan zuen. Estreinaldi kontzertua eskaini zuen Santa Ana antzokian, diskoan parte hartu zuten guztiekin batera.

Giza eskubideei buruzko lehiaketan garaile Xabi Pascual

[119 ALEA] Bigarrengo urtez jarraian irabazi zuen Xabier Pascualek Giza Eskubideei buruzko Jaurlaritzaren Idazlan lehiaketa. Saria New Yorkera bi pertsonendako bidaia zen, baina idazlanetan maisutasunez jorratzen zituen printzipio eta baloreak praktikara eramanez Habanako (Kuba) auzune bateko azpiegiturak hobetzen laguntzeko eman zuen diru-saria, 2.300 euro.

AMAIA ARANZETA.
Urruzuno literatur lehiaketa irabazi zuen Aranzetak.

2004

UDAL AURREKONTUA

13,5
milioi euro

MOTZEAN

Gipuzkoako urrezko domina Juan Zelaiak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren urrezko domina jaso zuen, aberastasuna eta enplegua sortu eta kultura sustapena bultzatzeagatik.

Arau subsidiario berriak onartu ziren

Herriko lurren antolamendua erregulatzen duten arauak onartu ziren. 1.100 etxebizitza berri eraikitzeko aukera jasotzen zuen.

Txantxiku Ikastolak zilarrezko Q saria

Kalitatearen Kudeaketaren Europar Fundazioaren errekonozimendua jaso zuen Ikastolak Zilarrezko Q sariaren bitartez.

Asier Altzelai 'Aldai', aske geratu zen

Martutene eta Soriako espetxeetan ia hiru urte eman ondoren, irailaren 11an geratu zen aske. Ongietorria jaso zuen plazan.

Kalegoienako lanak eta Zubillagako saihesbide berria

[127-133 ALEAK] Martxoan hasi zituzten Kalegoienako urbanizazio lanak. Guztira 85 etxebizitza, 16 babes ofizialekoak eta 180 kotxerentzako lur azpiko aparkaleku publikoa eraiki zuten bertan. Herritar ugarik nahi zuten lanak ziren. Izan ere, Arau Subsidiario berriak onartu bitartean, hura zen etxebizitzak eraikitzeko geratzen zen lurzoru urbanizagarri ia bakarra.

Bestalde, eta ia bi urtek lanen ondoren, Zubillagako saihesbide berriaren lanak amaitu zituzten. Lan hauek ere herritar askok irrikaz espero zuten, ordura arte Zubillaga erditik igarotzen baitzen trafiko guztia. Irailaren 9an inauguratu zuten Madalena eta Osinurdin lotzen dituen bi kilometroko errepidea, erakundeetako ordezkariak bertan zirela.

Haurreskola publikoa zabaldu zen

[133 ALEA] Oñatiko Udalak eta Haurreskola Patzuergoak Olakua 19an egokitu zuten haur eskola publikoak ateak zabaldu zituen irailaren 25ean. Maite Larrañaga Patzuergoko gerentea eta Andoni Gartzia alkateak inauguratu zuten eraikina.

0-1 eta 1-2 urte bitarteko gela bana egokitu ziren, eta guztira 20 haurrentzako tokia. 0-2 urtek hezkuntza zikloan lehendik herrian zegoen eskaintza osatu zuen Olakuako haurreskola publiko berriak.

ISO 9000 ziurtagiria Osasun Zentroak

[125 ALEA] Oñatiko Osasun Zentroko administrazioak ISO 9000 Kalitate Ziurtagiria jaso zuen abenduaren 10ean Gabriel Inclan Osasun sailburuaren eskutik. Aurreko urteko irailetik AENOR kalitate irizpideetara egokitzeko ahaleginaren saria zela adierazi zuen Santi Ayechu Anbulategiko orduko zuzendariak.

Osasun zentroari lotuta, eraikin berriaren atzealdean 65 autorentzako aparkalekua egokitu zen. 305.000 euroko inbertsioa egin zen horretarako.

Arrikrutz koben lanak hasi zituzten

[126 ALEA] Arrikrutzeko kobak bisitarientzat egokitzeko lanak hasi zituzten. Besteak beste, Jaturabetik haitzuloko ahorainoko bidea zabaldu zuten lehendabizi, haitzulorako sarrera izango zena definitu ahal izateko. Bide hori egiteko lur batzuk desjabetu behar izan zuen Udalak, eta horren ondorioz ia lau urteko atzerapena izan zuten lanek.

53 galeria turismorako irekitzeak iritzi desberdinak eragin zituen herritarren artean. Udalak baina, aurrera egitea erabaki zuen.

Makalena eta Nekazarien elkarteak 25 urte bete zituzten

[125-133 ALEAK] Herriko beste bi elkartek urteurren borobilak bete zituzten. Makalena eta Nekazarien elkarteak 25 urte bete baitzituzten.

Urte guztiko ospakizun ekitaldiak antolatu zituzten biak ala biak. Makalenaren kasuan, esaterako, elkartearen sorrera ospatzeko festa egin zuten, aurresku dantza eta luntx eder batekin. Nekazarien elkartekoek, besteak beste, erakusketa bat eta herriko elkarteen arteko mus txapelketa egin zuten.

ALOÑA MENDI, GIPUZKOAKO KIROL ELKARTERIK ONENA

[125 ALEA] Aloña Mendik Gipuzkoako kirol elkarterik onenaren saria jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Anton Inza Aloña Mendiko presidenteak Foru Aldundiak emandako saria jaso zuen Kursaalen abenduaren 22an egindako ekitaldian. Ia 55 urtetan egindako lanaren errekonozimendua izan zen. Inzak berak, Aloña Mendi osatzen duten kirolari, tekniko, babesle, eta zuzendaritzako kide guztiei eskaini zien saria.

Ordu hartan, 14 sail edo kirol modalitatek osatzen zuten Aloña Mendi Kirol Elkartea. Gipuzkoako beste kirol elkarte askorentzat eredu bilakatu zen sail guztien arteko koordinazio bikainarengatik.

'SAGATZ' diska, eta Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzak

[135 ALEA] Ganbara Abesbatzak 'SAGATZ' izeneko lehen diskoa kaleratu zuen bere 10. urteurrenean. Abesbatzaren errepertorioko 17 kantarik kuttunenak bildu zituzten: polifonia, folklorea, espiritualak... denetarik apur bat. Grabazioaren zati bat Madalenako ermitan egin zuten akustika ona baliatuz, eta beste bat Elkar estudioetan.

Urteurrena ospatzeko baina, izan zuten bestelako albiste onik. Izan ere, abesbatza nagusiaren harrobia eratu baitzen: Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxoak abesbatzak sortu ziren. Haien estraineko kontzertuak eman zuten urte amaieran, sortu eta hiru hilabetera, Agustinoetan, Oihane Toledo eta Aitor Biainen zuzendaritzapean.



Fernandez gailendu zen Euskal Herriko maratoi erdian

[134 ALEA] Donibane Lohitzune eta Hondarribia artean jokatu zen Euskal Herriko maratoi erdia irabazi zuen Ritxar Fernandezek. Sekulako lasterketa egin zuen oñatiarrak, faborito zen Ouwanga tanzaniarrari ia bi minutuko aldea aterata.

JOXE MENDIOLA. Euskadiko mendi lasterketen kopa irabazi zuen Mendiolak.

OTXOA ETA LETAMENDI. E.H.-ko mendi eskiko binakako txapelketa irabazi zuten Aitor Otxoak eta Arkaitz Letamendik.

Profesional izateari utzi zion Odriozolak

[135 ALEA] Hogeita hamalau urte betetzear zela, bere kirol ibilbidea uztea erabaki zuen Jon Odriozola txirrindulariak. Urte hasieran KELME taldearekin sinatu zuen, urtebeterako. Urte amaieran, baina, bizikletatik jaistea erabaki zuen.

Ez zuen baina bizikleta mundua alboratu. Izan ere, ORBEA taldera (Euskal Euskadiren harrobiko taldera) batu zen oñatiarra kirol zuzendari gisa jardutera. Bere ibilbidearen jarraipen bezala hartu zuen Odriozolak urrats hura.



Arregiren 'Glup' filma, Goya sarietan

[126 ALEA] Animaziozko film onenaren saria eskuratzeko hautagaia izan zen Aitor Arregi zinegileak Iñigio Berasategirekin batera zuzendutako 'Glup' filma. Azkenean baina, ez zuen saria etxera ekartzerik izan oñatiarrak. Edonola ere, pozik agertu zen Arregi filmak izan zuen oihartzunarengatik. Filmaren ibilbidea ez zen horretan geratu, ordea. Hilabete batzuk beranduago, Alemaniako Postdam hiriko Cartoon Movie animaziozko zine-jaialdian parte hartzeko hautatu baitzuten.

Musika Bandak 25 urte bete zituen

[130 ALEA] Oñatiko Udal Musika Bandaren 25. urteurrena ospatu zuten ekainaren 20an. Dena den, herriko musika banda askoz lehenagokoa da. Aurkitutako datu eta argazkien arabera, 1906rako Oñatik bazeukan musika banda. 1910 inguruan ere, Donostiako txapelketan hainbat sari irabazi zituen. 1970ean, ordea, desagertu egin zen, eta 1979ko Korpus egunerako antolatu zen berriz ere. Bada, bigarren birsortzea ospatzeko, hainbat ekitaldi eta kontzertu berezi antolatu zituzten.

2005

UDAL AURREKONTUA

14,7
milioi euro

MOTZEAN

Elkar Hezi zoriondu zuen Jaurlaritzak

Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren zorionak jaso zituen, selektibitatean Gipuzkoako kalifikaziorik altuenak izan zituztelako.

Larraña institutuak 25 urte bete zituen

Oñatiko Lanbide Heziketa Institutoak maiatzaren 21ean ospatu zuen 25. urteurrena. 1980an sortu zen Larraña institutua.

Unibertsitateko erretaula, berritua

Hiru urteko zaharberritze lanen ondoren, Unibertsitateko kaperako erretaularen edertasuna agerian geratu zen berriz ere.

Zubi berria eraiki zuten Zubillagan

Uholde arriskuak ekiditeko, zubi zaharra bota eta berria eraiki zuten Zubillagan. Altuna presaren kota ere jaitsi egin zuten.

Zubikoa kiroldegia handitzeko lanak hasi zituzten

[137 ALEA] Horrenbeste esperotako eguna iritsi zen herriko kirolzaleentzat. Zubikoa Kiroldegia handitzeko lanak hasi baitzituzten. Kirol kantxa berria, bi gimnasio eta sei aldagela berri egokitu ziren. Horrez gain, bi zatiak lotuko zituen azpiko pasagune bat eta taberna berria ere bazuen kiroldegi berriaren proiektuak.

Zelaia-Etxegarai arkitektoek irabazi zuten lehiaketa publikoa eta haiek idatzitako proiektuak 3 milioi euro pasako aurrekontua izan zuen. Horrez gain, kiroldegi berriaren azpian aparkaleku publiko bat eraiki zuten. Lanek 17 hilabeteko luzapena izatea aurreikusten zen, eta ondorioz, 2006ko irailerako prest egotea.

Ugarkaldeko lanak hasi zituzten

[145 ALEA] Oñatiko auzo berria eraikitzeko lanak hasi zituzten. Urriaren 28an jarri baitzen UGARKALDEko lehen harria, Sukia Eraikuntza taldeko eta Oñatiko Udaleko ordezkariak, besteak beste, bertan zirela. 300 etxebizitza eraikitzeko proiektua izan zen, horietatik 210 babestuak zirelarik.

Lehenengo fasean babes ofizialeko 75 etxebizitzadun lau bloke eraiki ziren, Olapoto eta errepidetik gertuen kokatzen zirenak. Hiru urte iraun zuten lan horiek.

Zubillagako hiltegia, zabalik

[141 ALEA] Zubillagako hiltegiaren auziari amaiera eman eta zabalik mantentzea erabaki zuen mankomunitateak maiatzaren 11n burututako batzarrean. Horretarako baina, hiltegiaren ustiaketaz arduratuko zen enpresa misto bat eratzea proposatu zuen. Enpresa hark kapital publiko zein pribatua izango zukeen. Hain zuzen, hori izan zen 'Hiltegia Bizirik' plataformaren eskariz, hiltegiaren bideragarritasuna aztertzeko SIADECOk egindako txostenak proposatzen zuena.

Mexikoko San Luis de Potosi eta Oñati anaitu ziren

[144 ALEA] Mexikoko San Luis de Potosi hiriko alkate Octavio Pedrazak eta Andoni Gartzia Oñatiko alkateak bi herrien arteko Adiskidetasun Hitzarmena sinatu zuten irailaren 8an, udaletxeko areto nagusian, elkarren arteko harremanak sakontzeko asmoarekin.

Bi herrian arteko lotura uste baino luzeago baita. Narriondo baserrian jaio zen Cristobal de Oñateren seme Juan de Oñatek eratu baitzuen Mexikoko hiria 1592an.

Kasablankako gaztetxea, eraitsia

[146 ALEA] Oñatiko gazteek okupatu eta gaztetxe bilakatu zuten Kasablankako eskola zaharra botatzea erabaki zuen udal gobernu taldeak. Erakundearen iritziz, eraikinak ez zituen betetzen gutxieneko segurtasun baldintzak. Gazte Asanblada ados ez, eta udal gobernuaren "faltsukeria eta hipokrisia" salatu zituen, haien esanetan, "zin" egin baitzien ez zutela eraitsiko aurretik abisatu gabe. Kontuak kontu, akordiorik gabe amaitu ziren eraisketaren ondoren bi aldeek izandako 3 bilerak.

Aloñako 1. Igoera antolatu zen: Zinca eta Olazabal garaile

[140 ALEA] Aurreneko aldiz antolatu zen Aloñako Igoera. Maiatzaren 1ean jokatu zen, eta ez zuen inor zapore gaziarekin utzi. Ikusgarria bezain gogorra izan baitzen Euskadiko Mendi Lasterketen Koparako puntuagarria izan zen proba. Arrakastatsua izan zen bai parte hartzeari dagokionean, baita antolakuntza mailan zein herritarren erantzunari dagokionean ere.

Ionut Zinca Gasteizen bizi zen 21 urteko errumaniarrak irabazi zuen lehenengo edizio hura. Abiatu orduko hartu zuen lasterketa burua, erritmo bizia jarriz. Emakumezkoetan, aldiz, Alicia Olazabal irundarra nagusitu zen. Guztira 246 lagunek amaitu zuten lasterketa eta lehen oñatiarra Joxe Mendiola izan zen. Hirugarren postuan amaitu zuen lasterketa.

KLAXK Oñatiko txokolateroen elkartea eratu zuten

[141 ALEA] Maiatzaren 28an aurkeztu zuten Sancti Spiritus unibertsitatean KLAXK Oñatiko txokolateroen elkartea, txokolateak historian zehar herrian izan duen garrantzia gogorarazi eta aldarrikatzeko helburuarekin eratutako taldea. Guztira, 80 bat kide zituen elkarteak sortu berritan: lehengo txokolate familietako kideak, lantegietako langile ohiak, orduko langileak, eta baita herritik kanpoko lagunak ere. Aurkezpen ekitaldian kide guztiek jaso zuten doktoretza, elkartearen ikurra izango zen zapia jantzi eta bost kontinenteetako azukrearekin egindako ontza bana janda. Elkartearen hamar aginduak biltzen zituen diploma bana ere jaso zituzten. Horrez gain, Artisau Txokolatearen nazioarteko 1. Azoka antolatu zuten irailean.

Errioxako Golf Irekia irabazi zuen Jon Anduagak

[140 ALEA] Kadete mailako Errioxako Golf Irekia irabazi zuen joan Anduagak. Apirilaren 2 eta 3an Cirueñan jokatutako txapelketa bere aurrenekoa izan zen eta maila bikaina erakutsi zuen oñatiarrak. Ordura arte, hiru urte besterik ez zihoan Golfean jokatzen, Oñatiko Irelore golf eskolara joaten hasi zenean ekin baitzion. Oñatiko Golf eskolaren lehen fruitua izan zen. Lehiatzen hasi berria izanik, disfrutatu eta ikasten jarraitzea zuen helburu Anduagak orduan.

Maneiro, Varela eta Garcia protagonista atletismoan

[142 ALEA] Sandra Maneiro Euskadiko Txapeldun bilakatu zen kadete mailako 5000 metroko ibilketa lasterketa irabazi ondoren. Donostian jokatu zen lasterketan bikain moldatu zen Maneiro. Urte berean, 3000 metroko lasterketa ere irabazi zuen.

Aloña Mendiko beste bi korrikalarik ere maila bikaina erakutsi zuten. Yeray Varela eta Sergio Garcia Euskadiko txapeldun izan baitziren pistan, 10000 eta 5000 metrokoan.

Artzain Txakur txapelketak, 50 urte

[143 ALEA] Oñatin antolatzen den Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketak 50 urte bete zituen. Urtemuga hura ospatzeko egitarau berezi bat prestatu zuten antolatzaileek, Oñatiko Udala, Euskal Abereak elkartea eta Eusko Ikaskuntzako Zientzia sailak elkarlanean. Hala, beste ekitaldi askoren artean, Euskal Herriko Bertako Arrazen X. erakusketa nazionala egin zen San Martinen, eta Euskal arrazak eta Ekogastronomiari buruzko jardunaldi bat antolatu zen unibertsitatean.

Sharon Stoner garaile Danbakan

[136 ALEA] Debagoienako lehenengo DANBAKA musika lehiaketa irabazi zuen Sharon Stoner taldeak, eta horri esker '3000 bira' izeneko diskoa plazaratu zuten. Guztira 43 musika taldek hartu zuten parte, eta Potemkin bigarren postuan sailkatu baitzen.

JOSEBA ARREGIren 'KARTZELAKO LEIHOTIK'

Joseba Arregi 'Azpilleta'ren margo lanak eta idatziak biltzen dituen 'Kartzelako leihotik' liburua argitaratu zuen Ateramiñek.

TALDE LANA

Natxo Santos

Kolaboratzaile, banatzaile, iritzi emaile, publizista, maketatzaile, ilustratzaile, argazkilari, irakurle, aholku emaile… asko izan dira Kontzejupetik aldizkariak 25 urte hauetan izan dituen bidelagunak. **MILA ESKER GUZTIOI !!**

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira:
Juankar Olaeta, Iñigo Biain, Garbiñe Garai, Hiart Otxoa, Mohamed Embarec, Jose Manuel Vilariño, Amaia Aranzeta, Roberto Maiztegi eta Jone Arrazola.

Erdiko ilaran:
Iñaki Aiastui, Alazne Inza, Bittor Madina, Fernando Mendiguren, Beatriz Irizar, Jerardo Elortza, Marian Lizarralde, Iñigo Arregi eta Roberto Altuna.

Beheko ilaran:
Aitor Burcio, Mireia Bikuña, Aimar Uribesalgo, Aitor Biain, Jon Lopez, Luis Guridi eta Aratz Losada.

Falta direnak:
Idoia Etxeberria, Amaia Kerexeta, Onintza Negueruela, Arantxa Egoskozabal, Oihana Elortza eta German Meabebasterretxea (eta banatzaile zein publizista lanetan aritu diren beste hainbat).

9
HERRIALDETARA BANATU IZAN DA

278
ALE KALERATU DIRA

5.500
ALE BANATZEN DIRA HILERO

%100
PAPER BIRZIKLATUAN INPRIMATUA

1992KO IRAILA Ordura arte maiztasun finko barik plazaratzen zen aldizkaria (udaleko Euskara sailak 13 zenbaki atera zituen 1988 eta 1991 artean) hileroko maiztasunez argitaratzen hasi zen.

1992
LEHEN ZENBAKIA

ESTILO PROPIOA
1996

1996KO OTSAILA Auto-edizioaren bidea hartu zuen aldizkariak, barrualdeko diseinua berrituz eta atal berriak sortuz, estilo propio baten bila.

2009KO EKAINA Jauzi garrantzitsua bat iritsi zen. Zuri beltzean inprimatutako aldizkari bat izatetik, %100ean koloretakoa izatera pasa zen.

2009
ZURI-BELTZETIK KOLORETARA

GARAI DIGITALA
2015

2015EKO MAIATZA Komunikazio munduaren garai berrietara egokitu nahian, diseinu aldaketa berri bat, eta mundu digitalerako jauzia eman zuen.

www.oñati.eus

Berbia Oñati @BerbiaOnati

#Kontzejupetik25 urte

Partekatu itzazu sare sozialetan zure argazki eta iritziak, ondorengo traola erabiliz.
Zer eman dizu aldizkariak?

2006

UDAL AURREKONTUA

17,1
milioi euro

MOTZEAN

Santikrutzek eta Asentziok, 100 urte

▪ Asentzio ermitak eta Zañartuko Elizak 100 urte bete zituzten. Jokin Zubiak 'Zañartu. Hamaika kontu eta irudi' liburua idatzi zuen.

Oñati eta Arantzazu arteko autobusa

▪ Herria eta Arantzazuko bidea egiteko autobusa jarri zuen Udalak herritarren eskura. Lehenengo hilabetean 922 erabiltzaile izan zituen.

Ulma Handling-en egoitza berria

▪ Urrutxuko industriagune berrian inauguratu zuen Ulma Handling Systems enpresak egoitza berria martxoaren 24an.

Etxebizitzen zozket Ugarkalden

▪ Ugarkaldeko babes ofizialeko 75 etxebizitza zozketatu ziren. Hurrengo urteetan etorriko ziren beste hainbat zozketatan lehena.

Aizkorri-Aratz parke natural izendatu zuen Jaurlaritzak

[152 ALEA] Hainbat urteko atzerapenarekin iritsi bazen ere, Aizkorri-Aratz Natur Parkearen izendapena onartu zuen Eusko Jaurlaritzak apirilaren 4an dekretu gisa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburu Esther Larrañagak hala eskatuta. Natur Parkeak, Gipuzkoa eta Araba arteko muga banatzen duen mendi kordala hartzen du; Arlaban eta Otzaurte arteko eremua, gutxi gorabehera. Aizkorri-Aratzeko natura-balio eta baliabide garrantzitsuak babestu, eta bertako ekologian zein paisaian kanpoko inpaktuek eragin ditzaketen kalteak saihestu nahi izan zen izendapenarekin. Halaber, naturaren eta paisaiaren ekosistemek duten aniztasuna gorde nahi izan zen, eta tartean, fauna eta flora espezieen habitatak babestu.

Psikogeriatria unitatea San Martin egoitzan

[158 ALEA] Alzheimerra eta bestelako menpekotasun psikikoa duten pertsonei zaintza berezia eskaintzeko Unitate Psikogeriatrikoa egokitu zuten San Martin egoitzako 3. Solairuan. Horrez gain, 4. Solairuko gela guztiak berritu ziren, gune amankomunak (jangelak, egongelak...) klimatizatu ziren, eta kanpoaldeko leiho eta arotzeria guztia berritu zen. Orotara, 1,4 milioi euroko inbertsioa egin zen San Martin egoitzan.

Lurdes Idoiaga, alkarte

[149 ALEA] Lan arrazoiak tarteko, alkatetza utzi behar izan zuen Andoni Gartziaren lekua bete zuen Lurdes Idoiagak, agintaldia amaitzeko geratzen zen urte eta erdian. Otsailaren 23an hartu zuen kargua Idoiagak. Batzar areto nagusia leporaino bete zen Osoko Bilkuran. Alderdikoen babesa jaso zuen bakarrik. PPk aurka bozkatu zuen; PSE-EE eta EB-ko ordezkariak berandu iritsi ziren. Ereitten Herri Ekimeneko jarraitzaileek Ezker Abertzaleak bizi zuen 'apartheid' egoera salatu zuten.

Parrokiako zaharberritzea, abian

[156 ALEA] Jaiak amaitu bezain laster hasi zituzten Mikel Goiangeruaren parrokiako eliz ataria, klaustroa eta kanpandorrea eraberritzeko lanak. Kanpoaldeko hormak garbitu eta hondatuta zeuden harriak konpondu zituzten, urteen joan-etorriarekin eta hezetasunaren ondorioz kaltetuta baitzeuden. 700 mila euroko aurrekontua izan zuten lanek: Foru Aldundiak erdia ordaindu zuen; gainerakoa, Parrokiak eta Oñatiko herriak. Irudi ikusgarriak utzi zituen.

Euskal Eskola Publikoaren jaia Oñatin ospatu zen

[152 ALEA] Giro ezin hobean ospatu zen Euskal Eskola Publikoaren XV. festa Oñatin. Goizeko 11etan egin zuten hasiera ekitaldi oficiala, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Tontxu Campos Hezkuntza sailburua, Oñatiko Udaleko ordezkariak zein Errekalde Herri Eskolako antolakuntzako kideak buru zirela. Milaka lagun bildu ziren herrian antolakuntzak prestatutako zazpi jai-guneez gozatu eta disfrutatzeko asmoz. Jai arrakastatsua izan zen.

Espainiako eta munduko errekor saiakerak Oñatin

[152 ALEA] Goi mailako ikuskizuna izan zen herriko kaleetan. Oñatiko Herri Lasterketaren baitan, Espainiako eta Munduko errepideko 10 000 metroko errekora ontzen saiatu baitziren Zersenay Tadesse eritrearra eta Julio Rey espainiarra. Ez zen halakorik lortu azkenean, baina ikuskizuna aparta izan zen. Dena eman zuten atletek eta ikusleek eskertu zuten. Errekorretik 52 segundura geratu ziren.

Sergio Garcia protagonista

[150 ALEA] Barakaldon jokatutako Euskadiko 5.000 metroko txapelketa irabazi zuen Sergio Garcia atletak. Gertu geratu zen ekainean Orensen jokatuko zen Espainiako txapelketarako gutxieneko denboratik. Ez zuen aurkari zuzenik izan, eta horrek ez zion lagundu marka ona egiten. Astebete lehenago, Melillan jokatutako Espainiako txapelketan ere parte hartu zuen (38. postuan). Urte hasieran Lasarteko krosa ere irabazi zuen Garciak.

MUNDUMIRA jaia ospatu zen herrian

[152 ALEA] Debagoienako mankomunitateak bultzatutako MUNDUMIRA jaiaren bigarren edizioa Oñatin izan zen. Jendearen partaidetza, eguraldi zoragarria lagun, handia izan zen ostiral iluntzean hasi eta igandera arte ospatu zen munduko kulturen jaia; arrakastatsua alde guztietatik begiratuta. Hiru ekitaldi burutu ezinik geratu baziren ere, karpa nagusian izandako kultur ekitaldiak, zein kale animazioak jendetza erakarri zuten, baita kontzertuek ere.

25 urte Boisen Korpusak dantzatzen

[154 ALEA] Oñatiko Korpus Dantzak Estatu Batuetako Idaho estatuko Boise hirian dantzatzen hasi zirela 25 urte bete ziren. 1980k udan dantzatu zituzten aurrenekoz eta dagoeneko tradizio bilakatu dira bertako euskal diasporarentzat (San Inazio dantzak bezala ezagutzen dituzte bertan). Urte batzuk lehenago, Pat Biete zenak, euskal jatorriko amerikarrentzat antolatutako 'Basque Studies' programarekin Oñatira iritsitako ikasleek ikasi eta eraman zuten.

Zubia eta Zarketaren dominak igeriketan

[149-154 ALEAK] Urte hasieran Ordizian jokatutako Euskadiko txapelketan urrezko dominak irabazi zituen Iñaki Zubia Aloña Mendiko igerilariak 100 eta 200 bizkar erako probetan. Estilo bereko 50 metrokoan, berriz, zilarrezkoa.

Ander Zarketa ere Euskal Herriko txapeldun bilakatu zen 200 metroko bizkar eran. Gipuzkoakoan beste bi urrezko ere lortu zituen (50 eta 200), eta brontzea 100 bizkarrean. Espainiako txapelketan 16. sailkatu zen, 200 bizkarreko proban.

Santanderreko Marina Park taldean jokatu zuen Egañak

[155 ALEA] Itxaso Egaña eskubaloi jokalariak bere seigarren denboraldia jokatu zuen Ohorezko Mailan, Espainiako eskubaloiaren elitean. Azken bi denboraldiak Donostiako Bera-Bera taldean eman ondoren, maletak egin eta Santanderreko Marina Park taldearekin sinatu zuen urte hartan.

JON URZELAI. Murcia taldean bi urte eman ondoren, Gran Canariako Vecindario taldearekin fitxatu zuen, eta denboraldi erdian Eibarrekin

Pake Lekuko antzerki taldea, arrakastatsu

[157 ALEA] Arrakastatsua izan zen Pake Lekuko 'Ikusi Makusi' antzerki taldeak aurkeztu zuen bigarren lana ere. 'En dos palabras: im paciente' lanak lehertzeko moduk barre algarak eta txalo zaparradak eragin zituen Santa Ana antzokira hurbildu zirenengan. Azaroaren 17an egin zuten antzezlanaren estreinaldia, baina herritar asko eta asko sartu ezinik geratu zirenez, errepikatu egin behar izan zuten abenduaren 1ean. Bi kasuetan beteta geratu antzokia.

R. M. de Zuazolaren erretratua erosi zuen Udalak

[146 ALEA] Antonio Valverde 'Ayalde' errenteriarrak egindako Rodrigo Mercado de Zuazolaren margolana erosi zuen Oñatiko Udalak. Oihalean margotutako oleoa, metro bete zabal eta bi metro luzeko pieza da. Gipuzkoako erretratugile ospetsuenetarikoa izan zen Valverde. Besteak beste, Loiola Inazio, Aita Larramendi, Iparragirre edota Lope de Agirre ere margotu zuen. Haren alabak udalari eskaini zion, eta honek 15.080 eurotan erosi zuen.

2007

UDAL AURREKONTUA

17,9
milioi euro

MOTZEAN

Argi berdea Ludoteka zerbitzuari

▪ Udalak 3-6 urte bitarteko haurrentzat Ludoteka irekitzea onartu zuen. Txaloka Ludoteka 2008an ireki zen, Lizaur kaleko lokalean .

Kalitatearen eta kudeaketaren Q-ak

▪ Kalitatearen Q saria jaso zuen Oñatiko Turismo Bulegoak. Elkar Hezi ikastetxeak, ULMA Forjak eta ETEOk, berriz, kudeaketarena.

Mugarza eta Atxa, lemazain izendatuak

▪ Xabier Mugarza ULMA taldeko lehendakari izendatu zuten, eta Bixente Atxa, berriz, MUko Eskola Politeknikoko zuzendari.

Lehen harria jarri zen San Martinen

▪ San Martingo etxalde berria izango zenaren lehen harria jarri zen. Guztira 306 etxebizitza eraikiko zituzten 18 etxe-bloketan banatuta.

ARRIKRUTZEKO KOBAK ZABALDU ZITUZTEN

[162 ALEA] Urte hartako ekainaren 8an inauguratu zituzten Arrikrutzeko Kobak bisitarientzat. Hamabi urte luze igaro ziren Arrikrutzeko 53 galeria bisitarientzat egokitzeko egitasmoa abian jarri zenetik, eta lau milioi euroko aurrekontua izan zuten lanek; udalak ia bi heren jarri zituen. Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe sistema karstikoaren zati txiki bat baino ez da, milioika urteetan urak moldatu eta zizelkatutako barrunbe ikusgarria. Ia 500 metroko ibilbidea egokitu zen galerian barrena, eta ordubeteko bisitaldian, bestak beste, 1966an penintsulan aurkitu den haitzuloetako lehoiaren hezurdura osoaren erreplika bat jarri zen ikusgai. Arrikrutzen ikur bilakatu da ordutik lehoia.

Eli Galdos alkate eta diputatu nagusi ohia zendu zen

[162 ALEA] Oñatiko alkate izan zen 1979tik 1991ra, eta segidan, Gipuzkoako Ahaldun Nagusi izateko hautatu zuten. EAJ-ko kide historikoa, 1980an Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuorde izendatu zuten. 1987ra arte egon zen kargu hartan. Urte horietan sortu zen Ertzaintza, besteak beste. Euskararen eta ikastolen alde gogor lan egindakoa, Korrikaren lehendabiziko edizioko lehen lekukoa eraman zuen. 73 urte zituen.

Hospederian hotela eraikitzeko lanak, abian

[168 ALEA] Maiatzean hasi zituzten Arantzazuko Hospederia eraberritzeko lanak. Eraikin zaharra bota, eta hotela eraikitzea zuten helburu frantziskotarrek. Guztira, 51 logeladun hiru izarreko hotela, alegia. Hotelaz gain, taberna eta jatetxea ere egokitu zuten Hospederia berrian.

Hasiera batean, barruko horma eta habe nagusiak bere horretan uztea bazen ere, azkenerako dena berritu zuten; kanpoaldeko hormak izan ezik.

Kalegoiena eta kiroldegiko aparkalekuak, irekita

[165 ALEA] Herrigunean eraikitako lurpeko bi aparkalekuak zabaldu ziren. Kalegoienako aparkalekuan 188 autorentzako lekua ezarri zen, horietatik baina, soilik 71 izan ziren txandakako aparkaleku publiko gisa erabiltzeko bezalakoak. Kiroldegiko aparkalekuan, berriz, 101 autorentzako tokia egokitu zen. Horrez gain, beste hamahiru garaje ere egokitu ziren, erabilera pribatukoak. Hasieran, 31. minututik aurrera ordaindu behar izan zen.

Ikastolako ikasleak Saharan izan ziren

[158 ALEA] 'Ikastolatik Saharara' proiektuaren baitan, Aaiungo errefuxiatuen kanpamenduetan izan ziren Txantxiku Ikastolako ikasle eta irakasleak. Barru-barrutik bizitako esperientzia izan zen; laguntza materialez beteta eraman bait zuten hegazkina, eta maitasunez beteta ekarri bihotzak. Urtean zehar egindako lanari esker, 18 000 euroko balioa zuen laguntza materiala eraman zuten bertara. Urte hartan, Txantxiku Ikastolaren 40. urteurrena ere ospatu zuten.

1. Garagardo festa antolatu zen

[164 ALEA] Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta, Oñatiko I. Garagardo Festa egin zen, uztailaren 20tik 22ra, Foruen Enparantzan. Bi helburu izan zituen festak oinarri: batetik, urteko aurrekontuei aurre egiteko gero eta zailtasun handiagoak zituzten Aloña Mendiko sail guztientzako diru-baliabideak lortzea, eta bestetik, elkarteko sail guztien arteko elkartasuna areagotzea. Sail ezberdinetako 150 lagun izan ziren lanean, txandaka.

Gipuzkoako txapeldun Altube, ziklo-krosean

[158 ALEA] Kadete mailako Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa irabazi zuen Ander Altubek, Aizarnazabalen, abenduaren 10ean jokatutako proban. Bigarren sailkatuari, minutu bateko aldea atera zion oñatiarrak.

Astebete beranduago baina, Ormaiztegin jokatutako Euskadiko Txapelketan 4. tokiarekin konformatu behar izan zuen Altubek. Erregulartasun handia erakutsi zuen denboraldi guztian txirrindulariak.

Herriko bertsolari txapelketa bueltan, ia 40 urte eta gero

[161 ALEA] Ia 40 urteko etenaren ondoren, Oñatiko Gazte Asanbladak eta Oñatiko Bertso Eskoliak Herriko IV. Bertsolari Txapelketa antolatu zuten. Guztira, 16 lagunek parte hartu zuten, eta Josu Igartuak jantzi zuen txapela martxoaren 31n Arrano tabernan jokatutako finalean. Andoni Goitiarekin izan zen buruz buru azken fasean lehian. Hirugarren, Egoitz Aizpuru sailkatu zen, eta ondoren Joseba Lasagabaster, Iñaki Olalde eta Beñat Alberdi. Finalean bildutako ikus-entzuleen saria Alberdirentzat izan zen.

1965ean jokatu zen lehen txapelketa. Rufino Alkortak irabazi zuen. Bigarrena 1968an izan zen, eta hirugarrena 1969an etenaren aurretik. Andres Kortabarriak irabazi zituen haiek.

Jon Agirre nagusi Euskadiko boulder txapelketan

[162 ALEA] Otsaila eta martxoa artean jokatu zen Euskadiko Bourler Liga irabazi zuen Jon Agirre eskalatzaileak. Bost jardunaldi puntuagarri izan zituen boulder ligak, Gasteizen hiru eta Amurrio eta Arrasaten bana, eta horietako bitan nagusitu zen Agirre. Gainerako hiru saioetan, bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatu zen. Gasteizko azken proban erabaki zen sailkapen orokorra. Garai hartarako, urte eta erdi zihoan entrenatzen Agirre.

Felix Sanchez, protagonista

[163 ALEA] Arrasate Atletiko taldean zebilen Felix Sanchez oñatiarrak urrezko domina eskuratu zuen Anoetan jokatutako Gipuzkoako Atletismo Txapelketa absolutuetako 4x400 errelebo proban.

Atletismoan jarduteaz gain, argazkilaritza ere zaletasun zuen Sanchezek, eta, hala, bi munduak uztartuta, KIROLGI fundazioaren argazki lehiaketako lehen saria eskuratu zuen. 'El gran salto' izeneko argazkiagatik jaso zuen. Naroa Agirreri eginiko argazki bat zen.

Aita Madinaren jaio zela 100 urte bete zen

[159 ALEA] Francisco Madina Igartzabal, Aita Madina, Oñatik eman duen musikagilerik handienaren mendeurrena bete zen urtarrilaren 29an. Zubillagako Txipitxalle baserrian jaio zen, eta plaka bat jarri zuen Oñatiko Udalak bertan hura gogoratzeko. Lurdes Idoiaga alkateak eta Imanol Murua Oñati Abesbatzako zuzendariak argitaratu zuten.

Musikaria oroitzeko hainbat ekitaldi eta kontzertu egin ziren urte guztian zehar.

Agertokietara itzuliko zela adierazi zuen LATZENek

[166 ALEA] Oñatiko rock talderik eta entzutetsuenak agertokietara itzuliko zela adierazi zuen. Latzen 1999an desegin baitzen, bi disko eta eta arrakasta handiko sei urteko ibilbidearen ondoren. Amaiera harekin gustura ez, eta behar bezalako agur bira bat egiteko elkartu ziren Aitor Uriarte, Joxe Mari Azpitarte, Iker Martinez de Zuazo eta Gorka Lazkano taldekideak. Kontzertu sorten ostean, zuzeneko DVD bat grabatu zuten, Eskoriatzan.

2008

UDAL AURREKONTUA

18
milioi euro

MOTZEAN

Beilatoki berria ireki zuten Otaduin

▪ Uztailaren 17an inauguratu zuten Moyua ehorztetxearen beilatoki berria Otadui Zuhaiztiko 25 zenbakiko beheko solairuan.

PPko zinegotzia zigortu zuten

▪ Julio Perez de Arriluzea PPko zinegotzia zigortu zuten EAEko auzitegiek EAE-ANV-ko hautetsiak birritan iraintzeagatik.

Joxean Larrañaga, parroko berria

▪ Irailaren 28an izendatu zuten Jose Antonio Larrañagak Oñatiko parroko gisa, Donostiako elizbarrutiko bikarioa mezaburu zela .

Natura-bide egokitu berria Arantzazun

▪ Gipuzkoako lehen natura-bide egokitua inauguratu zuten Arantzazu eta Gomiztegi artean Udalak, Foru Aldundiak eta La Caixak.

Gomiztegiko Artzain Eskola berria inauguratu zuten

[169 ALEA] 1.300 m²-ko azalera duen eraikina jaso zuten Gomiztegi baserriaren aldamenean. Ia 400 ardirentzako artegi berria eta puntako teknologiaz hornitutako jeizteko lekua, gaztandegia eta denda eraiki zituzten bertan. Ikasgelak eta bulegoak Gomiztegi baserriko ikuilua zegoen lekuan egokitu zituzten. Danera 1,2 milioi euroko inbertsioa egin zuten. Ibarretxe lehendakaria, Gonzalo Saez de Samaniego nekazaritza sailburua eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako foru aldundietako ordezkariak bertan zirela inauguratu ziren instalazio berriak. Eskola berria eraikitzeko Gomiztegi Elkartea izeneko fundazioa eratu zuten frantziskotarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Itsasmendikoi sozietate publikoak.

Osasun sailaren baldintzetara egokitu zuen Usako Udalak

[175 ALEA] Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren baldintzetara egokitu, eta dutxak, iturri bat eta soroslea jarri zituen Usakon Udalak aurreneko aldiz. Horrez gain, seinalizazioa ere berritu zuten. Bertan, ohiko debeku edota ohartarazpenez gain, salto egiteko leku egokiak zeintzuk ziren ere adierazi zuten.

Usakoko uraren kontrola ere, Osasun Sailaren esku utzi zuen Udalak, ordura arte egiten zen moduan.

1989ko mailegua ordaintzen amaitu zuen Udalak

[169 ALEA] 1989an Olate, Lamiategi eta Tokilloko ur jauzietako azpiegitura guztia Union Cerrajerari erosteko eskatu behar izan mailegua ordaintzen amaitu zuen. Zama handia kendu zuen gainetik, zorpetze handiaren eragile baitzen. Guztira, 850 milioi pezeta.

Inbertsio handi horri esker, 450.000 euro inguruko diru irabazi garbia jasotzen du Udalak ordutik urtero, hiru etxe horietako argindar ekoizpenaren eta salmenta dela eta.

Udaltzaingoaren egoitza berria inauguratu zen

[177 ALEA] Ertzaintzaren polizia-etxea kokatzen zen eraikina eraberritu eta Oñatiko Udaltzaingoaren egoitza gisa ireki zuen Udalak. Ia 500 metro karratuko azalerako egoitzan, bilera-gelak, aldagelak, biltegi eta garaje zabalak, eta bi ziega egokitu ziren bertan. Hamaika udaltzainetatik bi udaletxean geratu ziren. Trafiko ordenantza ere onartu zen. Isunak aurrerantzean, udaletxean ordaindu beharko ziren eta ez trafiko zuzendaritzan, ordura arte moduan.

Munazategiko urbanizazio proiektua, onartua

[169 ALEA] Munazategi gunean, Torreauzo eta Garibai artean eratuko zen industrialde berriaren urbanizazio proiektua onartu zuen udalbatzak azaroaren 29ko osoko bilkuran. 70.810 metro karratuko azalerako gunearen inguruan, bide publiko berria eta bidegorria egokituko zuten.

Industriaguneko sarrera gisa baina, zubi bat eraikiko zuten erreka gainean, gune berriaren eta Ulma Construcción lantegiaren arteko lotura eginez .

AGUR AZKOAGAINEKO BELAR NATURALARI

[173 ALEA] Azkoagaineko futbol zelaian belar naturala kendu eta artifiziala jarri zuten. Izan ere, ETEOren egoitza berria eraikitzea onartu zuen udalak, eta, horrenbestez, ordura arte Ibarran burutzen ziren futbol jarduera guztiak Azkoagainera lekualdatu zituzten. Jarduera guzti horiei eutsi ahal izateko, Azkoagain egokitu zuen udalak. Berdegunea aldatzeaz gain, sei aldagela berri, iluntzean entrenatu ahal izateko argi posteak edota ureztatze sistema automatikoa ere jarri zuten.

1949ko martxoaren 20an inauguratu zuten Azkoagain, herrian oraindik futbol talde ofizialik ez zegoenean. Zenbait partida berezi ere jokatu ziren bertan: Realaren aste santuko jubenilen txapelketa, edota HFT-ren finalak.

Sevillako katedralaren planoa agertu zen Bidaurretan

[176 ALEA] Bidaurretako komentuan agertu zen Sevillako katedrala eraikitzeko erabili zen oinarrizko planorik zaharrena. Kantabria eta Sevillako bi ikertzailek aurkitu zuten dokumentua, artxiboan. Planoa Oñatira nola iritsi zen ziurtasunez inork ez daki, baina uste da Bidaurretako komentuaren fundatzaile Lopez de Lazarragak ekarria izan zela.

Foru Aldundiaren esku utzi zuten munduko katedral gotiko handienaren plano zaharrena, eraberritu zezaten. Uste baino hobeto zegoen adituen arabera, bost mende luzez komentuan tolestuta egon arren. Urte amaieran, Sevillara eraman zuten, bertako katedralean egin asmo zuten erakusketa baterako. Hura amaituta, berriz Bidaurretara eroan zuten bueltan.

Larrañako pilotalekua, berritua

[177 ALEA] San Lorentzo auzoko Larraña institutuko pilotalekua eraberritu zuen udalak. Aldaketarik nabarmenena, teilatuan izan zuen: burdinazko egiturak mantendu arren, zaharkituta zeuden uralitazko plakak kendu eta sabai berria jarri zioten. Zoruan aglomeratu geruza berria jarri zuten. Bi aldagela berriak ere egokitu zituzten, eta horiekin batera komunak eta biltegi bat. Eraberritze lanen kostua Eusko Jaurlaritzako Hezkutza Sailak hartu zuen bere gain, oso-osorik.

Uxue Barrena azkarrena Olabarrian

[174 ALEA] Uxue Barrena bigarrenez gailendu zen Gipuzkoako Karting Koparen finalena. Olabarriko zirkuituan jokatu zen proban, 13 eta 16 urte bitarteko lurraldeko 250 neska-mutikok hartu zuten parte. Hasiera batean, buelta azkarrenaren arabera taldeka jarri zituzten, eta sailkapen probak egin ondoren, 18 pasa ziren hurrengo eta azkenengo probarako. Gidatzeko zituen dohainak erakutsi, eta azkarrena izan zen Barrena Olabarriko zirkuituan, bigarren urtez jarraian.

Oñati Abesbatzako zuzendaritza utzi zuen Imanol Muruak

[176 ALEA] Imanol Muruak Oñati Abesbatzako zuzendaritza uztea erabaki zuen ia berrogei urteren ondoren. Ekainaren 28an, aita Luis Mallea zenari Munitibarren egin zioten omenaldian zuzendu zuen azkenekoz. Abesbatzaren bizitza osoa ia-ia eman zuen Muruak hura zuzentzen.

Bi disko grabatu zituen abesbatzak Muruaren zuzendaritzapean. Ordezkoa aurkitu bitartean, beti alboan izan zuen Loli Ordokik hartu zuen haren lekua.

Oñatiko Bertso Eskolak, 25 urte

[169 ALEA] Mende laurdena bete zuen Oñatiko Bertso Eskolak. Urteurrena ospatzeko helburuarekin, egitarau parte hartzaile, eskuragarri eta erakargarri bat landu zuten kideek. Ohiko bertso saioez gain, hainbat kontzertu, hitzaldi eta bazkari herrikoi bat ere bai. Eta, nola ez, bertso eskolaren sortzaileei omenaldia.

1983an Jose Mari Agirrebengoa 'Txinparta'-k Xabier eta Isidro San Migel, Benito Barrena eta Emilio Urzelairekin batera eratu zuen Oñatiko Bertso Eskola.

2009

UDAL AURREKONTUA

18,4
milioi euro

MOTZEAN

Medikalizatutako anbulantzia jarri zen

▪ Gipuzkoako laugarren anbulantzia medikalizatua Zubillagan kokatu zen. Eskulade guztiari zerbitzua emango zion.

CEUR enpresa itxi zuten ofizialki

▪ Irailetik hartzekodunen konkurtsoan zegoen enpresa. Langileek protestak deitu zituzten, zuzendaritzak itxiera argitu ez zuelako.

OÑANSOL GKE eratu zuten

▪ Diru laguntzak jaso eta proiektu handiagoei ekiteko, Gobernuz Kanpoko Erakunde bezala eratu zen OÑANSOL izenpean.

Txantxiku Ikastolak eraikin berria

▪ Jolaslekuaren zati bat hartu eta eraikin zaharrari itsatsita, beste hiru solairuko eraikin berria egin zuen Txantxiku Ikastolak.

Autobus geltokia postetxe atzetik aurrera lekualdatua

[184 ALEA] Posta bulegoaren atzean zegoen autobus geltokia lekualdatzea erabaki zuen Udalak. Ordukoa kendu eta posta bulegoaren aurrealdean jarri zuten berria. Komun publikoak ere jarri zituzten geltokiaren alboan, herritarren eskura.

Geltoki zaharraren lekuan haurrentzako parkea eta jolasleku bat egokitu zituzten. Ibarran eraikitzen ari ziren unibertsitateraino iritsiko zen bidegorria ere bertatik igaroko baitzen, gune berria herrigunearekin lotzeko. Ez zen inguruan eman zen aldaketa bakarra: bi biribilgune ere eraiki baitziren postetxearen inguruan. Horrez gain, hilerrirako bidean ia erortzear zegoen horma sendotu, bidea zabaldu, bidegorria jarri eta parke bat ere egokitu zituen udalak.

Oñatiko euskaltegiak 25 urte bete zituen

[180-184 ALEAK] Oñatiko Udal Euskaltegiak 25 urte bete zituen. 1960-1970eko hamarkadetan Euskal Herrian ernaldutako helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen mugimenduarekin estuki lotua, 1984an eratu zen herriko udal euskaltegia. Ordutik, 1620 lagun igaro ziren bertatik. Bedita Larrakoetxearen izena jarri zioten 1988an, aita laterandarraren omenez. 2005ean Bidebarrietako egoitza berria inauguratu zuen euskaltegiak.

LANBUS zerbitzua jarri zen martxan

[182 ALEA] Herriko langileei eskainitako LANBUS zerbitzua jarri zuen martxan Udalak, Foru Aldundiaren eta herriko hainbat enpresen babesarekin. Herrigunetik enpresarako bidaia egingo zuen autobusak, auto-ilarei, kutsadura eta estresari aurre egiteko helburua zuen.

Hasiera batean, 700 langile zituzten lau enpresek egin zuten bat ekimenarekin: Fagor Industrial, eta Ulma Taldeko Packaging, Eraikuntza eta Forja negozioek. Gainerako enpresei ere zabaldu zitzaien.

Gabonetako loteriaren lehen saria, herrian saldua

[180 ALEA] Gabonetako loteriaren sari nagusiaren serie bat, hamar dezimo, herrian saldu zen. Irizar administrazioak saldu zuen, eta denera, hiru milioi euro banatu zituen, 300 mila euro txartel bakoitzeko. Pozik ziren administrazioko kideak eta gogoz astindu zuten xanpain botila.

Gabonetako loteriaren sari nagusia herrian eman zutenetik 45 urte ziren. Azkenekoz, 1963an banatu baitzen. Niñoko loteriaren sari nagusia izan zen.

Arantzazuko kripta, inauguratuta

[189 ALEA] Arantzazu egunez inauguratu zuten Arantzazuko Santutegiko kripta eraberritua. Bigarrengo aldiz inauguratu zuten urte batzuk lehenago horrenbeste polemika sortu zuen kripta. Izan ere, 25 urte bete baitzituzten Nestor Basterretxeak bertan egindako margoek. Frantziskotarrek jarlekuak aldatu eta argiteria berria ezarri zuten. Basterretxea bertan izan zen, frantziskotarrekin bakeak egin ondoren. Urte berean Madalenako ermita ere berritu zuten auzotarrek.

Ramos munduko txapeldunorde 10.000m-ko proban

[187 ALEA] Euskadi eta Espainiako txapelketetan lortutako emaitza bikainek animatuta, Finlandiako Lahti hirian jokatutako Beteranoen XVIII Mundu Txapelketan parte hartu zuen Marisol Ramosek. Ustekabekoa eman eta zilarrezko domina eskuratu zuen 10.000 metroko proban. 5.000 metrokoan bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen Aloña Mendiko atletak, bere marka 20 segundo ondu arren.

Herriko igerilariak protagonista

[187 ALEA] Urte emankorra izan zen herriko igerilarientzako. Alde batetik, Josune Odriozola Espainiako txapeldun bilakatu baitzen 100 libreko proban. Beste aldetik, aldiz, brontzea lortu zuten Sara Zubia eta Kepa Alberdik, 800 libre eta 100 estiloetan. Ander Zarketak eta Ane Sanz de Galdeanok berriz zilarra irabazi zuten 50 bizkarrean eta 100 libreetan, Euskadikoan. Urte hartan eratu zuten Txantxiku Igeri Taldea baita ere, itsas zeharkaldiak egiteko.

'1542 Oñatiko hitzarmena' taularatu zuten

[187 ALEA] Makalena elkartekoek '1542ko Oñatiko hitzarmena' izeneko herriantzerkia taularatu zuten San Migel egunez, foruen enparantzan. Iñaxio Irizar eta Jerardo Elortzak idatzi eta egokitutako testuak, 1542an Oñatiko herriak kondearekin sinatutako hitzarmenaren nondik norakoak kontatzen zituen. Guztira 70 bat lagunek hartu zuten parte ikuskizunean. Musika Iñaxio Ibarrondok sortu zuen.

Malenkoniaren diska berria, kalean

[186 ALEA] Malenkonia taldeak bere bigarren diskoa argitaratu zuen: 'Hegazkadak dakar ekaitza'. Pop estiloko lanak 10 kanta biltzen zituen, eta Otxandioko Oleta auzoko Liant estudioan egin zuten grabaketa lanak, Unai Osinagaren zuzendaritzapean. Hasiera batean udaberrirako kaleratzea espero bazuten ere, irailerako plazaratu zuten disko berria. Lehen grabaketak eginda eta hobetu beharrekoak hobetuta, Atzeko Kalen aurkeztu zuten.

Saskibaloiko talde nagusia, maila autonomikora

[185 ALEA] Maila autonomikoan jokatzeko txartela eskuratu zuen Aloña Mendiko saskibaloi talde nagusiak, Ordizian jokatutako lauko finala irabazi ostean. Lehenengo partida etxekoen aurka jokatu zuen Aloñak, eta lehia estua izan bazen ere, azkenerako 82-85 gailendu ziren oñatiarrak. Urrats hura emanda, finalean Donostiako La Salle izan zuten aurkari. Bi minuturen faltan 7 puntu azpitik bazen ere, 87-91 nagusitu zen Aloña.

Markel Irizar Radio Shack taldera

[188 ALEA] Euskaltel Euskadi taldea utzi eta Radio Shack talde estatubatuarrarekin sinatu zuen Markel Irizarrek. Lance Armstrongen deiari erantzun eta baiezkoa eman zion oñatiarrak. Hasiera batean, bi urterako sinatu zuen Irizarrek Radio Shackekin (Euskaltelek urtebete eskaintzen zion, enpresa iragarlearen kontratu amaiera zela eta). Gauzak horrela, Johan Bruynell zuzendariaren gidaritzapean jarri zen Irizar, profesional mailako bere zazpigarren denboraldian.

Artzain-txakurren txapelketak 50 urte

[188 ALEA] Oñatiko Nazioarteko Artzain-Txakur Txapelketak 50 urte bete zituen. Marka berriarekin ospatu zuen urteurren biribila, gainera: seigarren urtez jarraian irabazi baitzuten Illarduiako (Araba) Jose MºJauregi eta haren txakur Bizkorrek. Hainbat berrikuntza ere izan zituen probak, baina balorazio positiboa egin zuten bai parte hartzaileek, baita ikusleek ere. 50. urteurrenaren harira, ordura arteko txapeldun guztiak omendu zituen antolakuntzak Santa Lutzian.

Elkar Hezikoen filma sariatu zuten

[190 ALEA] Elkar Heziko DBH 4ko ikasleek aurreko ikasturtean zehar Lengua y Literatura ikasgaian errodatutako bideo-erreportaiak SM argitaletxeak estatu mailan antolatutako 'Experiencias lectoras' izeneko lehiaketako bigarren saria eskuratu zuen. Valentziara joan ziren sari bila: bost mila euroko diru-saria, eta proiektuan parte hartu zuten ikasle guztientzako liburu sorta bana jaso zituzten. Aitor Perosterena eta Ruben Idigoras izan zituzten teknika arloan laguntzaile.

2010

UDAL AURREKONTUA

15,8
milioi euro

MOTZEAN

Patxi Hipolito zendu zen

▪ Gaztelekuko dinamizatzaile eta herriko kultur eragile zen Patxi Hipolito hil zen. Pertsona maitatua, hutsune nabarmena utzi zuen.

Elortza, Bidegileak bildumako zuzendari

▪ Bidegileak biografia bildumako zuzendari izendatu zuten Jerardo Elortza idazle, irakasle eta historialari oñatiarra.

Errekaldeko berritze lanak hasi ziren

▪ Errekaldeko urbanizazioa berritzeko lehen faseko lanak egin ziren. Trafikoa baretu eta Errekaldeko eraztuna gune erdi-peatonal bihutzea zen helburua.

ULMA Fundazioa aurkeztu zuten

▪ ULMA taldearen gizarte erantzukizuneko ekimenak sustatu eta gizarteratzeaz arduratuko zen fundazioa aurkeztu zuten.

ETEOk 50 urte bete zituen, egoitza berria inauguratuta

[194 ALEA] Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Oñatiko fakultateak 50 urte bete zituen. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldia antolatu zituzten, baina garrantzitsuetan garrantzitsuena, egoitza berriaren estreinaldia izan zen. San Lorentzoko eraikin zaharra utzi eta Ibarrako egoitza berrira igaro baitzen fakultatea, enpresagintza izen berriarekin. Kirol gunea izandako orubean 8.500m^2-ko eraikina inauguratu zuten eta ia 14 milioi euroko inbertsioa eginda. Une hartan 700 ikasle zituen fakultateak, baina 1.000 hartzeko prestatuta zegoen. Horrez gain, ETEOren 50 urteko historia jasotzen zuen liburua idatzi zuen Jose Antonio Azpiazuk. ETEOren sortzaileak gonbidatu zituzten eraikin berriaren inauguraziora.

Garabia Auntzokua baserriaren gainera bota zuen haizeteak

[192 ALEA] Zorionez ezbehar pertsonalik gertatu ez bazen ere, ikaratzeko moduko gertakaria eragin zuen haizeteak herrian. Kasablankako Urbieta guneko 50 metroko garabi bat bota, eta Auntzokua baserriaren teilatu gainera erori baitzen. Bertan zeuden amaalaba eta haur jaio berriari beldutzeko moduko unea igaro arazi zien gertakariak. Zorionez baina, kalteak handiak bai, baina materialak bakarrik izan ziren.

Izatezko bikoteen erregistroa, bertan behera

[193 ALEA] 2004an Oñatiko Udalak Elkarketa Zibilen erregistroa sortzea erabaki zuenetik, herrian bertan izena emateko aukera izan zuten herritarrek. Datuak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte sailera bideratzen baitzituen udalak gero. Zenbait udaletxetatik bidalitako inskripzioekin arazoak izan zituzten nonbait eta, ondorioz, erregistroa indargabetzea erabaki zuen gobernuak. Indarrean egon zen bitartean, 75 bikotek eman zuten izena.

Ke detektagailuak adinekoen etxeetan

[196 ALEA] Suteen aurkako prebentzio plana jarri zuen martxan udalak, etxean bakarrik edo bikotean bizi ziren 75 urtetik gorako herritarren segurtasuna hobetu eta areagotu nahian. Borondatezkoa izan zen programa eta, instalakuntzaren kostu osoa bere gain hartu zuen udalak. Ordu hartan, 80 urtetik gorako 193 pertsona bizi ziren beraien etxeetan bakarrik edo bikotean herrian. Urte berean suak kiskali zuen Uribarri auzoko Balzategi baserria.

Bide gorriaren eta igogailuen lanak, San Lorentzon

[194 ALEA] Lazarraga kaleko ipar parteko espaloian, San Lorentzo eta Bidaurretako biribilgunearen arteko bidegorria eraikitzeko lanak hasi zituzten. Bizikletentzako bidea egokitzearekin batera, espaloiaren berdegunea ere berrantolatu zuten, atsedengune zabal eta atseginak eraikiz.

Horrez gain, auzoaren urbanizazioa berritzeko planaren barruan, desnibelak gainditzen laguntzeko igogailuak jartzeko lanak ere hasi zituzten.

Saskibaloi talde nagusia 1. maila nazionalera

[195 ALEA] Sekulako balentria egin zuen Aloña Mendiko saskibaloiko talde nagusiak. Bi urte eskasetan, maila probintzialetik autonomikora igo baitzen aurrena, eta handik lehenengo maila nazionalera ondoren. Urte biribila bezain historikoa burutu zuten Xabi Igartua eta Gorka Judezen mutilek. Klubaren historian inoiz lortu gabekoa.

Ander Mallabiabarrena (Arrasate), Jagoba Gamarra (Aretxabaleta) eta Iñigo eta Mikel Biain (Oñati) taldera batzeak kalitate puntua eman zion saskibaloi talde nagusiari, zalantzarik gabe. Edonola ere, talde sendoa eratu zuten, harrobiko jokalariak oinarri hartuta, eta denboraldi bikaina burutu zuten guztiek. Goi mailako saskibaloia izan zen kantxan!

Gotzon Osinagak, zilarrezko domina

[196 ALEA] Euskal Herriko Txistulari Elkartearen zilarrezko domina jaso zuen Gotzon Osinagak Santa Aretoan egindako ekitaldian. Omenaldi beroa bezain hunkigarria jaso zuen oñatiarrak. Nekez eutsi ahal izan zion emozioari Osinagak, eta eskerrik beroenak eman zizkien egun ahaztezin hura posible egin zuten guztiei. Udalak, Oñatz Dantza Taldeko dantzariek eta Musika Eskolako haur kantariek ere parte hartu zuten omenaldian.

Patroiarekin dantzan filma errodatu zuten

[196 ALEA] Korpus jaien inguruko filma egin zuten Kepa Aranburuk eta Aitor Perosterenak: 'Patroiarekin dantzan' izenpean, ordubete pasatxoko dokumental izaerako filmak herrian 500 urtetik gorako tradizioa duen ospakizunaren alderdi esan-guratsuenak bildu zituen.

ARZUAGA ANAIAK GOGOAN

Urte berean, Migel Angel Arzuaga margolari eta argazkilaria eta bere anai Jose Mari konpositorea gogoratzeko erakusketa antolatu zen.

Elortza munduko azpitxapeldun, sokatiran

[193 ALEA] Zilarrezko bi domina eskuratu zituen Jone Elortzak goma gaineko Munduko Sokatira Txapelketan Gasteizko Badaiotz taldearekin. Cesenaticon (Italia) jokatu zen txapelketa izan zen gainera, bere ibilbideko azken txapelketa.

Hamasei urterekin hasi zen sokatiran Elortza. 35 urte beteta, eta munduko txapeldun izandakoa 2002an Irlandan, goi mailan lehiatzeri utzi zion, 540 eta 500 kilokoan txapeldunorde izendatu berritan.

Ziklo-krosa bueltan, 44 urteren ostean

[201 ALEA] Itxaronaldia luzea izan bazen ere, 44 urteko etenaren ondoren, berriz ere ziklo-krosaz gozatzeko aukera izan zen herrian. Aloña Mendi Txirrindularitza sailak antolatuta. San Martinen egokitu zuten ibilbidea, laua baina teknikoa. Inguru horietan izan zen baita ere, 1966ko ziklo-kros proba.

MARKEL IRIZAR. Profesional mailako lehen garaipena eskuratu zuen RadioShack taldeko txirrindulariak Poitous-Charentes itzuliko erlojupekoa irabazita.

Haizea garizumakoa eta Potemkin, protagonista

[192-193 ALEAK] Herriko musikagintzarentzat urte emankorra izan zen. Ruper Ordorikaren diskoari izena ematen zion 'Haizea Garizumakoa' abestia euskarazko kantarik onena izendatu baitzuen Estatuko Arteen eta Musika Zientzien Akademiak, urteroko sarietan.

Beste protagonista Potemkin taldea izan zen, bigarren diskoa argitaratu baitzuen: 'Gauaren zaindariak'. Disko berria, eta taldekide berriak ere bai, Alexis eta Mikel gehitu baitziren.

Etxegoienen eta Gilen lanak, saituak

[195-197 ALEAK] Fermin Etxegoienen 'Autokarabana' bere lehen nobelak Espainiako Kritikaren Saria jaso zuen. Aditu askok liburuaren berritasuna eta ausardia nabarmendu zituzten. Euskadi Literatura saria ere jaso zuen liburuak.

Nerea Gil Kortabarria, Txantxiku Ikastolako ikaslearen 'Loreak bezala' idazlana ere saritua izan zen. Ramon Rubial fundazioak antolatutako narratiba lehiaketan lehen saria eskuratu baitzuen, ipuinen sailean. Bigarrenez irabazi zuen.

2011

UDAL AURREKONTUA

15,4
milioi euro

MOTZEAN

'Oñatiko Ahotsak' aurkeztu zuten

▪ Adineko 110 herritarrei egindako elkarrizketak bildu zituzten webgunean, herriko euskara eta lehengo bizimodua ezagutarazteko.

'Gerrako garrak Oñatin' liburua

▪ Gogoratu Guran taldeak argitaratu zuen 1936ko gerran eta ondorengo urteetan herrian gertatutakoa azaleratzeko asmoz.

Javier Barrenetxea, omendua

▪ Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoak Ohorezko Kolegiatu izendatu zuen, botikari lanbideari eskainitako dedikazioaren aitortza gisa.

Ardi-esne ekoizleen elkartea

▪ Herriko hamahiru ardiesne ekoizlek indarrak batu eta elkartea eratu zuten beraien interesak defendatzeko helburuarekin.

BILDU nagusitu zen udal eta foru hauteskundeetan

[207 ALEA] Bilduk irabazi zituen udal hauteskundeak urte hartan, irauli historikoa eraginda. Koalizioak gehiengo osoa lortu zuen EAJren 32 urteko nagusitzarekin amaituz. Udalbatza osatzen duten 17 zinegotzietatik 11 eskuratu zituen Bilduk (botoen %52,30 jasota), eta gainerako 6 zinegotziak EAJrentzat izan ziren. Mikel Biain izendatu zuten, ondorioz, alkate.

Gipuzkoako Batzar Nagusiei dagokionez ere, Bildu gailendu zen, bai herrian eta baita lurralde mailan ere. Batzar Nagusietan Oñatik bi ordezkari izan zituen: Mikel Biain (Bildu) eta Ainhoa Galdos (EAJ). Halaber, Larraitz Ugarte Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegitura saileko diputatu izendatu zuten.

Arantzazuko auzoetxea eta parketxea zabaldu zituzten

[204 ETA 205 ALEAK] Aizkorri-Aratz natur parkerako sarbide nagusia izango zen Arantzazuko parketxea zabaldu zuten urte hartako otsailean. Parkearen balio natur eta kulturalak interpretatzen lagundu asmo zuen egoitza berriak.

Urte berean beste egoitza bat ere zabaldu zuten Arantzazun bertan: auzo-etxea. Kortakogainen, Motoso gainean, eraiki baitzuten auzotarrek Aitzabal izeneko eraikina, auzolanean.

Bizikletentzako bidea egokitu zen Euskadi etorbidean

[203 ALEA] Herri barruko bizikletentzako bide-sarea osatzeko egitasmoaren barruan, Olakua, San Lorentzo eta Bidaurreta lotzen zituen bidegorria eraiki ondoren, Euskadi etorbidean bizikletentzako bidea egokitu zen. Hala, Lazarraga kaletik iristen zen bidegorriari jarraipena emango zion. Kalea, '30 Gunea' bilakatu zen ondorioz, bi trafikoak bateragarriak izateko. Galtzadan seinalizazio horizontala margotu eta abiadura moteltzeko kuxinak jarri ziren.

Urrutxuku lanen lehen fasea amaituta

[204 ALEA] Urrutxuko zabortegia izandako gunea berreskuratzeko lehen faseko lanak amaitu ziren. Lurrazal guztia inpermeabilizatu eta plataforma horizontal bat egokitzea izan zen lan haien xedea, etorkizunean, besteak beste, kirol gunea eraiki ahal izateko. Egindako azterketen arabera, zabor organiko gutxi zegoen Urrutxun (%5 inguru), eta, beraz, biogas askorik ere ez zegoen. Hala ere, hodi-sare bat egokitu zuten sortu zitezkeen gasak kanporatu ahal izateko.

1. Txanda Eguna egin zen

[210 ALEA] TXANDA Oñatiko dendarien elkarteak antolatuta, 1.Txanda Eguna egin zen urriaren 22an. Saltokiak kalera atera eta herriko dendetan zer saltzen den erakutsi asmo zuen ekimen hark. Horrez gain, egitarau zabala ere osatu zuten: besteak beste, haur eta gaztetxoendako puzgarriak edota saiheski eta ardo dastaketa ere izan baitziren, musika eskolako trikiti taldearen kalejiraz gain.

Une hartan, herriko 23 saltokik osatzen zuten TXANDA elkartea.

EBA ligara igo zen saskibaloiko talde nagusia

[208 ALEA] Hiru urteko ibilbide bikainaren lorpenik handiena izan zen saskibaloi saileko gizonezkoen talde nagusiarentzat: Hiru igoera jarraian lortuta, EBA ligan jokatzeko txartela eskuratu baitzuen Xabi Igartuaren mutilek. Kantxan lortutako lorpenari gainera, bulegoen baiezkoa iritsi zen ondoren. Ez zen erabaki erraza izan, ordea. Izan ere, EBAn jokatzeak 60.000 euroko aurrekontua eskatzen baitzuen, aurreko urtean maila nazionalean izandako halako bi. Ate asko jotzea egokitu zitzaien saileko arduradunei, baina lortu zuten helburua.

Igoera lortu zuten jokalari ia guztiek jarraitu zuten jokatzen. Hala ere, lau fitxaketa egin zituen Sustrai-Aloña Mendik: Asier de la Iglesia, Gorka Kintana, Jon Lekuona eta Gorka Alartzia.

Bi Goya sari eskuratu zituen Aitor Mantxola zinegileak

[204 ALEA] Aitor Mantxola zinegilearentzat urte borobila izan zen. Alde batetik, Sara alaba protagonista gisa eta bera argazki zuzendari lanetan aritu zen 'Una caja de bonbones' filmak fikziozko laburmetrai onenaren Goya saria jaso baitzuen. Bestetik, aldiz, 'Bon Appétit' filmean (argazki zuzendaritza lanak egitea egokitu zitzaion bertan ere) lankide izan zuen David Pinillosek zuzendari gazte onenaren Goya saria jaso baitzuen. Sari emate ekitaldira itxaropen handirik gabe joan zirela aitortu zuten aita-alabek. Poza, baina, are handiagoa izan zen, baten beharrean, bi Goya sari lortu zituztela jakitean. Urte hartan gainera, Pinillos eta Unax Ugalde filmeko protagonista Oñatin izan ziren pelikula eskaini eta ikusleekin iritziak partekatzen.

Xabier Luis munduko txapelketan eta 20 urte Oñatiko probak

[210 ALEA] Oñatiko Triatloi Taldeko Xabier Luis 6. sailkatu zen irailaren 23an Gijonen jokatutako munduko duatloi motzeko txapelketan, 20 eta 24 urte arteko adin tartean. Luisek 1:58:20-tan osatu zuen egin beharreko lana: 10 km korrika, 40 km bizikletan, eta beste 5 km lasterka.

Azpimarratzeko urtea izan zuen duatloiak herrian. Oñatiko duatloi probak 20 urte bete baitzituen; Euskadiko txapelketa izan zen urte hartako lasterketa.

Herriko motor zaleek oso maila ona eman zuten txapelketetan

[212 ALEA] Motor zaletasunak gora egin zuen urte haietan Oñatin, nabarmen gainera. Horren erakusgarri izan zen Euskadiko Enduro eta Crosscountry zirkuituetan izan zen herriko ordezkaritza zabala: Guztira, sei lagun izan baitziren lehiatzen, eta lehen urtea izateko, emaitza oso onak lortu zituzten: Ander Altube bigarren sailkatu zen Euskadiko Crosscountry zirkuituko Junior E2 proban, eta Xabier Arnaiz Espainiako txapelketan izan zen lehiatzen.

1. Laburmetrai rallya eta Lizarralderen lehen filma

[202 ALEA] Zinemaren eta zinema zaleen urtea izan zen. Horren adibide izan zen, esaterako urtarrilean egin zen Oñatiko Laburmetrai Rallyaren lehen edizioa. Parte hartzaileek 10 orduko tartea izan zuten film laburra egiteko. Arrakastatsua izan zen oso lehen edizioa.

Film laburrei lotuta, Iban Lizarralde oñatiarrak ere, urte hartan aurkeztu zuen bere lehen lana: 'Gartzela'. 17 minutuko laburmetraiaren aurre-estreinaldia Oñatiko Kultur Etxean egin zen.

Nazioarteko Trikiti jaialdia ospatu zen

[210 ALEA] Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urtero antolatzen duen Nazioarteko Trikiti jaialdiaren X. festa, Oñatin ospatu zen urte hartan. Lizargarate Trikitizale elkartearen laguntzarekin, hainbat ekitaldi antolatu zituzten urriaren 29 eta 30erako. Besteak beste, trikiti saioez gain, 400 lagunendako afaria eta erromeria izan zen, baita kalejirak ere. Euskal Herriko trikitilari onenez gain, Galizia, Katalunia, Irlanda, Okzitania eta Burgosko soinujoleak ere izan ziren herrian.

2012

UDAL AURREKONTUA

15,8
milioi euro

MOTZEAN

Hileta zibilen ordenantza, onartua

Santa Ana aretoa, barrualdea nahia kanpoaldea, eta kanposantu aurreko parkea hileta zibiletan erabiltzea onartu zuen udalak.

Lope Agirrekoa jaio zela, 500 urte

Urteurrenaren harira, hainbat ekintza antolatu zituen ARTaso taldeak: erakusketak, hitzaldiak, eta film emanaldiak esaterako.

Farmazien gaueko zerbitzua eten zen

Urtarrilaren 1etik aurrera, gaueko zerbitzua eten zuten herriko botikek. Arrasaten zentralizatu zuten zerbitzua horren ordez.

Berrikuntzak Santa Anan eta zineman

Zinema aretoa digitalizatu zuen udalak, eta Santa Anako ekitaldietarako sarrerak internet bidez hartzeko aukera ezarri zuen.

Plazako aparkalekua itxi zuen udalak, jolasgune bilakatzeko

[221 ALEA] Herriko festak amaitu eta barrakak joan ondoren, plazako aparkalekua autoentzat itxi egin zuen udalak behin betikoz, eta, horren ordez, jolas gune gisara egokitu zuen. Zoruan zeuden marrak kendu, eta oinezkoentzako espazio zabal eta seguru bilakatu zen plazaren eta frontoiaren arteko gunea. Galdu ziren 62 aparkaleku plazen ordainetan, kiroldegiko lurpeko aparkalekuan erraztasunak ematea zen udalaren helburua. Horrez gain, larunbatetan ordura arte Santa Marinako plazan egiten zen azoka bertara lekualdatu zuten.

Bestalde, orube haren ondoan kokatzen den Lazarraga jauregiko lorategia ere herritarrei irekitzeko hitzarmena sinatu zuten udalak eta Sotomayorreko dukeak.

Espainiako bandera balkoian jartzera behartu zuten udala

[221 ALEA] Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak irailaren 3an emandako ebazpenak Oñatiko Udala behartu zuen Espainiako bandera modu iraunkorrean jartzera, bai udaletxeko fatxadan eta baita areto nagusian ere. Udalak erabakiaren aurkako helegitea jarri bazuen ere, ia urtebete beranduago Euskadiko Auzitegi Nagusiko Auzi Aretoak ez zion arrazoirik eman. Bandera txiki bat jarri zuten balkoian, ondorioz.

Antixena gaztetxea ireki zuten gazteek

[221 ALEA] Garai bateko Mondragon Unibertsitatearen ostalaritza eskola zenaren erakina gaztetxe bilakatu zuten herriko gazteek, 'Tantaz tanta olatua' ekimenaren ondotik. Antixenako gaztetxea deitu zioten, eta abenduaren 22an ireki zuten ofizialki.

Une berean, Oñatiko Gazte Asanbladak amaitutzat eman zuen bere ibilbidea, eta San Martingo etxe okupatuak gaztetxe izateari utzi zion. OGAren "heriotza" ospatzeko festa bat antolatu zuten apirilaren 5ean.

TRAUTI elkartea eratu zuten

[216 ALEA] Elbarritasun mota desberdinak zituen eta irisgarritasun gaiekin kezkatuta zegoen herritar talde bat elkartu eta 'TRAUTI- Hesirik gabe' elkartea eratu zuten. Herrian egon zitezkeen oztopo arkitektonikoak ezabatu, gaiaren inguruko kontzientziazio lana egin, eta herritar guztientzako herri erosoago eta atseginago baten alde lan egitea zuen xede taldeak. Elkartearen sorreratik udalarekin elkarlanean aritzeko asmoa zutela adierazi zuten TRAUTIko kideek.

Haurren danborradak 30 urte eta Atsolorra ekimen berria jaietan

[220 ETA 221 ALEAK] Haurren danborradak 30 urte bete zituen urte hartan. 1982ko irailaren 22an egin zen aurrenekoz, eta urtez urte haurren ilusioz eta danbor hotsez bete ditu kaleak.

Jaien protagonismoa baina, 'Atsolorra' izeneko ekimen berriarekin partekatu behar izan zuen. Euskal ohitura zahar bat berreskuratu asmoz egindako ekitaldiak, urte hartan jaiotako haurrei eta haien amei onespena eta babesa adierazi zien udalak. Arrakastatsua izan zen oso.

Larrañako kirol gunea berritzeko hitzarmena, sinatua

[222 ALEA] Oñatiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Larrañako kirol gunea berritu eta herritarrei zabaltzeko hitzarmena sinatu zuten. Belar artifizialeko futbol zelai berria egokitu zen bertan. Larrañako ikasleei erabiltzeko lehentasuna eman zitzaien, eskola orduetatik kanpo baina, instalazioari erabilera publikoa eman eta herri osoarekin irekitzea hitzartu zuten udalak eta Larraña institutuak. 2013 urte hasieran ireki zuten.

Garikoitz Baños, Movistarreko masailari

[214 ALEA] Goi mailako txirrindularitzan sartu zen Garikoitz Baños: Movistar taldera batu baitzen masailari gisara. Argentinan jokatu zen San Luis Tourrean egin zuen debuta. Hiru urte lehenago izan zuen baina txirrindularitza profesionalean sartzeko aukera. CEUR enpresa itxi eta langabezian zegoela, Contempolis talderako deitu baitzion Iñaki Urroz oñatiarrak. Espainiako Vueltan parte hartzeko aukera izan zuen orduan.

Debagoienako herriek Oñati epaitu zuten 2. Toberan

[223 ALEA] Debagoieneko herriek Oñati epaitu zuten BAGARA elkartearen ekimenez antolatutako Tobera herri antzerki satirikoan. Oñatiko herriaren inkomunikazioa interesatua dela leporatu zioten gainerako herriek Oñatiri, eta fiskalak herri bakoitzeko lekuko bana aurkeztu zuen akusazioak arrazoitzeko. Oñatiko herriak ere, zortzi lekuko aurkeztu zituen, akusazio haiei aurre egin eta defendatzeko.

Zubikoako pilotalekuan egin zen, eta, denera, 25 aktore izan ziren agertokiaren bueltan. Egoitz Aizpuruk egin zuen oñatiarren defentsa abokatu lanak. Gidoia, Aizpuruk berak eta Idoia Etxeberriak landu zuten, BAGARA elkartekoen laguntzarekin. "Bateratasuna beharrezkoa delako", errudun jo zuten Oñati.

Euskal Herriko itzulia Oñatin amaitu zen

[216 ALEA] Zazpi urte eta gero, Oñatin amaitu zen berriz ere Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia. Apirilaren 6an, Euskadi etorbidean kokatu zen helmugan amaitu zen etapa, eta 7an, berriz, 19km-ko bakarkako erlojupeko erabakigarria jokatu zen. Ibilbide gorabeheratsu eta ikusgarria prestatu zuten antolatzaileek: tartean, San Anton kaleko harbidetik igaro baitziren. Ikustekoa izan zen, halaber, tropela Arregin gora. Samuel Sanchez nagusitu zen.

Atletismo saila, arrakastatsu

[214 ETA 215 ALEAK] Aloña Mendiko korrikalariek lan bikaina egin zuten urtarrilean Lasarten jokatu zen Euskadiko txapelketan. Aloña Mendi bigarrena izan baitzen taldekako sailkapenean, eta, ondorioz, historian lehen aldiz Espainiako kluben arteko kros txapelketarako sailkatu zen.

Bakarkako lanei dagokionez aldiz, Euskadiko kros txapelketa eta pista estaliko Gipuzkoako 1.500 metroko lasterketa irabazi zituen Sergio Garcia 22 urteko korrikalari gazteak.

Juan Zelaia eta Jose de Azpiazu omendu zituzten

[217 ALEA] Hogeita hamar urtez parrokiako organista eta bertako koruko zuzendari eta maisu izan zen Juan Zelaia omendu zuten maia-tzean. Bere iloba Julen Zelaia bibolin joleak parte hartu zuen ekitaldian. Maiatzean berriz, Jose de Azpiazu omendu zuten, jaiotzaren mendeurrenean.

GANBARA ABESBATZA

'A Capella' estatu mailako abesbatzen lehiaketako sari nagusia irabazi zuen, Aitor Biainen zuzendaritzapean.

Sharon Stoner eta Irizarren diskoak, eta Egañaren DVDa

[215, 217 ETA 223 ALEAK] Sharon Stoner taldeak bere estudioko hirugarren lana argitaratu zuen hiru urteko etenaren ondoren: 'Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak'. Era berean, Juan Carlos Irizar musikari eta pianistak ere, 'Oñati eta Oñatiko auzoak' izeneko bilduma plazaratu zuen.

Bestalde, Urko Egañak '11 kantatzeko' izeneko DVDa plazaratu zuen. Bertsotan kontatzeko hamaika ipuin jaso zituen Egañak, bertsolaritza eta literatura batuz.

2013

UDAL AURREKONTUA

16,4
milioi euro

MOTZEAN

Zumeltzegi dorrea hotel bilakatu zuten

Hiru izardun eta 12 logelako hotel bilakatu zuten dorrea Gorostidi-Anduaga sendiak. Bi urteko lanen ostean, maiatzean zabaldu zen.

Oñati-Arrasate bidegorria, zabalik

Maiatzaren 19an inauguratu zuten ofizialki bidegorria. Oñati eta Epele arteko bidea egokitzeak, 3,4 milioi euroko inbertsioa izan zuen.

Zubillagako hiltegia, beste 30 urterako

600 milako euroko inbertsioa egin eta osasun arloko araudira egokituta, beste 30 urterako zerbitzua emateko ireki zuten hiltegia.

Tortura Oñatin eta Fan Hemendik eguna

Euskal Memoria taldeak 'Tortura Oñatin' bideoa aurkeztu zuen. Bestalde, Fan Hemendik eguna ospatu zen lehenengo aldiz.

Atez-ateko zabor bilketa sistema jarri zen martxan

[230 ALEA] Uztailaren 1ean jarri zen martxan atez-ateko zabor bilketa sistema berria. Herriko kaleetatik edukiontziak erretiratuta, etxez etxeko ontzien sistema jarri zen indarrean, hondakinen kudeaketaren aro berri bat irekiaz herrian. Hori horrela, Gipuzkoan atez-ateko sistema martxan jarri zuen 14. herria bilakatu zen Oñati. Birziklatze tasa %30etik %80ra igotzea asmo zuen sistema berriak.

Hondakinei dagokionez, ordura arteko paper eta ontzi arinez gain, errefusa eta organikoa ere bereizten hasi ziren herritarrak. Bilketa berriz, egunean eguneko egutegi eta ordutegi bat zehaztu zen, eta ontziak, kalean jarri ziren zintzilikarioetan jartzera pasa ziren herritarrak.

LAIXANEK AGUR ESAN ZUEN

[231 ALEA] Hogei urteko ibilbidearen ondoren, Laixan euskara elkarteak agur esatea erabaki zuen betiko. Azken lau urteetan jarduna etenda zuen elkarteak, lanerako jenderik ez zegoelako, baina erreleborik ez zegoela ikusita elkartea desegin eta likidatzea erabaki zuen zuzendaritza taldeak. Uztailaren 12an egin zen azken agurreko ekitaldi publikoa. Berria, Seaska, Euskalerria Irratia eta Debaguneren artean banatu zituen ondasunak.

OK-MAGAZINEA jaio zen, herriko kirol agerkari digitala

[226 ALEA] OK-Magazinea, Oñatiko kirol albisteak landuko zituen agerkari digitala eratu zuen Aratz Losadak. Herriko kirolak inguruko hedabideetan presentzia eskasa zuela eta, hutsune hori bete asmo zuen Losadak. Egunero, herri mailako kirolarekin lotutako albiste, elkarrizketa zein erreportajeak jorratuko zituen, euskara hutsean. Testua landuaz gain baina, irratiko elkarrizketak audio erako podcastak edota bideo elkarrizketak ere izango zituen. Baita hemeroteka txiki bat ere.

Herri mailan sortzen ziren albiste, ekimen, deialdi, txapelketa edota emaitzen erakusleiho izatea zuen helburu agerkariak hala. Baina, batez ere, herriko kirolari eta kirolzale guztien elkargune izan asmo zuen.

Oñatiko inauteri propioak sortu ziren Oñatzen ekimenez

[224 ALEA] Inauteri festak indar handia hartu zuen Oñatin azken urteetan. Bada, ordura arte, Euskal Herriko txoko ezberdinetako inauteriak ospatu izan ziren. Herritarren parte hartzea gero eta handiagoa zenez, Oñatiko inauteri propioak sortzea erabaki zuen Oñatz dantza taldeak hainbat herritarren laguntzarekin. Hala, bertan sortutako jantzi, musika, dantza eta pertsonaiak izango ziren protagonista aurrerantzean.

Aurrekaririk gabeko jaiak izan dira karnabalak Oñatin, nahiz eta jakin XIX. mende bukeran eta XX. mende hasieran ospatzen zirela dagoeneko. Antonino eta Iñaxio Ibarrondok sortu zuten musika, eta dantza berriz, Oñatzek prestatu zuen. Pertsonaia propioei dagokionez, kondea eta kondesa izatea ebatzi zuten.

Ikurrinari gorespena, inposizioa dela eta

[234 ALEA] Madrileko gobernuak aginduta eta Euskadiko Auzitegi Gorenak berretsita, Espainiako bandera udaletxeko balkoian jartzera behartu zuten udala. Inposizio horren aurrean, 'Gurea ikurrina, inposiziorik ez' lelopean omenaldia egin zitzaion ikurrinari, euskal herritarren nortasun eta identitate ikurrak babestu eta zabaltzeko konpromisoa udalbatzak aho batez onartu ostean. Udaletxeko areto nagusiaren sarreran plaka bat jarri zen, haren alde lan egin zuten guztien omenez.

URGAIN: Herriko ikastetxe publikoen sare berria

[224 ALEA] Herriko lau ikastetxe publikoek aspaldi hasitako elkarlanean urrats berri bat eman zuten, partekatzen zituzten kolaborazio eta koordinazio guneei sare izaera emanez. Sare horri izen eta irudi berri bat jarri zioten: URGAIN. Txiki Txoko haur eskola, Errekalde Herri Eskola, Zuazola-Larraña institutua eta Helduen Eskolak osatzen dute ikastetxe publikoen sarea.

Urte hartan, hain zuzen, 50 urte bete zituen Zuazola institutuak.

Murgialdaiko txakolina merkaturatu zuten

[228 ALEA] Sei urteko lanaren ondoren, Murgialdaiko txakolina aurkeztu zuten. Baserriaren izena daraman ardoak, 'Getariako Txakolina' jatorri-izendapenaren barruan merkaturatu zuten.

2007an hasi ziren Murgialdai baserrian mahastiak landatzen. Ordura arte baina, Getariako Ulacia txakolindegiari saltzen zioten mahatsa. Aspaldiko ohitura berreskuratzeaz gain, aurretik landatzen zen hiru mahats mota ezberdin ere berreskuratu zituzten.

Natra-Oñati, EBA ligako txapeldun

[228 ALEA] Aloña Mendiko saskibaloiko gizonezkoen talde nagusiak inoizko lorpenik handiena eskuratu zuen: EBA mailako liga txapelketa irabazi baitzuen. Horrekin batera, Zilarrezko LEB mailarako (estatu mailako hirugarren kategoria) igoera fasea jokatzeko aukera irabazi zuen Natra-Oñati taldeak.

Eneko Blancok zuzentzen zuen taldeak denboraldi biribila burutu zuen, Zubikoako zaletuen babesarekin ordea, lorpena historiko bilakatu zuten.

Narrarte Off-Road, herriko motor zaleen kluba eratu zen

[230 ALEA] Herriko motorzaleak elkartu eta 'Narrarte Off-Road' izeneko kluba eratu zuten. Motor zaletasun handiari erantzuteko, Euskadiko Crosscountry proba bat antolatu asmo zuten zaleen gozamenerako.

Kluba sortzeaz gain, entrenatu ahal izateko terreno edo sail bat ere eskatu zioten Udalari. Aizkorri-Aratzeko parke naturalaren izendapenarekin, basoan lasai ibili ahal izateko gero eta aukera gutxiago zutela argudiatzen baitzuten.

Euskal Herriko Musika Eskolen festa Oñatin izan zen

[227 ALEA] Bi urtetik behin ospatzen den Musikaldia festak, Oñatin izan zuen geldialdia apirilaren 27an, Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatuta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin batera. Guztira, 2.500 musikarik hartu zituzten herriko kaleak. Gainera, Oñatiko Musika Eskolak 25 urte bete zituen 2013/2014 ikasturtean.

JOSU ZUBIA.

'Argitzal izeneko bere lehen diskoa plazaratu zuen Josu Zubia bakarlariak.

Urruzuno saria Itziar Ugarterentzat

[229 ALEA] Pedro Migel Urruzuno literatur saria jaso zuen Itziar Ugarte Txantxiku Ikastolako Batxilergoko 2. mailako ikasleak, hirugarren urtez jarraian. Prosan eta poesian aurkeztutako bi lanek irabazi zuten lehen saria. Aurreko bi edizioetan, poesiari zegokion lehen sariak irabazi zituen.

ALDEKOA ETA ETXEGOIEN

Iñaki Aldekoa idazle eta editorea euskaltzain urgazle izendatu zuten. Fermin Etxegoienek, berriz, bigarren eleberria, 'Zinegotzia' argitaratu zuen: 'Zinegotzia'.

2014

UDAL AURREKONTUA

16,9
milioi euro

MOTZEAN

Galtzada auzolanean eraberritua

▪ Garagaltzako Antxiñako Leintz Bidea berritu zuten auzolanean, udalaren laguntzarekin. Bertako harria berrerabili zuten.

Juan Kruz Maiztegi 'Aloña', etxera

▪ Oñatitik ihes egin zuela 40 urte pasa ondoren, erbestetik sorterrira itzultzea erabaki zuen Juan Kruz Maiztegi Aloña-k.

Saharatik kanporatu zituzten bi brigadista

▪ Askapenako brigadista gisa joan ziren Saharako lurralde okupatura Zurutuza eta Etxeberria; Marokoko poliziak kanporatu zituzten.

Maria Irizar izena hartu zuen kaleak

▪ Ordura arte 'Apaolaza alarguna' izena zeraman kaleak, Maria Irizar izena hartu zuen, berdintasunaren aldeko neurri gisa.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA, ALDARRIKAPENA ETA FESTA

[236 ETA 240 ALEAK] Oñatiko Gure Esku Dago ekimenak deituta erabakitzeko eskubidearen aldeko Oñatiko adierazpena plazaratu zen urtarrilaren 25ean, Sancti Spiritus unibertsitatean egin zen ekitaldian. Ideia eta pentsakera ezberdineko ehunka herritarrek bat egin zuten aldarrikapenarekin: Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea dauka.

Hain zuzen, eta horri lotuta, Gure Esku Dago ekimenak antolatutako Durango eta Iruñea arteko giza-katea burutu zen ekainaren 8an. Arrasate eta Bergara arteko tartea bete zuten oñatiarrek. Guztira, milatik gora lagun bildu ziren festa eta aldarrikapenak bat egin zuten ekimenean.

TXANTXIA moneta soziala, martxan

[243 ALEA] Herriko merkataritza dinamizatzeko helburuarekin jarri zen moneta sozialaren proiektua abian. Txantxi izena hartu zuen eta herriko 86 establezimenduren parte hartzearekin jarri zen martxan. Urriaren 1ean sartu zen zirkulazioan.

Euro batek txantxi baten balioa zuen, eta 0,10, 0,50, 1, 5, 10 eta 20ko billeteak kaleratu ziren. Urtean lau iraungitze data zuen monetak, eta erabilerari esker %5eko hobaria zuen erabiltzaileak.

Genero ikuspegitik hobetu beharreko puntuen mapa

[239 ALEA] Emakumeen ikuspuntutik hobetu beharreko 200 puntu identifikatu, eta guzti horiekin mapa bat osatu zuen udalak 'Hirigintza eta Generoa' egitasmoaren baitan. Herriko txokoak emakumeen begi eta beharretatik aztertu ziren: segurtasuna, mugikortasuna, irisgarritasuna eta adierazpen sinbolikoa bezalako alderdiei erreparatuz, besteak beste. Horrez gain, tratu txarren aurkako gida kaleratu zuen udalak urte hartan.

30.000 argazki, herritarren eskura

[235 ALEA] Udal Artxiboko Oñatiko argazki zaharren bilduma ezberdinak digitalizatu eta herritarren eskura jarri zuen Udalak. Guztira 30.000 argazki, XX. mende hasierakoak, 'Oñatiko Historia eta Arte Bilduma' liburutik ateratakoak, edota Jesus Mari Arzuaga eta Andres Arlanzonek udalaren esku utzitakoak, besteak beste.

Argazkiak kontsultatzeko gune bateratu bat egokitu zen udaletxeko goiko solairuan, artxibategiaren ondoan; ordenagailu bat ere jarri zen herritarren eskura.

TXOKOLATEIXIA zabaldu zen

[243 ALEA] Uztailean zabaldu zuen Txokolateixiak Interpretazio Zentro berria, Kale Barria 29an, garai bateko Chocolates Orbea lantegia egon zen leku berean. Oñatiko txokolatearen historia berreskuratu eta zabaltzea asmo zuen zentroak, aspaldiko tradizioa bizirik mantentzearekin batera.

Museo txiki bat ezarri zuen Anton Azpiazuk bertan, txokolatearen eta herriaren lotura azaltzen zuena: lantegiak, markak, ... Denda txiki bat ere jarri zen, Natrako produktuekin.

Odriozola eta Diaz protagonista igeriketan

[237 ALEA] Aloña Mendiko igerilariek maila bikaina erakutsi zuten, beste urte batez. Alde batetik, Josune Odriozolak bost domina eskuratu zituen Espainiako txapelketan; urrez ko bi eta zilarrezko hiru. Bestetik, Nerea Diazek beste hiru domina eskuratu zituen, baita Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxieneko hiru denbora ere. Emaitza bikainekin hasi zuten horrela, hurrengo urteko denboraldia. Sailak 30 urte bete baitzituen.

Iban Letamendi 3. Espainiako Kopan

[238 ALEA] Iban Letamendi Euskal Selekzioko korrikalaria 3. sailkatu zen Espainiako Kopako lehen proba puntuagarrian. Bartzelonan jokatu zen mendi maratoia (42 km. eta +3.000 m.), eta 3 ordu eta 58 minututan osatu zuen. Euskal Selekzioko korrikalarien artean azkarrena zen orduan.

MIKEL PALACIN.
Espainiako Kenpo txapelketa irabazi zuen 'Kontaktua puntura' modalitatean, +85 kilokoen mailan.

'Oñatiko Euskeria' liburua

[240 ALEA] 'Oñatiko Euskeria. Ezagutu, aztartu, egin' izeneko liburua argitaratu zuten Kepa Elortza, Roberto Altuna eta Koldo Zumaldek, udalaren eta Badihardugu elkartearen laguntzarekin. Hamabost urtetan egindako lanaren fruitua izan zen liburua eta hiru helburu nagusi izan zituen: Herriko euskaraz berba egin eta idazterakoan izaten diren zalantzak argitzea; euskararen transmisio egokia bermatzea; eta, herriko euskara maila formalera jasotzea.

Antonino Ibarrondo jaio zela, 100 urte

[240 ALEA] Ekainaren 12an bete ziren ehun urte Antonino Ibarrondo (1914-1985) jaio zela. Hori gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu ziren. Bere biografia eta obra ezagunen antologia argitaratu ziren, eta urte hartako Musikegunak Jardunaldiak Antoninori eskainita egon ziren. Oñatiko Filatelia taldeak ere haren omenezko seilua eta postala atera zituen. Lan handia egin zuen musika sortzen eta irakasten, eta Oñati, Sestao eta Bilboko bandak zuzendu zituen.

Itxaso Egañak eskubaloia utzi zuen

[235 ALEA] Ia 13 urte goi mailan jokatzen aritu ondoren, eskubaloia uztea erabaki zuen Itxaso Egañak. Aloña Mendiko harrobian hazi eta 18 urterekin Donostiako Bera Bera taldera egin zuen salto Egañak; bertan egin zuen debuta ohorezko mailan, eta, besteak beste, EHF Kopan jokatzeko aukera ere izan zuen. Granadako Iznalloz edota Santanderreko Marina Park taldeetan aritu ondoren, Katalunian, zilarrezko ligan eman zituen azken urteak. Oñatiko kirol sarietan omendua izan zen.

Ganbarak 'Amaraun' CD-a kaleratu zuen 20. urteurrenean

[236 ALEA] Ganbara Abesbatzak 20 urte bete zituen urte hartan, eta urtemuga ospatzeko 'Amaraun' izeneko lana plazaratu zuen. Hamazazpi kantuk osatzen zuten bilduma, estilo ezberdinekoak guztiak ere: euskal folklorea, gospela, polifonia...

Urteurrena borobiltzeko, Espainiako Gran Premio Nacional de Canto lehiaketa irabazi zuen Aitor Biainek zuzentzen zuen abesbatzak, bigarrengoz. Carmina Burana abestu zuten.

Arregiren txapelak eta Urko Egañaren liburua aipagai

[241 ALEA] Hilabeteren buruan bi txapen jantzi zituen Maider Arregi bertsolari gazteak: Gipuzkoako Eskolartekoa maiatzaren 25ean, Arrasaten, lehenik, eta Euskal Herrikoa ekainaren 21ean, Orion, ondoren. Halaber, azpimarratzekoa izan zen minbiziaz hil zen haren lagun Olatz Zabarteri eskaini zion txapela eta azken agurreko bertsoa.

Horrez gain, eta herriko bertsolaritzari lotuta, 'Oñatiko hitzen altxorra' liburua idatzi zuen Urko Egañak.

'Iparragirre Oñatin' eta 'Euskara, añubea eta eguzkibegixa'

[242 ETA 243 ALEAK] Denbora tarte laburrean bi ikuskizun taularatu ziren herrian; biak herritarrek sortu eta gorpuztuak. 'Iparragirre Oñatin' antzezlana aurkeztu zuten Olaitturi elkarteko kideek lehenik. Urretxuko musikariak Oñatin izandako gorabeherak jasotzen zituen antzezlanak. Bestetik, herriko Euskal Memoria Taldearen ekimenez, 'Euskara, añubea eta eguzkibegixa' ikuskizuna taularatu zen. Euskarak jasandako errepresioa zuen hizpide.

2015

UDAL AURREKONTUA

16,7
milioi euro

MOTZEAN

Susana Arregi hil zutela, 25 urte

▪ 25 urte bete ziren Irunberriko arroilan Susana Arregi hilda agertu zela. Hainbat ekitaldi antolatu ziren haren oroimenez.

Alberto Plazaola 'Aitto', aske

▪ Hogeita lau urte preso egon ondoren, aske geratu zen 'Aitto'. Abenduaren 4an iritsi zen Oñatira eta harrera beroa jaso zuen.

Realzaleen oñatiko peña aurkeztu zuten

▪ Oñatiko realzaleen peña berria ofizialki aurkeztu zuten: Txantxiku Txuriurdinak. Iñigo Martinez jokalaria babestuko zuen taldeak.

Tenis pistari estalkia jarri zioten

▪ Estalkia eta zoru sintetiko berria jarri zioten Zubikoa kiroldegiko tenis pistetako bati. Argiteria berria ere ezarri zioten.

Gazte lokalen ordenantza eta etxe-alokairurako laguntzak

[249 ETA 254 ALEAK] Gazte taldeen aisialdirako lokalek bete beharreko baldintzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen udalbatzak irraileko osoko bilkuran. Bertan jasotzen dira, besteak beste, hirigintza mailan, segurtasunean, garbitasunean edo zarata mailari eta ordutegiari dagokionean lokalak bete beharreko baldintzak. Urtebeteko epea jarri zuen udalak lokalak erregularizatzeko.

Gazteei lotuta, horrez gain, emantzipazioan laguntzeko, eta, konkretuki, alokairurako etxebizitza bat eskuratzeko diru laguntzen araudia ere onartu zuen udalak urte hartan. 18 eta 30 urte arteko gaztei zuzenduta zegoen, eta hileko alokairu prezioaren %50ari zegokion laguntza bermatu asmo zuten.

EH Bildu garaile, bigarrengoz

[251 ALEA] EH Bilduk irabazi zituen udal hauteskundeak, bigarrengo aldiz jarraian. Koalizioak 3.137 bozka jaso zituen (%51,98), eta, ondorioz, Mikel Biain izendatu zuten alkate beste agintaldi baterako. EAJ-k, aldiz, 2.475 boto jaso zituen, 214 PSE-EE-k eta 88 PP-k. 2.795 abstentzio izan ziren.

EH Bilduk bada, 17 zinegotzietatik 10 bereganatu zituen, eta gehiengo absolutuari eutsi zion. EAJ-k eskuratu zituen gainerako zinegotziak.

Aldakiño bidea egokitu zuen udalak

[246 ALEA] Olakua eta San Martin auzoen arteko Aldakiño izenez ezaguna den bidezidorra berritu zuen udalak. Bi auzoak beti egon dira elkarrengandik gertu, baina bide berriari esker, are gertuago daude orain.

Lurrean 1,5 metroko zabalera duen hormigoizko bidezidorra egokitu zuten, Natur Eskola parean hasi eta San Martingo etxalderaino. Aspaldiko bidea baliatu zuten zatirik handienean, eta bi lekutan bihurguneak egokitu behar izan zituzten. Barandak ere jarri zituzten.

Bixente Atxa, MUko errektore izendatua

[249 ALEA] Bixente Atxa oñatiarra izendatu zuten Mondragon Unibertsitateko errektore gisa, Josu Zabalari lekukoa hartuta. Urte berriarekin batera hartu zuen kargua. Aurretik, Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria ere izan zen zortzi urtez.

Elektronikako ingeniaritza egin zuen Atxak Arrasteko Goi Eskola Politeknikoan, eta Goi Mailako Ingeniaritza Elektronikoa Bartzelonako Lull Unibertsitatean. Doktorego titulua, aldiz, Erresuma Batuko Staffordshireko Unibertsitatean atera zuen.

Arrano elkartea ez konfiskatzea ebatzi zuen Gorenak

[252 ALEA] Herriko Tabernen 35/02 auzian Auzitegi Nazionalak urtebete lehenago ebatzitako sententzia ia bere osotasunean berretsi zuen Auzitegi Gorenak urte hartan, 101 herriko taberna eta elkarte konfiskatzeko agindua emanez. Kale borrokarako azpiegitura gisa erabiltzea egotzi zien auzitegiak. Oñatiko Arranoren kasuan, ordea, Gorgomendi Elkarteak jarritako helegitea onartu, eta, ondorioz, haren ondasunen konfiskazioa indargabetu zuen.

Herri arteko pilota txapelketan, 15 urteren ondoren

[250 ALEA] Hamabost urtetan ordezkaritzarik izan gabe eman ondoren, Herri Arteko pilota txapelketan parte hartu zuen Oñatik berriz ere. Hala, Oñati-Bidania izan zen jokatu zuen lehen kanporaketa urte hartan. Aloña Mendiko Pilota saila egiten ari zen lan onaren erakusgarri izan zen. Lan ona egindakoa da lehendik ere Oñati txapelketan; 80ko hamarkadan lau final jokatu baitzuen. Jokatutako guztiak galdu zituen, ordea.

Urrutia eta Ibabe, sega txapelketetan

[253 ALEA] Loiolako santutegiko zelaian jokatu zen Europako sega txapelketan parte hartu zuen Andoni Urrutia 25 urte gazte oñatiarrak. Alemania, Austria, Hego Tirol, Eslovenia eta Euskal Herriko 92 segalari aritu ziren nor baino nor. 17. postuan sailkatu zen Urrutia, euskal selekzioko ordezkarien artean bigarren. Enaitz Ibabe, aldiz, Europako txapeldun izan zen 16 urtetik beherakoen promozio txapelketan. Hura ere Azpeitian jokatu zen.

IRAZAN Antzerki Gunea eratu zuten

[251 ALEA] Herriko antzerki zaletasunari bizia eman asmoz sortu zuten Itziar Arkauz, Josu Zubia, Nerea Ormazabal eta Maider Igartua gazteek Irazan Antzerki Gunea. Antzerkiaz gozatu eta elkarrekin ikasteko xedearekin eratu zuten taldea. Adin guztietako herritarrei irekia izan zen, eta, hain zuzen, adinaren araberako bi talde sortu ziren; gazteena eta helduena. Eskola tradizionaletik haragoko proiektua izan zen, auzolanean sortu eta aurrera eramana.

Historia liburuak eta eleberriak

[255 ALEA] Artixa taldeak, Lizargarate elkartearen 50. urteurrenaren harira **'Aurrekomendiko kontuak'** liburua argitaratu zuen.

Bestalde, Jose Antonio Azpiazu historialariak **'Y los vascos se echaron al mar'** liburua plazaratu zuen.

Jose Ramon Arrazolak **'Historias de San Cristóbal de Olabarrieta en Oñati'** liburua kaleratu zuen.

Fermin Etxegoien kazetari eta idazleak gazteentzako **'Urpekariak'** eleberria argitaratu zuen.

Isasti, Arkonada eta Garai, protagonista

[251 ETA 253 ALEAK] SoplaoMan (Kantabria) Ironmana irabazi zuen Argider Isastik maiatzean. 10km igerian, 75 korrika eta 110km bizikletan egin beharreko proba, 20 ordu eta 21 minututan amaitu zuen. Iokin Garai Kulum Sport taldeko korrikalariak, berriz, G2H Goierriko Bi Handiak lasterketan gailenduta, Euskal Herriko Ultra Trail txapelketa irabazi zuen, probako errekorra ezarriz: 10 ordu, 13 minutu eta 50 segundo. Saioa Arkonadak, aldiz, Ituberoko Krosa irabazi zuen.

URZULO, Bilboko Mendi Film Festivalen nagusi

[257 ALEA] Aloña Mendi Espeleologia Taldearen URZULO filma Bilboko Mendi Film Festivaleko sail ofizialean lehiatzeko aukeratua izan zen. Xanti Ugartek zuzendutako filmak gainera, euskarazko pelikula onenaren saria ere jaso zuen. Garaikurra eta 1.000 euroko saria jaso zituen.

'LOREAK' FILMA. Aitor Arregi zinegilearen Moriarti etxeak ekoiztutako 'Loreak' filma Goya sarietarako hautagaia izan zen. Gidoilari lanak egin zituena oñatiarrak.

Andoni Goitia garaile herriko bertsolari txapelketan

[246 ALEA] Andoni Goitiak jantzi zuen Oñatiko Bertsolari Txapelketako txapela. Aurreko txapelketetan bigarren eta hirugarren postuetan amaitu ondoren, merezita irabazi zuen Goitiak. Saio bikaina egin zuen Goitiak Gaztelekuan jokatutako finalean, eta bera izan zen sei finalisten artean onena. Gorka Larrearekin aritu zen buruz-burukoan, eta Egoitz Aizpuru, Maider Arregi, Urko Egaña eta Jose Lasagabaster izan ziren ondorengo sailkatuak hurrenez hurren.

Altxorraren Uhartea, Ganbara Txikiren musikala

[246 ALEA] Ganbara Txiki taldeak 10 urte bete zituen, eta ospakizunerako erronka gisa taularatu zuten Altxorraren Uhartea izeneko musikala. Louis Stevensonen abentura eleberrian oinarritutako ikuskizuna plazaratu zuten Broadway estilora eginda gainera: musika, dantza eta dekoratu ikusgarriekin. Taldeko 36 haurrak zein bi nagusi izan ziren protagonista oholtzan. Atzean, ordea, 52 laguneko guraso taldea aritu zen ardura teknikoekin.

2016

UDAL AURREKONTUA

19,8
milioi euro

MOTZEAN

Herribusa eta auzo-taxia

▪ Herriguneko autobus zerbitzua ipini zuen udalak Ugarkalde eta Kasablanka artean, eta auzo-taxia landa auzoetako bizilagunentzat.

San Juan Artian, XII. mendeko aztarnak

▪ XII-XIII.mendekoak izan daitezkeen zeramika zatiak eta giza-hezurrak aurkitu zituzten San Juan Artian egindako indusketa batean.

Kale garbiketa, udalaren esku

▪ Kale garbiketa zerbitzua ematen zuen FCC enpresaren kontratua eten eta kale garbiketa udalaren ardura izatera igaro zen.

Edurne Galarza Elgetan omendua

▪ Emakume erresistente eta errepresialiatuak omendu zituen 'Intxorta 1937' elkarteak Elgetan, tartean Edurne Galarza oñatiarra.

Estatus politikoaren gaineko herri galdeketa egin zen

[261 ALEA] Gure Esku Dago ekimenaren baitan, Erain Debagoiena taldeak deituta, estatus politikoaren inguruko herri galdeketa burutu zen Oñatin, bailarako beste herrietan egin moduan. Hasiera batean, ekainaren 12rako aurreikusita bazegoen ere, ekainaren 5an izan zen, hauteskunde kanpaina zela eta. Oñatin bertan, 1.600 sinadura jaso ziren galdeketa babesteko. Galdera, hauxe: 'Nahi al duzu izan Euskal estatu independente bateko herritar?' Hiru bozkaleku jarri ziren: Garoa aretoan, Urbia elkartean eta Olakua 7ko lokalean. Festa eta aldarrikapena nagusitu ziren egun guztian zehar. Guztira 3.371 herritarrek bozkatu zuten (%35,68): horietatik 3.232 bozka (%95,88) baiezkoak izan ziren; 100 (%2,97), aldiz, ezezkoak.

Oinezkoentzat egokitzeko lanak, Atzeko kalen

[262 ALEA] Atzeko kale oinezkoentzat egokitzeko lanak hasi zituzten. Kalearen goiko partean egin bezala, plataforma bakarra ezarri zuten kale osoan, espaloia eta galtzada altura berean kokatuta. Horrekin batera, Kale Barriarekin lotzen duten hiru kale-kantoiak ere egokitu zituzten. Ez zen aldaketa bakarra izan. Araututako aparkaleku sistema berria ere ezarri baitzen: errotazio aparkalekuak jarri ziren herrigunean.

50 urte Arrikrutzeko lehoiaren hezurdura aurkitu zutela

[259 ALEA] Arrikrutz-Oñatiko kobako leize-lehoiaren hezurdura osoa aurkitu zutela 50 urte bete ziren. Arantzazun ikasten ari ziren bi ikaskidek aurkitu zuten hezurdura, koba barruan orduak galduta eman ondoren. Penintsulan osorik aurkitu den hezurdura bakarra da. Urtemugaren harira, hainbat ekitaldi antolatu ziren; tartean aztarnategira bisita. 2017an, hain zuzen, 10 urte beteko ziren Arrikrutzeko kobak publikoari zabaldu zirela.

Azken kontainerra Argentinara

[262 ALEA] Hermansoloña taldeak azken laguntza kontainerra bidali zuen Argentinara. Guztira, 15 tona material: arropa, oinetakoak, liburuak, jostailuak, eskola materiala... 15 urte lehenago hasi zen Hermansoloña taldea Oñatirekin anaituta dagoen Jose C. Paz herriko Euskal Etxearekin elkarlanean, eta ordutik 35 laguntza kontainer bidali zituen. Azken urteetan gobernuak jarritako oztopo burokratikoen ondorioz, uztea erabaki zuten. Beste proiektuek aurrera jarraitzen dute.

Selma Huxley-ri omenaldia eta beka

[261 ALEA] Selma Huxley ikertzaile britainiar- kanadarra Oñatin izan zen, eta haren seme Michael Barkhamek hitzaldia eskaini zuen Sancti Spiritus unibertsitatean, amak Oñatin ikertzen eman zituen garaien inguruko kontuen gainean. Bisita hura baliatuta, omenaldia egin zion udalak Huxleyri. Hunkituta jaso zuen. Hain zuzen, une hori baliatu zuen Mikel Biain alkateak haren izena daraman udalaren bekaren berri emateko. Historia genero ikuspegitik aztertzeko balioko du.

Hiru domina Elorzak, sokatiran

[259 ALEA] Ione Elorzak hiru domina eskuratu zituen otsailean Volendamen (Herbehereak) jokatutako kluben eta nazioen arteko goma gaineko munduko sokatira txapelketan. Gasteizko Badaiotz bere taldearekin zilarrezkoa lortu zuen 500 kilokoan, Txina-Taipeiren aurka finalean galduta. Euskadiko selekzioarekin, berriz, brontzezko bi eskuratu zituen 500 eta 540 kilokoetan. Lehen aldiz lehiatu zuen Euskadiko selekzioak ofizialki txapelketan.

Erostarbe, Euskal Herriko bloke txapelketan garaile

[260 ALEA] Ane Erostarbe eskalatzaileak Euskal Herriko Bloke txapelketa irabazi zuen, emakumezkoen 18 urtez azpikoen kategorian. Zortzi urte zituenetik ari da oñatiarra eskalada munduan, paretatik zintzilik. Joxean Mulas eta Ruper Ayalaren esanetara hasi zen entrenatzen irailaz geroztik, Aretxabaletako teknifikazio eskolan. Bere kategorian, sailkapen fasean zein finalean, bloke gehien osatu zituen eskalatzailea izan zen.

'2057. Odisea bat kanposantuan' filma errodatu zuten

[264 ALEA] Auzolana eta herrigintza oinarri hartuta egindako '2057. Odisea bat kanposantuan' filma estreinatu zen txosna gunean, San Migel egunez. Kepa Aranburuk zuzendutako filmean, 80 aktorek, 100 bat figurantek eta 40 laguneko lan taldeak parte hartu zuten.
JOSEBA ARREGI. 'Burdin elorri arantzetan' liburua plazaratu zuen Joseba Arregi 'Azpilleta'k kartzelatik, bere margolanak eta gogoetak bilduz.

Agur Errockalde; Kaixo Musika Eltzia

[260 ALEA] Herriko musikarien urteetako ametsa eta eskaria, egi bilakatu zen azkenerako. Errekaldeko Herri Eskolako sotoko lokalak utzi, eta ETEO zaharrean egokitutako Musika ELTZIAko lokal berrietara pasa baitziren. Hamar lokal berri egokitu ziren bertan, behar bezala intsonorizatuta, eta 41 musika taldek partekatuko zuten hasiera batean. Edonola ere, orbain nabarmena utzi zuen Errockaldek oñatiko musikagintzari dagokionez.

Maider Usandizaga Euskadiko txapeldun rallysprintean

[265 ALEA] Ekain Eizagaetxeberria getariarraren kopilotu gisa Euskadiko Rallysprint txapelketa irabazi zuen Maider Usandizagak, formula libreen kategorian. Urtean zehar jokatutako zortzi probetatik bost irabazita zituzten, eta 125 punturen aldea atera zieten bigarren sailkatuari.
GIMNASIA ERRITMIKOA. Aloña Mendiko Gimnasia erritmikoko sailak 25 urte bete zituen. Besteak beste, Almudena Cid gonbidatu zuten urteurrenaren harira.

Txirrindularitza sailak 50 urte bete zituen

[259 ALEA] Aloña Mendiko txirrindularitza sailak 50 urte bete zituen. Urtemuga ospatzeko, hainbat ekitaldi izan ziren: hitzaldiak, erakusketak, bazkari herrikoiak... Oñatiko txirrindularitzaren historia biltzen duen liburua ere kaleratu zuten, Eneko Azurmendi kazetariak idatzia.
XABIER MURGIONDO. Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi zuen junior mailan, eta bigarren sailkatu zen Euskadikoan eta Gipuzkoako Itzulian.

Herriko musika taldeen disko berriak aipagai

[258 ETA 259 ALEAK] Lenao, Zingira eta Miren, Agur eta Oierrek disko bana argitaratu zuten. Lenaok bere lehen estudioko lana argitaratu zuen, rock melodikoaren aldeko apustua eginda. Zingira, berriz, Iñigo Ibarrondok sortutako proiektu musikala izan zen, berak bakarrik sortu eta grabatu baitzituen lehen bildumako kanta ia guztiak. Azkenik, Miren, Agur eta Oierrek 12 urtetako ibilbidea borobildu asmoz plazaratu zuten 'Ametsak Margotuz' diskoa.

Emusik Europako Musika Eskolen jaia Oñatin egin zen

[261 ALEA] Emusik Europako Musika Eskolen XII. jaialdia Oñatin ospatu zen maiatzean, Donostia Kultur Hiriburutzaren barruan. Alemania, Suitza, Letonia edota Albaceteko 8.500 musikari inguru etorri ziren Euskal Herrira. Oñatin bi kontzertu egin ziren.
OÑATI ABESBATZA.
50 urte bete zituen Oñati Abesbatzak. Kontzertu berezi batekin, eta mende erdiko ibilbidearen lekuko zen erakusketa batekin ospatu zuten.

2017

UDAL AURREKONTUA

18,3
milioi euro

MOTZEAN

100 urte bete zituen Gernikako arbolak

▪ 1917ko otsailaren 2an landatu zuten Gernikako Arbolaren kimua, oñatiarrek foruekiko zuten errespetuaren ikur gisa.

Autokarabanen guneak, aitorpena

▪ Alemaniako ADAC gidaren gorengo mailako errekonozimendua jaso zuen San Martingo autokarabanen guneak.

Ur parkea, skate gunea eta tirolina

▪ Ur uhinak izeneko jolas parkea egokitu zen Eltzia pareko berdegunean. Ibarran berriz skate gunea eta tirolina bat jarri ziren.

Manises-eko seme kuttun izendatuak

▪ Antonio Garai eta Jose Luis Lazkanoiturbu Manises-eko (Valentzia) seme kuttun izendatu zituzten, egindako lana eskertzeko.

KILOMETROAK jaia Oñatin egin zen 'Lekaixoka' lemapean

[275 ALEA] Gipuzkoako Ikastolen aldeko KILOMETROAK jaia Oñatin ospatu zen 'Lekaixoka' lemapean. Bigarrengo aldiz izan zen jaia herrian antolatu zela; aurrekoa, 1989an izan zen. Urte guztian zehar hainbat ekimen antolatu ostean, jaia borobildu zuen irailaren 24ko festak. Lau gune izan zituen ibilbideak –89koaren aurkako noranzkoan izan zen ibilbidea–: Ikastola-Plaza, San Martin, Asentzio eta Berezao. Lehen orduetako trafiko arazo txikiez gaindi, jai egun boribila izan zen. Eguraldia lagun, milaka euskaltzale hurbildu baitziren herrira.

Urte berean gainera, Txantxiku Ikastolak 50 urte bete zituen. Hori baliatuta, logo berriak aurkeztu zituen, eta ikastolaren historia laburtzen duen liburua ere argitaratu zuen.

Oñatiko Herri Curriculuma, abian

[269 ALEA] Oñatiko Udaleko Hezkuntza sailak eta herriko ikastetxeek, Euskaltzaleen Topagunearen laguntzarekin, Herri Curriculuma osatzen hasi ziren. Oñatiko kultur ondarearen transmisioa bermatzea zuen helburu, eta horretarako propio sortu asmo zituzten unitate didaktikoak. Hezkuntza alorreko aktoreez gain baina, herritar ororen parte hartzea ere sustatu nahi izan zuen udalak. 'Hurretik' izena jarri zioten proiektuari.

Coworking gunea jarri zen Olakuan

[277 ALEA] Enpresa ideia berriak dituzten ekintzaileen arteko sinergiak sustatzeko helburu duen Cowork Gunea egokitu zuen Udalak Olakuako dorreko lehen solairuan. OLALAN gunea jarri zioten izena. Ekintzaileei, autonomoei eta mikroenpresei zuzendutako espazioa da, azken helburu gisa, enplegua eta aberastasuna sortzea duelarik.

Hain zuzen, ekintzailetasuna sustatzeko lankidetza hitzarmena sinatu zuten Udalak eta MUren Enpresagintza fakultateak.

Karitatezko ahizpak herritik joan ziren, 150 urteren ostean

[268 ALEA] 150 urtez oñatiarren zerbitzura lan egin ondoren, Karitatezko mojak joan egin ziren herritik. 1864an iritsi ziren Oñatira, haur eta gaztetxoei eskola eman eta ospitale zaharreko ardura izan zuten. 1974az geroztik, San Martin egoitzaren ardura zuten. Gizarte Zerbitzuen Lege aldaketa dela eta, kudeaketa uztea egokitu zaie ahizpei.

Urteetako lana eskertzeko xedez, liburu bat argitaratu zuten Iñaxio Irizar eta Carlos Agirrebengoak.

Oñatiko Bizkotxoa errekuperatu zuten

[275 ALEA] XIX. mendeko Oñatiko Bizkotxoa errekuperatu zuen Anton Azpiazuk, Raul Fernandez gozogilearekin eta Artixa kultur elkartearekin batera. Bizkotxoaren errezeta ezberdinak aurkitu zituen Azpiazuk hainbat liburuetan, eta Fernandezekin hainbat proba egin ondoren, guztien arteko moldaketa bat egin zuen, garaiko zapore eta gustuetara egokitzeko. Ospetsua omen zen oso Oñatiko Bizkotxoa garai batean. Ekoitzi eta salgai jarri zuen Txokolateixian.

1.maila nazionalerako igoera fasea jokatu zuen Aloñak

[272 ALEA] Sekulako denboraldia egin ondoren, bigarren postuan amaitu zuen eskubaloi saileko gizonezkoen talde nagusiak 2. maila nazionaleko liga erregularra. Herrian bertan jokatu zen Euskal Ligako igoera fasea jokatzera eraman zuen emaitza horrek, eta hura irabazi ostean, 1. maila nazionalerako igoera fasea jokatu zuen Burgosen. Aitor Aranburu eta Rafa Zuluetak zuzentzen zuen taldeak Burgos, Madril eta Nafarroako taldeak izan zituzten aurkari. Jokatutako partidetatik bat irabazi eta bi galduta, ez zuen igoera eskuratzerik izan.

Aloña Mendik bere historian jokatutako 1. maila nazionalerako hirugarren igoera fasea izan zen. Azkena, 15 urte lehenago jokatu zuen, Oñatin bertan, eta igoera eskuratu zuen.

TXINPARTA izena jarri zioten Oñatiko Bertso Eskolari

[269 ALEA] Oñatiko Bertso Eskolaren sorreran egin zuen lana gogoratu eta eskertu asmoz, Txinparta ezizenez ezaguna zen Joxe Mari Agirrebengoaren izena jarri zioten herriko bertso eskolari. Legeak hala eskatuta, elkarteen erregistro ofizialean izena eman behar zuen eskolak, eta bertako kideek ez zuten zalantzarik izan izena aukeratzerako orduan. Udaleko kultura teknikaria zen Agirrebengoa, eskola sortu zen garaian.

'Borda'ri eta Zubillaga auzoari buruzko liburuak

[274 ETA 275 ALEAK] 'Boluntario baten ibilerak, eta beste' liburua argitaratu zuen Ander Lizarraldek. Gregorio Garitaonandia 'Borda'ren ETAko militante zeneko urteak ditu hizpide liburuak.

Zubillagako Ereitten auzo batzordeak berriz, 'Antxinako Zubillagari begirada bat' liburua kaleratu zuen. Axun Billarrek, Eli Igarzabalek, auzo elkarteak eta Artixa taldeak elkarlanean osatu zuten liburua.



50 urte bete zituen Pilota sailak

[272 ALEA] Aloña Mendiko Pilota sailak urrezko ezteiak bete zituen. Urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten: erakusketak, hitzaldiak, Euskal Herriko beste lurralde batzuetako pilota jokoen erakustaldiak... Abel Barriola pilotariaren agurra ere, urteurrenaren ekitaldi nagusietako bat izan zen. Urteurrena borobiltzeko halaber, dokumental batean jaso zuten sailaren 50 urteko historia. Inoiz baino osasuntsuago zegoen saila: 75 pilotari baitzituen une hartan.

Munduko Atletismo Txapelketan izan zen Sanchez, argazkilari

[275 ALEA] Bere pasioetako bi uztartzeko aukera izan zuen Felix Sanchezek urte hartako udan: atletismoa eta argazkilaritza. Izan ere, Munduko Atletismo txapelketaren jarraipena egin baitzuen Londresen. Argazkilari gisa izan zen Sanchez bertan, eta 50.000 argazki baino gehiago atera zituela adierazi zuen. Estadio olinpikoan lasterka egiteko aukera ere izan zuen. Kazetari eta argazkilarientzako lasterketan, 800 metrotan parte hartu baitzuen.

Valls, Martinez eta Ordokiren diskoak

[268, 273 ETA 277 ALEAK] Iker Martinez de Zuazok bakarkako bere lehen lana kaleratu zuen: 'Itzalen Mundua'. Gitarra akustikoa eta ahotsa ardatz dituen 6 abistik osatutako bilduma. Bakarlari gisa ere, bere bigarren diskoa argitaratu zuen Juan Vallsek: 'La Chunky Sessions'. Glasgown (Eskozia) grabatu zuen lana. Azkenik, ausArt Rercords diskoetxeak 'Loli Ordoki, bihotzez eta arimaz' diskoa plazaratu zuen. Bakarlari gisa abesten dituen 19 kanta bildu zituen CD batean.

'Pinotxo hariekin lotu gabe', Ganbara Txikiren musikala

[273 ALEA] Ganbara Txiki abesbatza beste erronka batekin aurkeztu zen herrian: 'PINOTXO Hariekin lotu gabe' musikala taularatu baitzuen Aitor Biainek zuzentzen duen abesbatzak. Broadway estilora egindako ikuskizuna izaki, musika, dantza eta antzerkia uztatu zituen. Guztira 33 aktore (30 neska-mutiko eta 3 nagusi) eta 80 lagun inguru izan ziren agertoki gainean. Haren bueltan baina, 40 laguneko lantaldea izan zen produkzio lanetan.

ESKERTZA

Esker onez

1992ko irailean argitaratu zen Kontzejupetik aldizkariaren 0 zenbakia hileroko formatuan. Hogeita bost urte igaro dira ordutik, eta eskerrak emateko unea da, ibilbide luze honetan bidelagun izan ditugun lankide eta laguntzaile guztiei.

Lehen lehenik Jerardo Elortzari eman nahi dizkiogu eskerrak, zinez eta bihotzez. Hasiera hasieratik izan dugu geurekin, bere jakinduria partekatuz, Oñatiko historia eta ondareari buruzko azalpenak eta argibideak emanez, euskara jator eta dotorean beti ere. Aldizkari honetan agertzen ez badira ere, hortxe daude 'Gure ondaria zainddu guran', 'Oñati letrarik letra I eta II' edota 'Antxiñako Fotografixia' ataletan argitaratutako ehunka artikulu interesgarri. Mila esker Jerardo, egiten diguzun ekarpen handiagatik.

Gogoan izan nahi ditut, baita ere, aldizkariaren hasierako urteetan, bereziki, lankide eta aholku emaile izan nituen bi pertsona: Joxe Mª Agirrebengoa 'Txinparta' zena, orduko kultura teknikaria, eta Marian Lizarralde, euskara teknikaria, une zailetan argia ikusten eta norabidea aurkitzen lagundu izanagatik.

Eskerrak, baita ere, Garbiñe Garai, Beatriz Irizar, Marije Azkarreta eta Iñaki Aiastuiri, Laixan elkartearen izenean egin zituzten elkarrizketa interesgarriengatik, herriko euskara jatorrean idatziak. Eta eskerrak udal euskaltegiko lankideei ere, bereziki Roberto Altunari, hizkuntza aldetiko zalantzak argitzen eta itzulpenetan laguntzeaz gain, Oñatiko euskarari buruzko atal mamitsuak eskaini izan dizkigutelako urte hauetan zehar.

Patxi Hipolito zena ere gogoratu nahi nuke, bere ekimenez sortu baitzen gazteei zuzendutako 'Etxagok ama begira' gehigarria. Eskerrak, baita ere, hainbat urtez maketatzaile lanetan jardun zuen Roberto Maiztegiri, eta gaur egun diseinuaz arduratzen den Aratz Losadari, eta modu batera edo bestera (iritzi emaile, komikigile, kolaboratzaile...) parte hartzen duten guztiei. Denon ekarpenari esker aberasten da aldizkaria.

Urte hauetan guztietan udaletxean izan diren alderdi politikoei ere, kolore bateko zein bestekoei, eskerrak zor dizkiegu, gure lana errespetatzeko egin duten ahaleginagatik, eta eskerrik asko, jakina, udaletxeko langile guztiei, informazio eske joaten garenean izaten duten prestutasunagatik.

Bi helburu nagusirekin sortu zen aldizkaria: euskararen normalizaioan laguntzea, eta udaletxean nahiz herri mailan albiste diren gaiak ezagutzera ematea. Eta horretan jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere, garaian garaiko egoera eta beharretara egokituz. Baina, gogoratu, batez ere herritarren zerbitzura dagoen tresna bat dela Kontzejupetik, eta, beraz, irekita gaudela herritarren aldetik etor daitezkeen proposamen guztiak aztertzeko.

ZUZENDARIA

OÑATI

dabilen herria

www.oñati.eus

#Kontzejupetik25urte